



na



na

Handwritten text in cursive script, possibly a signature or name, located in the upper portion of the document.

Handwritten text in cursive script, appearing to be a name or title, located in the middle portion of the document.

Handwritten text in cursive script, possibly a name or title, located in the lower portion of the document.

na

Stedia hualta
señal de la Cruz Torla
preparación

ad. m.

Josef de Uria
Josef de Uria
Josef de Uria

Stedia hualta
preparación
Stedia hualta

BICI BEDI YESUS.

ESCU-LIBURUA,

Eta Bercean

EGUNEANGO

Cristiñau-cereguiñac.

A. Fr. PEDRO ANTONIO
Añibarro c , Zarauz-co Co-
legioco A. San Francisco-ren
Ordeaco Misiño-guilleac Biz-
cai-co euskeran iminiac.

URTETEN DAU BIGARRENEZ.

BEAR DAN LEGUEZ.

Tolosan , Don Francisco la
Lama Liburu guillearenean.
1821 garren urtian.

UNIVERSITATIS NAVARRAE

LIBRARIUM

IN VITAE

LIBRARIUM

IN VITAE

LIBRARIUM

LIBRARIUM

LIBRARIUM

LIBRARIUM

LIBRARIUM

LIBRARIUM

LIBRARIUM

LIBRARIUM

LIBRARIUM

SART-AURREA.

Iracurle maitea : ondo daki-
 zu zuc, eta ezta ezd kianic, li-
 buru santuen iracurtze ic ari-
 miu sortu ta etorri yoakezan
 onura, irabaci ta zorion ugari
 gozoac. Eztabe neurric, eta
 ecin esan lei liburu on orreec
 ceinbat becatari gaisho, Dea-
 bruaren escuperic, eta bere a-
 guintza gogor gogai carriric,
 edo orretaraco bide labaneric
 aterata, ecarri izan dituezan
 ondutera, eta ceruraco bide
 artezean ibiltera. S. Inacio c,
 Santa Teresa c, San Yoan Co-
 lunbano c, beste milla ta mi-
 lla ascogiz batera, eguia tuc
 dabe nic diñodan gauza au.

Bai beintzat, liburu santuac
 dira ceruco su ederra biotzean
 biztuteco su arri ta caltzeru a-
 lazocoac; dira su ori aci ta eu-

kiteco su-garría. Liburu santuac dira arimeari oraingo gau illunean bidea eracusteco zuzi arguiac ; dira arerio okerrac astindu , goiberatu ta apurtuteco escu arma zorrotzac. Emeti aguri da euren bearra Bada ; celan bistu ta euki biotzeco su santua liburu on bagaric ? ; Celan alde eguin illunetaco or - emen yausteac ta plaustadac euren arguia bagaric ? ; Celan azpiratu arerio itzal , artoso ta asmutsuac liburuen indartasuna bagaric ? ; Ay ! oneec . . nekez eguingo direan gauzac dira.

Orra bada cegaiti yakinic bateti Bizcai co erritar maiteen guei onaren barri , eta onetarico asco misino ostean iracurten icasten asten direla : biotza ausiric besteti Bizcai - co euskeran doctrinaco libru apurtac baño besteric icusten ez

nabelaco ; eta nste izaníc bes-
 te bateti arima asco , liburu
 santuen bitartez Yaungoicoz-
 coac izatera elduco litzateke-
 zanaç , euren yakin-eza itsua-
 gaiti datoçala Deabru okerra-
 ren adu gaiztoco agündupe-
 coac izatera ; gogoari emon
 neutsan atrapau ta yadietsi al
 neikezan astinne ta era aldiac,
 erle eguille aituaren antzera
 emon bear nituzala : eta onec
 loraric lora batuten daben le-
 guez ezta ta arguizaguia abai
 gozoa eguiteco , alanche nic
 beré eguin bear nituzala ale-
 guinac , liburuchu baten ari-
 meen oneraco batzandu ta al-
 cartuteco , liburu ascotan za-
 balduric eta deslai leguez da-
 biltzazan adi-bide , escaari ta
 debociño garri bearrenac.

Esan ta eguin. Atera neu-
 tsuzan , bada , orain emeretzi
 urte danean *Escu liburuan bat*

eguinic eguneango cristiñau
 cer eguinac : goshereanic eta
 arratsera eguin bear dozuzan
 gauzaac : egun bacoheraco
 gog arte santuac : mezentzute-
 co , confesetaco , gure Yauna
 artuteco , curutceetacoac eta
 errosario santua esateco , eta
 beste debociño ascotaraco o-
 raciño , escaari eta eguin-bi-
 deac. Zure , ta beste , erdera-
 ric eztakien en oneraco , beste
 bagaric , artu nituzan , bai ta
 ondo gogo oræz , salla edo ar-
 lo onetaco eguiñenac.

Etzirean nonbaite bere al-
 perrac izan ene celango lanac ;
 bada arguiratu orduco , bein-
 goan , arrapaca leguez , saldu
 cirean liburu guztiac ; ta arrez-
 kero bere bakeric emongura i-
 zan ez deuste , eske ta eske. O-
 netati artu izan dot barriro
 Escu liburu au aterateco bu-
 xutasuna. Eta onetan nabilela


urten izan badau bere beste e-
 ra onetaco liburuchu polit ba-
 tec , derichot orregaiti ece ,
 (eta berac esango dau) eztala
 alperra izaugo ene au. Beinic
 bein yakina da , eta itsuac be-
 re haacusde ece , iñori oke-
 rric eztacarroyola. Eta leen
 baño obesheago eta apaindu-
 sheago bigarren sancha one-
 tan urten daguiantzat , escu-
 aldi barri bat emon izan yaco.
 Baldin mesederen bat onetan
 eguiten badeutsut , ezteutsut
 beste beartsariric , ez beste es-
 kerric , escatuten , ezpada az-
 tu ez naguizula ceure oraciño
 eta escabideetan. Azkenez e-
 san bear deutsut ece liburu o-
 netan icusico dozula batzue-
 tan esaten dala *eguizu* , *egui-
 dazu* , *eguiozu* , *deguizula* , eta
 beste batzuetan *eikezu* , *eike-
 dazu* , *eikiozu* , *deikezula* , &c.
 Lelengoac esaten dira gauea

ordu berean eguin bearra da-
 nean : bigarrenac barriz gue-
 roago garrenean eguin bearco
 danean. Alanche esan daroe ,
 baita ondo baño obeto , gure
 Bizcaitar baserritarrac. Biz-
 caitar eurac erri apur batzuec
 -ez besteetan , Nafarrac , eta
 ara bere gueyago Francia-co
 euscaldunac esaten dabe *yan* ,
yausi , *yo* , *yagui* ; eta alan e-
 sâten ebeen anchina , eta an-
 china andi bagaric , euscaldun
 guztiac. *Ja-je-jia* ez dabela
 euskerac berea , ta bai erderati
 erantsia , ao batez dirauscue
 Larramendi c , Cardaberaz ec ,
 Herbas-ec , D. Yoan Antonio
 Zamacola-c , eta , berbabaten ,
 gaucea ondo adituten yaken
 guz tiac. Bada ondo danari , e-
 ta eguin bear danari eutsi ta
 eutsi bear deutsagu. Agur o-
 nenbestegaz.

BICI BEDI YESUS.⁹

EGUNEANGO CRISTIÑAU

CEREGUÑAC.



Gosbean iratzarri ta bertati beste gauzatarra gogoan emon bagaric, eregui eikezu Yaungoicoa gana biotza, eta esan.

Yesus, Maria eta Yosepe, lagundu eguidazue egun onetan. Angueru Gordezallea, zaindu eta gorde naguizu gaur.

Yagui zaitkez albait lasterren: ur bedeincatua artu, ciñatu, belauñico esan eikezu Neure Yauna Yesucristo eta urrengo oraciño au.

ORACIÑO A.

Irutasun Santua, Aitea, Se-

upna ^{A 5}

mea, ta Espiritu Santua, gauza guztien eguilla, yaun ta yaubea, cerutar guztiac be-
deinca zaguiezala ceure izate
miragarria-gaiti: ni ecer eze-
ti sortu, cristiñau errietan aci,
zure Semearen odolaz erosi,
eta orainguño icharon, mai-
tetu eta laztan izan nosulaco:
baita-beré zure ontasun oshin
baacoac niri, eta guisacume
guzti guztiai eguinico mese-
de neurri baacoac gaiti.

Biotz guztiric esker onac e-
moten deutsudaz barco arrats
-iluntzeric egun sentico ar-
guitara atera nozulaco, ceu-
reontasunac, ta ez bestec, gor-
de ta yagon izan nau gaur gui-
ño. ¿Ceinbat, Yauna. zor deu-
tsut onenbeste mesede gaiti?

Ni bart il nintekean: be-
rein il izango dira: gaur asco
ilgo dira: eta bear bada ni au-
rrengo. ¡Ay! eztakit nic, el-

duco banas gaubera : agaiti
bada ondo emon gura dot e-
gun au. Bai, cé egunic asco
yoan yataz alperric eta utsic,

Onetaraco, Yauna, opa deu-
tsudaz orain ganic gaurco ene
gogo, berba, guraari, bear,
neke, eta eguicune guztic,
eta euracaz batera eskiñiten
deutsudaz, negarrezco erri o-
netan erbestesturic nagoan ar-
teco, nire eguite on guztic:
elesha santan eguingo dire-
anacaz, eta Yesu cristo ren
merecimentu irabaciacaz ba-
tera.

Iminten dot gogoá gaurco
parcamen guztic irabazteco
ene becatuen zorren alderaco,
eta purgatorioco arima santu-
enen kitugarriztat.

Esketan deutsut, Yaun e-
rrukiorra, arren zucendu da-
guizuzala gaur da beti ene
gogo, asmu, eta lan guztic:

A 6

alderatu naguizu ofendidu ci-
 naidazan oker bideetaric : eta
 parcatu yausten banas argal-
 tasunez, yakinezaz, edo neure
 guraari char, eta ecandu ga-
 istoen indarrez.

Lar-beré sarri yansi izan
 nas orain artean : damu dot
 biotz guztic : parkeskeca na-
 gotzu : ta emoten deutsut be-
 tico berba cindo benetacoa,
 ez gaur eta ez iños becatu e-
 guiteco, eta biciera barri bat
 artuteco. Alan guerta dedila.
Amen. Esaizu Credo.

Ama Virginari oraciñoa.

Ceru - lurreco Erreguina,
 Yaungoicoaren Ama maitea, ta
 becatarien vitartecoric laztane
 na, ceure bearra dot egun one-
 tan; artu ta estalpetu naguizu
 ceure egapian: arteztueguizuz

nire eguikeraac; zucendu nire
 ibileraac; gorde naguizu ou-
 damendi ta galbideetaric: eta
 erregutu eguiozu becatari an-
 dionegaiti ceure biotzeco Se-
 meari: escatuten deutzazula
 arren nire erruki izan dedila,
 eta ondo artuac izan ditezala
 bere aurrean ene gaurco lan,
 esa eguite, neke ta bear guz-
 tiac, ene becatuen zorren al-
 deraco, bere gloriaric andie-
 neraco, eta neure lagun ur-
 coen oneraco Amen. *Ave Ma-
 ria eta Salvea.*

*Angueru Gordetzalleari
 oraciñoa.*

Ene arimaco zain eta gor-
 detzallea, Yaungoicoaren An-
 gueru ederra, ene negarrezco
 erbeste onetaco lagun ta ya-
 gola maitea. Sortu nintzanic

ana zabiltz ceun nire laguntzan:
berein esker eta mesede zor
deutsudaz.

Aurrera eroan eguizuz, ba-
da, gaur bere nigazco ardura
aleguiñezcooc: urrindu egui-
zuz ni-ganic arerio gaistoac:
azpiratu deabru madaricatuac:
banatu bere sireac, lakioac,
amu eta asmuac.

Bizcortu naguizu, bana-
cutsu nagui epelic, adierazo
eta ulertu eraguidazu cer e-
guin, eta cer ichi bear dodan
Yaungoicoaren borondatea e-
guiteco: gaurco egun au on-
do emoteco: ta eriotza-guiño
bere gracion ta bakean irau-
teco, Amen. *Aita gurea eta
Ave Maria.*

*Neure iceneco Santuari
oraciñoa.*

Neure iceneco N. Santu

andia ! ceure icen miragarria
 emon eusten bateoan , zu ene
 moldea izanic , yarraitu ne-
 guioentzat ceure bicitza , bir-
 tute , eguite ta santutasunari.

Izan zaitez , bada , gaur ta
 beti Yaungoicoaren aurrean
 bitarteco neurea : yagon eta
 gorde naguzi estucuntza eta
 oker-bide guztietan : bada ni
 orain- . anic asico nas ceure
 antzera biciten lurrean : izan
 artean ceure lagun ceruan ,
*Amen. Aita gurea eta Ave-
 Maria.*

Egun ataco Santuari oraciñoa.

Egun onetaco Santu bio-
 tzecoa ! ceruan ta lurrean gor-
 deten da gaur ceure egun an-
 dia. Gaur Elesha santuac i-
 minten deustaz beguien au-
 rrean ceure umiltasun , nek-

-aldi, eta penitencia arrigarrac, nire epeltasuna azcor-tuteco, eta neu zure antzera biciten ecar teco: orain ceure oñatzai yarraituric, eguin daguizudantzat guero beti lagun ceruco glorian, Amen.
Aita gurea ta Ave Maria.

Lan luburroc eguinic zoaz mez entzutera. Bein beré ez uts eguin meza santua, eta albai tanez barautan entzun: bada bein da arma il ecina gorputz ustela bashen.

Mezatarac etsereanic urte-ten dozunean, uste izan ece Calbariora zoazala, Yesucristo ilten icustera: eta gogotan artucelan Angueru Gordetzalleac darioian ceure mezataraco pausuen contu ederra.

Sartu zaitekez Eleshara bildur icaralotsazcoaz: beguitandu bekizu ceruan bertan zagozala. Ez albora adi egon,

*cé hein baten Deabruac belar
ondoco eskerga bat emon ei eu-
tsan albora beguira egoan ba-
teri. Beguira Yaungoicoaren
aurrean zagozala, eta ez aaz-
tu bear bada egunen baten
Elesba onetara ilic ecarrico
zaituezala.*

*Onezaz ostean edo Elesban
edo etsean, ereac aguinduten
deutsunean, euki eikezu egu-
nean ceure gog arte edo adi-
mentuzco oraciño apur bat. Ta
ori errazago eguiteco, ara e-
men egun bacoheraco gogarte
edo meditaciño batzuc.*

ILECO EGUN BACO-
*cheraco atzerengoen ganeco go-
garte laburrac. Aita Yoan Pe-
dro Pinamonte enetaric
euskeraratuac.*

**SART AURREA, ETA ORACIÑO
EUKITECO ADIBIDEAC.**

U*ru gauza dira oraciño euki.*

*teco gueyen bear dozazandaz
 aurretico prestaerea, gogar-
 tea, eta biotzeco berba aldia.
 Araemen iruroc bein banatan.*

Prestaerea.

Gogora ecazu cer zarean
 zu, eta cer Yaungoicoa: zure
 ecereztasun villau prestueza,
 eta Yaungoicoaren izate mi-
 ragarría. Egon zaitekez be-
 re aurrean fede bici, biotz-
 eresheguin eta umiltasun andi
 bategaz, eta errudan baten
 bildur-izara guztiagaz. Esca-
 zakikioz arguitu daguizula bu-
 rua. berotu biotza, ta zolitu
 gomutea, bear dan leguez iga-
 roteco, iracurtera zoazan go-
 gartea. Eta oneri esaten deu-
 tse Prestaerea.

Gog artea, edo meditaciõa.

Gogotan astiro astiro erabi-

li eikezuz, eta bein banaan,
eta bacocha berez ausnarta
iracurten dozuzan berba guz-
tiac. Beguira ea zure bici e-
rea bada gogarte ones dirau-
tsuen moducoa, edo ea celan
bici zarean; aracatu eikezuz
ceure biotzeco baster gu-
tiac; ea cetan gueyen uts eguin da-
foazun: cec yausi eraguin, ta
cec gueyago lotuten zaituzan
araco ecanduzco becutuan; eta
oneri esetsi zakikioz aric eta
aguertu eta aspiratu artean
ceure ecandu char, guztien ar-
tean gueyen burua eracutsi
bear izaten dabena, eta eba-
gui artean bere sustrai gais-
to, o^{er}, gach guztien itur-
burua. Eta oneri esaten yaco
Gog artea.

Berba aldia edo Colokioa.

Biotzeric eta gogo gogoric
gorrotadu eikezu orain guiño-

co zure bicitza deunguea: da-
mutu becatu eguina, eta yosi
eikezu ceure ariman, aurreran-
tzean zure bicitzea, gogarte
iracurric daracutsun leguez
onduteco gogo cindo bat.

Gueroenean erregutu eikio-
zu Taungoicoari, bere Seme
Tesucristo ri, Ama Virgi-
neari, Angueru Gordetzallea-
ri, eta ceure Santu artuai la-
gun daguizuela frutu eta onu-
ra ugari ederrac oraciñoric a-
terateco: ez ostera becatu
biurtuteco: ecanducbarrac az-
tuteco: lagun deungucetaric al-
de eguiteco: negarracaz beca-
tuac garbituteco: eta biciera
on baten eriotza-guiño iraute-
co. Eta oneri dericho biotzeco
berbaldia.

Beste yakin bear batzuc.

Gogarte ones doaz guizonen

azkenengoen ganean: bada on-
nec gogotan badarabiltzuz,
etzarealabecatuan yausico di-
rautsu ondo dakian Taungoi-
coac berac. Tesucristo gaiti e-
rregututen deutsut, arren,
zuichienez egunean ordu lau-
renbu emon daguizulalansan-
tu onetan; cé. bear bada, bera-
tan dago zure betico zorion,
edo zorigaisto guztia.

Gogarte oneetarie batec e-
do batec ceure biotzean erason
andiagoa eguiten hadetsu, e-
kin eta ekin berari: eta ez or-
duan ez ece, baitu biaramonean
ta biaramon ascotan beré. A-
lan iracasten dau san Inacio
asco yakinar.

Buruzco eguinenetan egotal-
di guztia emon bagaric, igaro
zaittekez biotzecoetara. Gorro-
tan becotua: emon Taunari es-
ker onac beré ontasunac zuri
eguinico mesedeacaiti: eci gor-

putz gaistoa: ucatu ceure buruaren lar gura eta asco erecblari: aaxtu lurreco ondasun uts guzurrezcoac: artu becatu guztien damutasuna ta garbaya: eta ceure bicitzea obaturteco gogo zoli cindoa: ara emen zure laneraco arloric eta sallaric ederrena.

Escariac eguin eikiezuz, baita sarri Yaungoicoari, Yesus biotzecoari, bere Ama maiteari, zure Angueru yagoleari, eta zure Santu Santa artuai arguitu zaguientzat, lan onetaric onen bat aterateco.

Gogarte osteraco esango dan frutua ezta bat izango egun guztietan: orregaiti bere lños asmetan badozu, ac edo besteac gar gueyago emoten deutsula, izcune cbarren bat garbituteco, edo onen bat artuteco, zakikioz orreri biar, etzi, etaidamu, eta bear bade

ile guztian, badericbazu, or
 izango dala Yuungoicoaren on-
 draric andieneraco, eta ceure
 arimearen oneraco.

Egunen baten oraciñoa lu-
 zatuteco astiric expadozu, ira-
 curri eikezu edolanberé iru e-
 do lau bider egun ataco gogar-
 tea. Eta astiro oraciñoan za-
 gozanean, badabiltzu or emen
 deslai gogoa, ez ichi escu ar-
 teric liburuchu au: beti bere
 barriro iracurri leengo gau-
 cea; orregaz lotuco dozuz zu-
 re gogoraciño arin eroac

Espiritu Santu Yuunac ar-
 guitu eta lagundu dai ula; ta
 escatu eikiozu berari zu eta
 biocaiti.

ILECO EGUN BACO-
cheraco atzerengoen ganeco
gogarte laburac.

LENENGO EGUNA.

Ce ardurazco lana dan
salbaciñoa.

I. **N**ire eguinenic bearre-
 ena da neure salbaciñoa. Bal-
 din nic bere arduraric ez pa-
 daucat, ; noc eukico dau ni-
 gaiti?

II. Aio da andia lan ta cer-
 eguin au ece, berean yoat na-
 san guzti au ; ene arimea, ta
 ene gorputza. Nic yaramoten
 ezpadeutsat, ; noc aituco deu-
 tso nigaiti?

III. Da cereguin bat, ceine-
 taric yatortan beti betico zo-

ñon guztia. Nic galduten ba-
dot, ; noc irabaci leit?

Bada ; cer eguiten dot? ; No-
ra adi nago? ; Celan guzti au
urtuten ez nas neure arimea sal-
betearren? Ez dot neure arima
bacar au bashen maiteago izan
bear dodan gauzaric : eztaucat
arima il ecin au bashen balio
andiagoco ondasunic : bein gal-
tzen badot, guztia betico gal-
du neban.

FRUTUA.

Opa ta eskiñi eguiozuz Tri-
nidade chito santuari Virginia
Ama Maria ren, Angueru Gor-
detzallearen ta egun ataco San-
tuaren escuz, eta bitartez ceure
biotz, asmu, gogo, berba eta
eguikera guztiac, izan daitezant-
zat Yaungoicoaren gloriarican-
dieneraco eta ceure arimearen
oneraco. *Esaizu iru bider Glo-
ria Aiteari.* **B**

BI GARREN EGUNA.

ERIoTZEAREN GANECO
YAKINEZAC.

Erabaguiric dago, ta ni ilgo nas.

I. **B**aya eztakit nos : il ninteke orainche, ordu onetan be-rean.

II. Baya eztakit non : il ninteke oker-bíde, edo era aldi de-ungaren baten.

III. Baya eztakit celan : il ninteke becatu mortalean. Eta ; onen eroric edaten dodaz ur otza leguez zarra zarra becatuac? Era ; onen erraz biurtuten nas atze-ra leengo okerrerietara? ; Ce si-nismen, ta ce centzun da nirea? ; Ay ce sor-gorturic nagoan !

FRUTUA.

Enabatsi eguizu, orain-ganic

ondo emotea enparetan yatzu-
 zan egunac, baita cer eguin
 bearco dozun ordu bacochean.
 Bear bada zuc alperric galdu-
 ten dozun ordu ori, izango do-
 zu zure atzkenengo ordua: edo
 ameneco ordu orrec, ondo e-
 monic, ecarri leikezu betico ce-
 ru ederra.

IRU-GARREN EGUNA.

Eriotzearen barri bildurgarria.

Uste uste bagaric beingo ba-
 baten ilten e/panas, elduco da
 eguna, ceinetan esango yatan
 presta nadila ondo ilteco.

Eta orduan, I. ; Eukico dot
 burua confesetaco, ga bagaz
 indargueturic eta conorte on ba-
 garic ozta ozta egongo banas
 berba eguiteco?

U. Larrituric, bildur-icaratu-

ric , adorebazaric eta cocorteturic egongo nas : eta ; izango dot burua becatuac gomuteraco ?

III. Nire biotza egungo da becatuen sareacaz eta locorriacaz nastituric , eta alde guztietati catigu : eta ; egongo da becatu orren benetaco damua , ta ez gueyago eguiteco gogoa artuteco ? ; O ene Yaungoicoa ! ta ; cer eguingo dot nic orduan ?

FRUTUA.

Leen eguinda ezpadozu , eguizu orain era-batera becatu guztien confesiño general eguiazco bat , barriztetan dozu-zala zure bici guztico confesiñoac ; era leen eguñic badozu , eguizu gueroenengoric onacoena. Garbitu eguizuz ceure arimaco contuae : ta confesiño on on baten bidez ihildu ceure

biotzeco kezca ta errencura bil-
durgarriac. Autu ta artu eikezu
confesore albait onena ; eta ez
galdu ceure bicirza gaistoa on-
duteco Yaunac opa deutsun a-
begune eder au.

LAU-GARREN EGUNA.

Eriotzaraco prestaerea.

Cer litzateke ondo nic e-
guita, eriotza on bat eukiteco.

I. Ordu atan, eguin izan ba-
neu, guraco dodana.

II. Ordu atan ecin eguingo
dodana.

III. Ordu atan, salbaduco ba-
nas, gura ta gurez eguin bear-
co dodana : neure becatuen da-
muari oso, eta garbai zoli bat,
aurrerantzean becatura biurtu
ez-eiteco gogo cindo cindo bat.

B 3

Ardura andi bategaz artez-
tucó dodaz gaurco nire esa-e-
guite guztiac atzeneco eguna
baneu legue che: negarrez urtu-
co' dodaz nire becatu eta gais-
takeria ezainac: eta artucó dot
gaur-gueyago ene bicitzea on-
duteco asmu eguiazco bat. *Aita
San Yosepe ren onrarié andlene-
raco zazpi bider gloria-Aiteari.*

BOST-CARREN EGUNA.

Ilteco dagoanaren esturaac.

I. Igaroac larrituten dau: ain⁴
beste becatu negar eguinbaacoc.
II. Orducoac bildurtuten dau:
dacus bere burua condenetaco
arri labanaren ganean: eta ez-
taki celan urtengo daben gal-
bide ataric.

III. Gueroocoac icaratuten dau:
 aurrez aurre iminten yaco an-
 dico aldeco betico bicitzea, ta
 eztaki guertaco yaconez cerua
 ala infernua. Santuric andiena
 icaratuten da ordu garratz atan:
 ¿cer eguingo dot bada nic be-
 catari galdu onec?

FRUTUA.

Asmetan badozu ceure ari-
 maan becatu mortalen bat, ber-
 bertati, gñeyago luzatu bagaric,
 confesa zaitekez gaur: eta ba-
 zagoz Yaungoicoaren gracion,
 berari esker andiac emoyozuz
 mesede eder onégaiti.

Escatu eguiezu Yaunari, eta
 'Ama Virgineari arren onean e-
 riotzara guiño iraun-erazo dei-
 zuela. *Esaizu gaur Ama Virgi-
 nearen Letania.*

SEI GARREN EGUNA.

Atzerengo arnasea.

I. **A**tzerengo orduan ur-
tengo dau arimeac gorputzeric,
eta ichico dituz bein betico a-
ren gozoac eta atseguintasunac.

II. Ordu atan galdu cirean e-
meco andi izateac ; yoan tzi-
rean ondasunac : alderatu cirean
adiskideric cutunenac.

III. Ordu atan galdu ninteke
beti betico. Oraingo ordu au
baneu nic eneatzenengo ordua,
; cer izango ete liteke nigaz ?
; O memento icaragarria , cei-
zetaric dagoan eskeguita , din-
guilizca leguez , baten betico
zori ona edo zori-gaistoa!

FRUTUA.

Orduric ordu ceure buruari
contu artu eikiozu , eta icusi ea

celan eta cetan emón izan do-
zun aurrengo ordua. Alanche
eguite' eban San Inacioc. Eta
eguin tzaitez erloyuac yoten
daben bacochean *Ave Maria* e-
saten, partamenac irabazteco.

ZAZPI GARREN EGUNA,

Arimea Yaungoicoaren aurrean.

Ilteagaz bat-batean aguertuco
da ene arimea Yaungoicoaren
aurrera bere bici guztico con-
tu ceatza emoten.

Contu eguin daidan bada o-
rainche dacusdala oearen oñe-
tati. I. Yesucristo yuez aserre
gogor bat leguez, nire contra:
eta etorri izan dala niri betico
sentencia emote.

II. Dacusdala ezkerreco alde-
ti Deabru madaricatua pozarren
ozta; liburuto andi tzar bate-

gaz escuetan , ceinetan dara-
cusdazan banaan banaan , eta
bacocha berez ene bici guztico
gaistakeriac eta okercuntza es-
kerzaac.

III. Escoaco escutara barriz
dacusdala Angueru Gordetza-
llea , biotza ondo ilic daucala ,
eta liburuchu pitin baten era-
custen deustazala nire eguite on
labur ecerezac. ¡O ce icusga-
rri tristea ! ¡O ce larritasuna !

FRUTUA.

Gaur gabean oean zatzazala,
zagoz tanga baten azkenengo
arnasacaz yoan agueinean da-
goan baten antzera ; era begui-
tardu escu baten dozula San-
tochristo bat , era bestean can-
dela eshetua. Biztu onetan ceu-
re biotza : eta esan eikezu ceu-
re artean : bada aushe balitz ene

atzerengo ordua , ; cer gura
neunke nic eguinic euki?

ZORTZI GARRENEGUNA

*Yaungoagaz guizonaren
arteco yudicioa.*

I. **C**onti ceatz-arteza ar-
tuko deuste ene gogo , berba,
eta eguite guztiena. An aguer-
tuko dira niri esesten eta ni sa-
latuten , ni deungueraco puztu,
edo okerreraco gantza niri e-
moten eusten Deabruac : anche
nic galdu nituzan lagunac : eta
anche Yaungoicoac niri emon ,
eta nic erantzun ez neutsen ain-
beste argui-aldi eder , dei gozo,
eta cemauntza bildurgarri.

II. Yueza izango da guztizco
zucena , zorrotza , eta erruki-
baguea. Bere aurrei eguin ni-
tuzan nic gaistakeria guztiac ;

36
berac icusi, entzun eta aditu
cituzan direanac.

III. Bein emonico sentenciari
echaco bere bician ucutuco. Ez-
ta an izango gauzeen ederga-
rritic, ez achakia onic, ez ber-
ba eguin 'leixean bitartecoric.
; O berico ceruco bicitzea, edo
berico infernucoc eriotzea! Eta...
; celan bici nas ni!

FRUTUA.

Ezpekizu burutaric kendu e-
gun guztian Yesucristo yuez a-
serratuaren gogoa; eta gauza-
ren bat eguin edo esan baño
leen, esaikezu ceure artean :
eta ; ce sententia zor yaco, o-
rain eguitera noian gauza oneri?
O ra bashen leen esaikezu iru
bider: *Ama graciazcoa, Ama e-
rruixizcoa, gorde gaizuz eriot-
zaco arduan, Amen. Eta mun
eguiotzu beari,*

BEDERATZI GARREN

EGUNA.

Arimea eriotza ostean.

I. **E**moten bayaco ceruraco sententia, igongo dau cerura arimeac Anguerue i gunizan, glotiaz yantzirik, birtutez aberasturic, eta apairduraz ederturic. ; Noc gugotan aritu arimearen orduco poza? ; O ce gozotasuna beintzat berea!

II. Infernuracoa barriz bada emoten yacan epaia, billostu ta erontzico deutsez arimeari birtute, doe, eta edergarri guttiac : yasoco dabe Deabruac, ta ondatuco dabe beingo-beingo baten infernucos garretan. ; O zori-gogorreco becatuac beintzat! ; O ce larritasun itzala arima batena, icusten dabenean bere burua suzco toki garra ta garra darion onetan!

III. Epai bi onectaric bata e-
do bestea nai eta naiezean , e-
mongo yaco bacochari. ; Cein
izango ete da, bada, niri emon-
go yatana ?

FRUTUA.

Arratsalde onetan esamina
concienciacca eguin ezkeru , e-
guizu ceure artean ea cetan e-
mon izan dozun bicitzea ; eta
ce sententia bearco cendukean
orain-guiñocoa-gaiti : eta cein
izango cendukean , gaurco e-
gun onetan , oera baño leen e-
mon bearco balitchatzu. *Aita*
gurea bein eta iru gloria Aiteari
Trinidadre Santuari becokiz ce-
laian ecbun da.

AMAR-GARREN EGUNA.

Gorpu ila.

Contu eguizu dacutsula ceu

re burua gorpu casha zuriaren
ganean.

I. ; Celan dago? ; Ay! Guztiz
icaragarri, bellegui, ezain, ta
zur bat leguez gogor gogor da-
tzala. Eztacus, ezantzu, ezta-
bil, eztau cirkinic ez chitic e-
guiten. Bacanic dago, inoc ya-
ramon eta icusi gura baganic.

II. ; Cegaz mezidu eta yan-
citen dabe? Ilyantzi zantar e-
ten bategaz, edo abitu zar ba-
tegaz. Ain dago icaragarri ece,
guztiac dabiltz bera ganic igue-
si: inor ecin egon da bere al-
boan: otza gogorrean dauco
noc lurr-emon.

III. ; Nora daroe? Eleshara,
Sacerdoteac lagunduten deuse-
la: oneec oraciño batzuc esan
ezkero, sartuten dabe lurpean:
anche ondo ondo sacatu ta osti-
copeetuten dabe ardura baganic,
bertan usteldu, arrac yan, lur-
tu, eta austu dedintzat: ta ichi-

ric an bacar bacarric, bacocho
 doa bere cereguinetara. Ta ¿gor-
 putz au nabil ni apaindu ecinic?
 Eta ¿gorputz oneri nabilco ni
 nayeraac eta mizkeriac eguiten?
 ¿O itsumen gogorra! ¿O era-
 keria latza neurea!

FRUTUA.

Zoz gaur Elesha batera, ta
 Yesus Sacramentadua adorata,
 gueratu zaitez ez auspez sepul-
 tura baten ganean, eta esitez
 bost bider: ¿Ay bada! Egu-
 nen baten etse onetara ecarrico
 dabe ene gorputz au, bertan
 usteldu eta arrac yateco. *Esan
 eguizuz oracino batzuc purgato-
 rioco Arimeen oneraco.*

AMAICA-GARREN EGUNA.

Neure bicitzaco procesoa.

Neure bici nasan arteco e-

guite guztia e scribietan dira
proceso baten, eta elduco da
eguna, ceinetan iracurricor ya-
tan guztia etabatera.

I. Iracurricor yat eguin bear
ez, eta alanberé eguin neban
okerreria.

II. Iracurricor yat eguin al ne-
urkean, eta eguin e-neban on
guztia.

III. Onen guzti onen ganera
yoco dau azkeneco sentenciac.
Baya ; ce sentenciac ; Ay !
Neuc orain ene eguiteacaz ira-
baztan dodana.

FRUTUA.

Beguiraldi bat eguiozu ceur-
re igarorico bicitzeari ; eta go-
gora ecazu ceinbat gauz on lo-
tsaz, buruari erechiz, eta gui-
zonen ederra eukitearren eguin
bagaric ichi dozuzan ; ceinbat

aldi eder emon dozuzan alpe-
 rric eta ecerecean, eta ceinbat
 becatu icaragarrizco eguin do-
 zuzan. Negar eguizu guztien
 ganean, eta asi zaitez benetan
 bicitza on bat eguiten. *Esaizu
 Aita gurea bat.*

AMABI GARREN EGUNA

*Penitenciaraco acullua eta
 ciricadaac.*

Becatu eguin badot, lepoan
 daucat gura eta gurezco peni-
 tencia eguin bearra : ; ezta alan?
 Baya, ta, ; nosh eguingo dot?

I. Eriotzea ezkerro ecin eguin
 nei, cegaitic-ece ya yoan ya-
 tan ori eguiteco aldia.

II. Eriotzan ezta erraz egui-
 ten, bada asti guichi dago or-
 duan, eta oraindo gogo eta ga-
 nora guichiago.

III. Oraingo she atü baño beste
era , aldi eta abeguneric eztauc
cat nic ene escuan. Bada alan ,
edo orain eguin penitencia ; e-
do bildur izan bear nas , ene
bician eguingo eztodala.

FRUTUA.

Emon eikiezuz guztiai one-
raco burubideac eta gantza ; ta
eguzu zu-gan dagoana becata-
riac onduteco zure berba , e-
rregu , eta esa-eguite onacaz.
*Esaizu host amarrecoco errosa-
ria , eta biotzeric escutu egui-
zu Virgineari , arren zure erruz
ñor galdu eztedila.*

AMAIRU-GARREN EGUNA.

Tudicio aurreco icusgarri itzalac.

Edeac daracuscu , eta Yc-

sucristo-c esan euscun Yudicio
-aurrerri izango direala icusga-
rri chitozco itzalac.

I. Izango dira bada asco eta
andiac. Eguzkia ilunduco da:
ilarguia odoldu: izarrac beera
yausi: ichasoac andien andiz
ganez eguinda, erri zabal lu-
ceac ondatuco dituz: lurra ica-
raru-ta alde ascotan etenduco
da: izango dira aserreac, gue-
rraac, alcar icusi ecinac ta go-
rrotoac.

II. Izango dira oneec, mun-
duan usteric guichien danean:
munduan becatuic gueyen da-
nean: eta munduac onduteco
astiric izango eztabenean.

III. Izango dira icaragarriac:
yausico da ceruti suzco ibai bat,
ceinec erre bearco dituzan gui-
zonac, abereac, zuguetzac, u-
riac, erriac, yaureguiac, etseac
eta ondasunac: berba baren,
mundu ta mudutar guztiac, ga-

raunchu bat beré ichi bagaric.
; O ce su , eta gar aserrea ! Ar-
guiric eztauken abere mutuac
eurac larri estuturic egongo ba-
dira orduan , ¿cer eguingo dabe
becatariac ?

FRUTUA.

Iru gauza emon bear deusta-
zuz gaur ceure biotzari. Lenen-
goa Yaungoicoaren yusticiaren
eta aserretasunaren bildur andi
bat : bigarrena ceure becatuen
garbai zoli ta damu bicia : iru-
garrena barriz Yaunaren onta-
sun neurri bagaango esperantza
berrea. *Iru Alta gurea eta Ave
Maria.*

AMALAU-GARREN
EGUNA.

Gorputzeen biztuerea.

Anguereac turrunta bildur-
garriari ois eraguin ezkeru.

I. Biztu eta yaguico da ene gorputz au datzan tokiric.

II. Ene gorputz onegaz barririo batureco, etorrico da ene arimea edo ceruric, edo infernuric.

III. Gorputza eta arimea alcarregaz baturic, biac iraungo dabebetico, inos il bagaric. Baya, eta ; celan ? Edo betico zori-onecoac direala, edo betico zori galducoac. ; Zori-galducoac orduan, munduan bici cirean arreco, olgura, solas, atseguintasun, ta erakeria citelac ! ; Zori-onecoac barriz, oraingo barau, neke eta penitenciacl

FRUTUA.

Emoikiozu gaur zure buruari nekeren bat, esateraco, baraua, cilicioa edo beste alangoren bat. Kendu, edo laburtu

elkiozu atseguingarriren bat ; e-
do yan guichichu, berbaac urri
eguin, beguiac batu, edo alde
eguin biotza arguituco leuske-
zun, lagun, toki eta ibilteeta-
ric ; eci eikezu gorputz gaistoa,
eta ebagui burua, araco ecandu
deunga, zupan aguinte gueyen
izan, ta zure eten ta erracunza
guztien sustraia dozunari. *Ita
curutze eguizuz miñagaz celaiac
ecure berba deungaacaiti.*

AMABOST GARREN EGUNA.

Yuzxaren etorrerea.

Yesuktisto bicien eta ilen
yueza yatsico da bere Amaren,
eta Angueru, Apostolu, ta ce-
rutar guztien laguntzaan odoiz-
co yarlecu eder baten.

L. Ene Eguillea dan aldeu con-

tu estua artuco deust, eni egui-
nico mes-deena, eta eni emoni-
co doe guztiena: baita barriz
nic, es: erbaaco tzar onec, guz-
tiac alperric artu eta galdu ni-
tuzan.

II. Ene gurasoa daneti contu
zorrotza escatuco deust, eni eus-
tan laztantasun ta ascogureare-
na: eta enegan eracutsi eban on-
tasun neurribaacoarena: baita o-
rretaraco nic, lotsa galduco o-
nec, orrei deungaro erantzun
neuntsen.

III. Ene erosla eta erredento-
re danez contu gogorra artuco
deust, nigaiti emon eban odol
ugari baliotsuena: ta ni salbe-
taco eguin cituzan osterantzeco
aleguin ardurazcoena: barriz nic
oker tzar onec sarri ta sarri za-
paldu, ta oñ azpian erabili izan
dot odol ori, eta gogortu na-
chake Yaungoicoaren aleguinai.

FRUTUA.

Eroan eikezu gaur curutze
 astun bat lepoganean, edo egon
 tzaitekez luzaro besoac zabalic
 edo erabili eikezu soca latz mo-
 ropildu bat garrían: edo egui-
 kezu beste laztasunen bat Ye-
 sus en pasiñoaren icenean. Ar-
 tu eikezu beti bere santocristo
 bat besartean, eta escatū za-
 kikioz Aita maite eguiazcoari
 leguez, arren zure erruki izan
 dedila, eta mun emon eikiezu
 guztiz samur bere llaga gozoai
 esanagaz bacochari bein *Glo-
 ria Aiteari.*

AMASEI GARREN EGUNA

Biotzen aguermena.

Becaturic aridena ta çcer-

50
ecena bere ezta gueratuco ez-
cutuan azturic. Dīreanac an
zabalduco dira : guztiaē guz-
tia entzungo dabe. ; Ay, ce lo-
tsa gorrian icusi bearco dodan
orduan ene burua!

II. Ceinbat gaistakeria zo-
colldoetan eta basterretan e-
guinac urten bearco dabeen an
aguirita ! ; Ceinbat okerreria
neure erruz aztuac eta yara-
mon ezac aguertuco direan an!
; Ce erantzun nei nic orduan ?

III. Eguin dodazan becatu
guztien aurrez aurre iminico
deustaz Yaungoicoac , berac
niri eguinico mesede asco ta
andiac : eta lotsatuco nau, nic
osticopean erabili neban bere
odolagaz ; deungaro artu nitu-
zan sacramentuacaz : entzun ,
ta erantzun ez eguin neutsen
biotz deiacaz ta kisketadacaz.
; Ay, ta ce amorru gogorra eri-
ngoyatan niri ordusitzalatan!

FRUTUA.

Bacartu eta ezcutadu zaitez
 gaur Elesharen batera, e-
 do etse barruan santocristo ba-
 ten aurrera ordu lauren baten,
 edo gueichuago, eta an aratu
 ondo ondo ceure biotzeco baz-
 ter guztiac : eta gogora egui-
 kezuz zuc gogoz ta pensamen-
 tu utsez eguin izan dozuz in
 becatu estariac : eta beguira,
 ondo eguin dozuzanez orain
 arteco confesiñoac. *Espiritu
 Santuari burua arguitu degui-
 zuntzat Credo bat ta zazpi
 Gloria Aiteari.* **III**

AMAZAZPI GARREN

EGUNA.

*Deungac onen arte-
 ric ateretea.*

Undu onetan alcarregaz

C 2

batzanduric, eta nasturic bici
 dira onac eta deungaac: il ez-
 ketiño beré toki baten lurpe-
 tuten dituez: baya yudicioco
 egunean ezta alan izango: ce-
 gaiti ce urtengo dabe angue-
 ruac, ta kenduco dituez deun-
 gaac onen arteric.

I. Escoatara egongo dira o-
 nac; eta bear bada nic orain
 ecetan ez daucadazan necatu-
 chu apal, mee asco.

II. Ezkerretara egongo di-
 ra gaisto oker deungaac, eta
 ameneco nic nire erruz galdu
 eta nigaz nasteen becatu eguin
 ebeenac.

III. ¿Escoatara, ala ezke-
 rretara egongo etenas ni?

FRUTUA.

Gaur ganic artu eixezu de-
 bocino bero ta zoli bat angue-

ru santuai, eta guztien ganeti
 Angueru gordetzalleari, egua
 icaragarrizco atan deungueen
 arteric aterata, escoatara ero-
 an zaguizantzat. Alan guerta
 dedintzat, entzun eikezuz o-
 rain-ganic berac biotzera di-
 rautsuzanac, eta eguin beti ta
 beti bere esanac: eta erabili
 berac eracusten deutsun bidea.
*Bederatzi bider Gloria-Aitea-
 ri bederatzi Angueru coruen i-
 cenean.*

AMATZORTCI - GARREN EGUNA.

Atzerengo sententia.

Alde eguinic gaistoac onao-
 ganic, emongo dau Yesucris-
 to-c sententia.

c. I. Sententia bat, bein-beré
 ecin **ucutuco** yacona.

II. Sentencia bat, emon da belan eguin bearco dana.

III. Sentencia bat bein betico izango dana. Betico zorigaistocoa, becatu eguin da, ños damutu echacomentzat. Barriz betico zori onecoa, eguño bere bician becatu eguinez ebanarentzat; edo eguia beeban beré, negarrez eta damu garbitu ebanarentzat.

FRUTUA.

Belaunico bebonc zabalic esan eguizu iru aldiz: *Nere Yana Yesucristo*: eta *damu dot* esatorduan, echun zaitekez auspez lurrean: eta erazo eiklozuz ceure biotzari iru gauza onecc; lelengo humiltasuna, bigarren becatuen damu cincoa, eta irugarren Yesucristo-ri escatutea, arren parcatu

deizuzala ceure becatu eta e-
rracuntza guztiac.

EMERETZI - GARREN

EGUNA.

Denporearen balio andia.

Balio andico ondasun bat
dozuz Yaugoicoac emoten deu-
tsuzan egunac. Euren izpiric
chicarrenac ainbat balio dau
ece, berean irabaci lei batec,
becatuagaz il eban arimea, e-
ta galdu eban Yaungoicoa.

Eguiozu bada zure buruari:
I. ; Ceinbat on eguin neike-
an nic egun onetan, eta eztot
eguiten!

II. Gaurco eguna igaronz
doa, eta eztot iños atzera ega-
rrico.

III. Gaurco egun onen, eta
garego egun, eta ordu guztien

contu zorrotza artuco deusté:
 eta alan da guzti ; am ardura
 guichiz vicico nas? ; Ay ene
 zori gaistocoa deungaro emo-
 ten badodaz egun orreec!

FRUTUA.

Asi zaitez orain-ganic on-
 do emoten zure egunac: eguin
 ez galdutearren eurac opa deu-
 tsuen era ona: eta cerua ira-
 bazteco egarriaren andiz, ez
 alperric yoaten ichi ezta dan
 apurric chikienari beré. Orre-
 taraco, mezatan bazagoz, e-
 gon zaitezkez lotsa onean, baz-
 terreta beguira ibili bagaric,
 eta gogoa bertan dozula: erro-
 sarioa esaten badozu, esaike-
 zu albait debociñoric andiena-
 gaz: lanen bateri badarago-
 yozu, eguikazu Yaungoicoa
 gogoa dozula, eta berari ay

tseguin emotearren. Esan et-
kezu bost amarrecoco erroda-
rio bat Ama Virginearen on-
dran, mesedeac escatuten deu-
tsazuzala.

OGUEI GARREN EGUNA.

Infernua.

¿**C**er da Infernua?

I. Da presondegui, ta toki
ilun, itzal, icaragarri bat, cein-
netan dagozan galdu madari-
catuac estu esturic, cateacaz
loturic, apur bateco bakeric,
ez atseguinic ez daukeela.

II. Da susco etse bat, cein
beti dagoan sutan ta garratan,
bein beré amatau bagaric.

III. Da lecu bat ceinetan i-
cusi bear direan asmadu aldi-
tequezan neke, gogortada sa-
tsacaba eta alie gogomerao

C5

58
eta aserreenac, inos-tá inos
ez guichitu, ez arindu eguiten
ez, tireala.

UFRUTUA.
cutu eguiozu escuaz sua-
ri, edo euki eguizu escuco atz
bat candela eshetu baten ga-
rretan, or, guichieñez Ave-
Mari bat esaten dan bitartean:
eta esan zure artean: emeco
suac, infernucoarèn parean su
usaña bashen eztan su onec,
onelan erretan badau, ;cer e-
guingo dau, bada, infernuco
su benetacoac? ;O adugaisto-
coa beintzat, bere errruz an
erretara datorrena! *Bost A-
ve Maria Ama Virgineari.* 61

**OGUETA BAT GARREN
EGUNA.**

C Infernuco egöten.
Der eguiten da infernuan!

I. Ezagututen da ce gach an-
dia dan becatua, orain ain gui-
chi dāzauguna.

II. Beti ta beti egon bear da
an atera ecinic, baita ondo go-
gor, eta bein beré atera baga-
ric, becatuen zorrac, ceintzuc
orain ain ardura guichi emo-
ten deuscuen.

III. Anchen gorrotetan dira,
éta betico seculaco madarica-
tuten dira becatu-bide guzti-
ac, ceintzuetaric orain alden-
du gura ez garean. ;O zori go-
gorrecoa beintzat an sartcen
dan becataria ! eta ce latz eta
garratz eguigo yacan ango vi-
ci modu aserrea emen narora
ta gozaro bici izan zanari.

FRUTUA.

Alde eguin eguizu becatu-
bideetaric : igues deungaroso

oña emon leiquezuen lagun ,
 yoco , etse , edo beste edocein
 galbideti. Escatu zakioz Yaun-
 goicoari , emen erre , ebagui ,
 edo naien dituzan nekeac era-
 cutsi deikezuzala , guero in-
 fernura bota etzaitkezan. E-
 ta azkenic erregutu eikiezu
 Yaunari , eta Ama Virgineari
 becatu mortalean datzazanac-
 gaiti. *Esaizu Maria Virgi-
 nearen Letañia.*

OGUETA BI GARREN

EGUNA.

Iñoc eztaki salvaduco dan ez.

I. **I**nfernuan egon bear ne-
 ban becatu eguia dodan ezke-
 ro ; eta barriz eztarit nic Ya-
 ungoicoic parcatu deustanez.

II. Ofaindo yausi ninteke
 infernuan , bada barriro yausi

ninteko becatuan: eta eguia e-
sateco, eztakit nic yausico ba-
nas ene burua arri-labandaren
ganean icusita.

III. Arguiro dazaut, ondu
ecic, betico galduco nasana;
bai ta orretaraco eztakit nice-
riotzea haño leen onduco ba-
nas. ¿Cer izango da nigaz, a-
tzerengo orduan, elshacoac
artuta guero, lecu emoten ba-
deutsat gogotasun edo atse-
guin gaistoren bateri? Eta
¿noc esan leit, yausico ez na-
sala, araco artean ain sarri
yausteco lera gaistoa emoten
izan deustan ecanduzco beca-
tuan? ¿Cer izango da guero
nigaz, au yazoten bayat? ¡Ai!
Betico nireac eguin eban.

FRUTUA.

Becatu mortalean bazagoa,

artu eguizu gogo zoli zoli bat,
 confesiño on bat eguiteco. Ceu-
 re aleguin guztiaz galdu eike-
 zu ain sarri yausieraguiten deu-
 tsun izcune char yarraitu ori,
 ceinec bear-bada betico gogor
 tu eta ondatuco zaituzan. *Yo-
 an zaitekez gaur Ama Virgi-
 nearen altara aurrera, eta e-
 saikezuz iru Ave Maria bere
 sortuera garbiaren icenean.*

OGUETA IRU GARREN

EGUNA.

Galduten dirianen pillo andia.

I. **E**rraz da betico galdu-
 tea, cegaitic ece guztiz zaba-
 la da infernuc bidea, eta as-
 co ta asco bereanic dabilta-
 zanac. Alanche diño Yesucris-
 to-c.

II. **G**ach da salbetea, cegai-

tic ece estu bedarra da ceruco
atea, eta guichi baño guichia-
go andi sartuten direana. Cris-
toc berac esana da aushe beré.

III. Munduaren asieraric e-
ta onaco guizonic gueyenac
galdu izan dira, ta santuac ao
batez dirauscue ece, oraingo-
ac beré gueyenac galduteco
direala, gueyenac oker bici
dirielaco. Nic ene burua-gai-
ti ; cer esan nei? ; Ay! ya-
kin ez.

FRUTUA.

Mayan ucutu beré baga-
ric ichi eikezu araco gozoago
eguiten yatzun yaki edo co-
paua. Etzaitkez eldu pocic
eta gozoric gueyen asmetan
dozun lecura, ona izan arren
beré. *Esan eguizuz Aita gu-
rea ti asi ta buruz dakizuzan
oraino batzuec.*

OGUETA LAU GARREN

EGUNA.

Infernutar baten betico leloa.

Y aungoicoac asco ta
lar eguin eban ni cerura eroa-
tearren. ; Ceinbat arimaco on-
dasun ta gracia niberaganatu-
teco ! ; Ceinbat dei gozo , ce-
inbat argui-aldi eder ni ira-
tzartuteco ! ; Ceinbat sacra-
mentu ta osasungarri ni ondu-
teco ta ceruratuteco ! Beti e-
billen bera nondic eta nora ni
irabacico ninduan , bein laz-
tan gozoz , bestean cernai bil-
durrezcoacaz. Berein bider e-
setsi ta ekin eustan deica : ba-
ya nic bein bere erantzun eta
yaramon ez neutsan.

II. Nic ondo erraz cerua i-
rabaci neunkean. ; Ay! ebagui-
izan baneu lenengo barritan a

raco becatuen sustraia ! ; Ay !
 indar tingui bat eguin izan ba-
 neutso nic orduan ene burua-
 zi onduteco ! ; Cintzo iraun ba-
 neu artu neban gogo onean !
 Damu benetaco batec : bere
 bear tzan aldian eguinico con-
 fesiño on batec ; ay ! eroango
 ninduan , eta ondo erraz , ce-
 ru eder gozora.

III. Neuc ñai izan dot in-
 fernu icaragarrizco onetara e-
 torri. Neure guraz , neure gu-
 raz sartu dot nic emen ene bu-
 rua. Bai beintzat , bai : aragui-
 azco atseguin zoro , cikin , be-
 lan yoan tzan bategiati beti
 ta beti erretan eukico nabe la-
 ba gori onetan. Bai : neure
 gura bete betéz , eta beguiac
 zabalic yausi nas ni suzco o-
 shin onetan. Berein bider esan
 eusten confesoreac cer icusi
 bearco neban : berein aldiz a-
 quinduten eustan biotzac ce-

ren beguira nengoan: sarritan
ezagutu neban nic neuc eguia
au: ta ascotan barri char au
biotcera emon eusan Yaungoi-
coaren ontasunac.

FRUTUA.

Esker onac emioizuz Yaun-
goicoari, zuc ainbeste becatu
eguin ezketiño, beste ascori
aleguiña gogortasun eracutsi
ezteutsulaco, eta bear bada,
zu bashen becatu guichiago-
ren yaubeac galduten dituz-
la, ceu infernura bota etzai-
tualaco. Lotsatu eguizu ceure
burua, gogora ecarrita, zuc
orain guiño bicitzea ondutece
biotzean asman, eta echara-
mon eguin deutsezun, Yauna-
ren dei, argui eta biotzketaac.

II. Erregutu eguiozu biotze
biotzeric Yaungoicoari, iya

betico galdu aguinean , edo
 orretaraco bidean dagozanean
 gaiti. *Esaiuz iru Credo Yo-
 sucristo-c curutzean eguin or-
 tuzan iru ordenen icenean.*

**OGUETA BOST - GARREN
 EGUNA.**

Betico galdutea.

Cer da betico galdutea ?

I. Da Yaungoicoa galdutea,
 eta betico galdutea.

II. Da infernuco suan erre-
 tea , eta betico erretan egon
 bearra.

III. Da bapere on bagaric
 damuaren andiz amurratutea
 eta erneguatea ; eta betico a-
 lan egon bear izatea. ; O beti,
 beti ! ; O beti irauñ bearco do-
 zun hekea ! ; Eta ce bildurga-
 ria zaren !

A *FRUTUA.*

Asmadu eikezu gaur celan eta cetara eci ta necatuco dozun zure gorputz gaistoa. Berbaraco, zutunic bazagoz, ez eceri eutsi: belaunico zagozanean, belaun baten egon: lecu ostenduan zagozala, besoac zabaldu: caleti achina bazoaz, beguiac batu-ta yoan: eta beste onelango neca aldi asco, buruac emongo deutzuzanac, nai estarian, zurezean eguiteco, nai aguirian bestec zacusala. *Gaur gabean eguikuzuz miñagaz celaian bost curutze Andra Maria Virginearen icenzan.*

OGUETA - SEI - GARREN**EGUNA.**

Eztala penitencia luzatu bear.

B *Becatu eguia dot? Bada e-*

rabaguiric dāgo niretzat bita-
tic bat , edo infernua edo pe-
nitencia. Baya ni ostera beca-
tura biurtuten nas , eta orre-
gaiti ; epetasun andian ta ba-
ke zabalean bici nas, onduco
nasalacoan ? Baya , eta ; noc
on eguin leidaz iru gauza o-
nec :

I. I ango dodala penitencia
eguiteco erea , ta Yaungoico-
aren gracia eraguillea :

II. Erea izan arren izango
dodala ataraco gogoā ta bo-
rondatea :

III. Penitencia eguin arren,
becatuan barriro yausi ta ,
; betico galduco ez nasala ?

FRUTUA.

Beguiratu eikiezu gaur iru
biderreco alditan ceure escu-
ai , ta esan eiezu bacochean :

70
¡ay bada! esen edér onco egu
nen baten usteldu eta austuco
dira : eta eguin tzaitez ez go
shean goshean aushe esatera.
Oneshegaz ondu eban Aita
Santo Domingo-c andra be
catari andi bat. *Bost pider Ai
ta gurea , Ave Maria ta Glo
ria Aiteari besoac zabalic.*

OGUETA ZAZPI GARREN

EGUNA.

Ceruco gloria.

Neure lenengo ceruco sar
tzaieran ¿cer eracutsico deust
Yaungoicoac ?

I. Zoriontasunezco iturri u
gariac , gachen naste bagaric:
gozotasun , atseguintasun eta
pozcarri bete ederrac , atsaca
ibéen eta nekeen usain бага
ric. ¡ O ce poza enea beintzat

orduan!

II. Zorion' beaetaco oneec
izango dodaz Yesus en, bere
Ama laztanaren, eta Angue-
ru ta cerutar doatsu guztien
laguntzan. ;O ce laguntza go-
zo zorionecoa !

III. Gozotasun eta zorionoe
eukico dodaz neurri betean,
eta gonburu: beti betico: eta
iñosh galduteco bildur baga-
ric. ;O zoriuntasun nen oshin
ondo ta baster baacoa !

FRUTUA.

Nekeagaz edo oker etorria-
gaz nagoanean nire artean e-
gosten ta erraiac yaten; edo
atseguinacaz eta ondo yazo-
nagaz lashaturic, Yaungoico-
aren gauceetan otz epel, esan-
go deutsat ene buruari: ;ce-
rua, cerua! ;Gloria! ;Zorion-
tasun *beticoa*! San Felipe Ne-

72
ri c esan eroian leguez , andi-
tasunen bat opetan eutsenean.
Sinisturic egongo has , ecer
eztireala munduco anditasu-
nac eta zoriontasanac ceru-
coen aldean. Orregaiti esan e-
roian Aita San Inacio-c , eta
ondo : ; *O ce utsa , ce prestueza
ta atsitua eguiten yatan lu-
rra , ceruari beguiratuten deu-
tsadanean ! Aita gurea eta
Creda bat belaunbico , beguiac
cerura eguin da.*

OGUE-TA-ZORZI GARREN EGUNA.

Ceruraco bidea.

Bide bi bashen eztagoz ce-
ruraco : becatu-eza ta peni-
tencia.

I. ; Badirau enegan bateoan
santzi eusten arimaco garbi-

tasun ederrac ? ; Ay ene ! Be-
rein bider galdu izan dot gar-
birasun ori.

II. Eta ; eguin izan dot orren
penitencia ? ; Cer diñor nic pe-
nitencia ? Entzuteac berac larri
-larri eguiten nau. Beri ta beti
ibili izan nas ni penitenciaren
iguesi : beti gogor erechi deu-
tsat nekeric arinenari : beti i-
bilten izan nas pozcarien eta a-
tseguin-garrien billa.

III. Au alan izanic , ; badot
nic ceruraco usteric ? Bai auki.
Baya , eta ; ce bideti ? Arimaco
garbirasuna , galdu izan dot :
penitenciaric eguin nai ezior :
; celan bada ceruratu ? ; O irsu
mendi zoroa enea ! ; O ce gal-
duric noian !

FRUTUA.

Eguizuz cerurantz beguñae
ta biotzi, eta gogoari emoiözu

an dagoala ceure erri maitea,
eta an betico bici zareala,
badarabiltzu orain aitatu direan
bide bieraric bara edo bestea. *Iru
bider Neure Yauna Yesucristo.*

OGUETA BEDERATZIGA- RREN EGUNA.

Cerua irabaztea.

I. **O**ndo guichi escatuten
deust Yaungoico-ac, cerua nic
irabazteco: eztiraust besteric ez-
pada gordetaco bere leguea, le-
gue erraza, legue ecin ohea, le-
gue arina.

II. Onetaraco Yaungoicoac
berac escua emoren deust: be-
rac indartuten ta azcortuten nau.
bere graciagaz, deiacaz, argui-
tasunacaz, eta laguntasunacaz:
haira bere Seme Yesucristo-ren
inocentemtu irabaciacaz.

III. Lan labur onen sari e-
mongo deustaz , beti iraungo
dabeen , zoriontasunac : orain-
go neke atinen sari , betico go-
zotasunac : oraingo bearren a-
loguer , beti betico gloria.

Z FRUTUA.

Zure neke , atsacaba , premi-
ña , gaisho aldi ta osterantzeco
icusi-bear guztietan beti gogo-
ra eikezuz ceruco sari , atseguin
eta gloria miragarriac. Esizuz
iru bider Aita gurea , Ave Ma-
ria ta Gloria Airezri Trinitade
sanfuaren icenean , escaruten
deutsazula , arren irrimen yosi
deizula biotzean ceruco goza-
menen gomutea ta guraari e-
resheguina.

OGUETA AMAR GARREN
EGUNA.

Beti iraun bearra.

up **G**uizon guztia sarra

bear . . . dabe betico izango da-
been etsean. Orretari ; ni bere
sartuco nas ? Bai beintzat , sar-
tuco nas. Eta ; etse au celangoa
izango ete dot ! Nic bicitza o-
netan ene eguite onacazedo cha-
rracaz eguiten dodan moducoa.

II. Deabruac milla asnu ta
labankerigaz putza ta gantza e-
moten deust neure buruari e-
meco atseguin zoroetan , eta be-
catu gauceetan lasa emon da ,
etse au infernuraco eguiteco :
eta nic sarri ta ascotan entzutea
emon daroyot.

III. Yaungoicoac beste alde-
ti diraust , berac daracusdan bici-
-era ona eguinda , neure betico
etse ori ceruraco eguiteco : nic
barriz ezetz , eta eztodala gura.
; Ay ce zoro garbia nasan ori
alan eguitean ! ; O ce itsuric na-
goan !

FRUTUA.

ean zatzazala, zagoz zu-

bil bat leguez gueldi gueldi,
 ordu erdi baten guichienez, e-
 ceri eraguin bagaric, edo bu-
 rua ol-baten ganean dozula: ta
 neke andia eguiten bayatzu, e-
 saizu ceure artean: ; cer izango
 da, bada, betico internuco su-
 garrezco oe icioan egotea? Au-
 she berau esan ciñaike pena gor-
 gor, edo neke garratzeren ba-
 tegaz latti zagonean. *Zazpi Ave-
 Maria Ama Virgineari bere zaz-
 pi doloreen ondraric andieneraco,
 eta beari beré zazpi bider mun-
 eguin.*

OGUE-TA AMAICA-GA- RREN EGUNA.

Conscienciaren itaune erantzuteat.

Ene biotza! erantzun eguit-
 zu arren itaune onci.

; Cetaraco sortu ta imini

ninduan Yaungoicoac mundh o-
netian? Ez beste gauzataraco ez-
pada bera orain serbiduric, guo
ro bera cernan gozetaco.

II. ; Cer eguin deust niri be-
re ontasunac onetaraco? Emon
deustaz arima gorputzeco cen-
tzunac eta arguitasuna : bere
gracia ta laguntasun ederrac , ta
bitarteco ugariac.

III. Eta ; nic ecer eguin dot
neute burua cerura erotearren?
; Ay! Ceru orita ene Eguille
maitea aldapara bota ta, aleguin
guztiac eguin izan dodaz ene
burua infernuan ondatuteco.

FRUTUA

I. **E**guizu aurrengo ileco
confesiño generala , eta icusi ea
ceiobat aurretatu izan dozun
ceruraco bidean, edo ea beatu-
etan gueyago sartu izan bazara.

II. Euki eguizu ceure deun-
 garo eguinen damu andi bat,
 eta artu eguizu gogo eguin-
 ca guina, urrengo ila obeto emo-
 teco: ce bear bada, berau izan-
 go dozu ceure bicitzaco gues-
 roenengoa. Eskiñi zakioz Yaun-
 goicoari zatean guzti ori, ari-
 mea ta gorputza, ceure argui-
 tasun, centzun, indar, berba,
 eguicune, gogo, eta asmu guz-
 taz; eta buruz icasi eguikezu,
 gosh guztietan yaguit-orduan
 esateco, Aita San Inacioc esan
 eroian urrengo oraciño au.

Aror, Yauna, artu eguizu
 nire escuicune guztia: eutsiz ni-
 re adimentua, gomutea eta go-
 go ta borondate guztia. Ceure
 escuetaric dodaz, Yauna, di-
 reanoc: eta ceuri atzera emon
 gura dentsudaz guztia, bapete
 nirezat gorde bagaric: eta ceure
 ceure escu andiaz, nic dakidra
 bashen obeto zaindu, arretu

ta zucenduco deustazuz. Baccaric, Yanna, esketan deustut, sortu deguidazuzala ene biotzean zure gracia, eta zu ganacoz laztansun ta on-erechi ederra: eurocaz beste bagaric nas naico bestean aberatsa: besteric gura eztot, ez bear berc.

EGUN TA EGUICUNE GUSTIETAN gogarte onetarie atera bear dan ona.

Ceure esa eguite guztia zucenduteco eguin bear dozuna da, esetsi ta ekin eikiozu, esanic doazan gogarteen arteco bateri edo bateri, contu eguizu erioztearen ganecoari, yudicio, infernu edo betico iraun bearren ganecuari: eta beti autu ta artu eikezu ceure biotza gueyen biz-

tuco deutsuna, edo cintoago iratzartu ta bildurtuco zaituzana.

Goshean yaguiten tzarean bashen arin, oratu zaiķikioz berari: eta guero ez eikiozu ichi egun guztian: eta ecer eguiten zagozan artean beré, beti aian atan egon zaitekez. Ara celan eguingo dozun ori. Eriotzearen gogartea da, esateraco, zue gaurco artuten dozuna? Bada e docer gauza eguitera zoacenean., gogoari emokiozu: *eta orainche* baneu nic eriozaco ordua; celan gaurco neke au eguic euki? Yudicioaren ganecoa bada ceure egun ataco gogartea, ecer eguiteracoan esan eikezu ceure artean: bada niri berba, gogo, eta eguite guztien contu ceatza escatuco deuste yudicioco egun icaragarrían; eta orainche emen adi yagorat contu ori artuco deustan

4. Yanagicoa. Eta escatu eikiezu

sarri Yaanari, eta Ama Virgi-
neari arren sortu ta sartu dei-
kezuezala ceure biotzean one-
lango gogotasun ederrac.

Ceure eguiteran ceure gogo
guztia izan bear dozu celan e-
guiago dozun Yaungoicoaren
beguetan ondo dana, eta celan
icasico dozun birtuteren baten
ecandu ederra: berbaraco, u-
mil asuna, Yaungoicoaren al-
deraco maitetasuna, beragango
esperantza ta uste bete betea,
gorputz - arimaco garbitasuna,
edo beste onelangoren bat. Eta
guztien artean ardura obeagaz
eta sarriago eguin bear dozuna
da, ondoen datorrena, zure
gorputz okerrari deungueraco
echuntasuna, garramorea eta le-
ra charra galerazoteco: becatu-
bideetarik alderatuteco: eta sus-
traiac ebateco, araco zugar a-
guinte gueyago euki ta gueyeg
azpian zauzczazan izcune y gaisr

toari. Eta ekin gau ta egun be-
in arturico lanari, bapere ichi al-
diric eguin bagaric arlc eta ga-
uz' orren ecandu ona ceugan
gogortu artean.

Eta cearretara ez ece, bait ar-
tecean eta aurreti beré esetsi be-
ar deutsezu izcune ta bezu de-
ungai. Beguira bada cetan gue-
yagotan uts eguin daroazun,
eta ce gauec sarriago yausi era-
guiten deutsun, eta ari zoli es-
tsi eta errime ekin bear deutsa-
zu. Goshereanic artu Yaungoi-
coaren oñetan, egun atan aih
becatutan edo bestean yausi ez-
eiteco gogo cindoac. Onetaraco
guero igues eguin bear dozu
yausi erazoten deutsuen lagun
batzar, bide, lecu, eta ganeco
galgarrietaric, eta becatu orren
contraeo gauzac eguiten inardu.

Báya baldin, orreec guzdoc
eguin da beré, ceure argaltasu-
nez yausien bazara berlan du

mutu alan eguina : eta orregaz
 batera yo ucabillagaz bularra ,
 edo beguiac cerura yaso ta eran-
 tadu , edo beguiac batuta egon :
 edo celayari mun eguin : edo
 oraciñoren batzuc esan : eta lo-
 tsa arren arpeguia yausi yausi
 bekizu , ainbeste berba eder ez-
 kero , ain erraz gaisakeria eza-
 in orretan yausi izan tzarealaco.

Gabean gabean paper baten
 escribiduco dozuz egun ataco
 ceure uts eguinac guztia : alcar
 yo egun bateco utsac bestecoac-
 caz , aste batecoac bestecoacaz ,
 icusteco ceinbat aurreratu edo
 atzeratu izan dozun ceruraco
 bidean. Alan eguin , eta alan
 iracasten eutsen san Inacio ira-
 casle andiac , ondu gura ebeen
 arimai.

ONDO BICITECO

zucan bideac.

Asco ta ascoti bici guztia

yoake gogo utsetan , gauz ' on
 bat inçs eguin bagaric. Oneec
 guero eriotzaco orduan icusico
 dira gurari onez beteric , eta e-
 guite onez utsic : baita barriz
 orduan yoan tzan ondo eguite-
 co aldia. Beguira , bada , ondo
 Iracurle maitea , cein zuri beste
 onenbeste yazo dakizun. Eta
 bada ondutera zaroez , iracurri
 dozuzan gogarteac , eta asi gu-
 ra dozu biciera barri on bat ,
 alan guerta dakizuntzat , eta zu-
 re guraari onac beteteco , emon
 nai deutsudaz orain , urtean , i-
 lean , astean eta egun bacoche-
 an eguin bear dozuzanen adi-
 bide labur batzuc.

URTEAN BEIN EGUIN
bear dana.

Urte bacochean artu eikezu
 egun bat , eta dan dana emen

arimaco lan ardurazcoetan. Egun onetan, urrengoric onaco confesiñoez ostean, barriztadu eikezuz urte ataco confesiño guzriac. Onetaraco, eta osterrantzeraco, artu eikezu confesore aldozun onen onena: beti beragaz eguin: ez urten bere esaneti, eta eguin ceatz berac emoten deusuzan buru onac. Aguertu eikiozu berari artez ceure biotza, eta ceure ecandu era lera deungaac: cé onelan Yaungoicoac beré arguituco dau confesore ori, zu bide arteceti zucen eroateco.

Presta zaitekez yai nagusietaraco barauacaz, limosnacaz, bederatzi-urrenacaz, oraciñoacaz, eta egun ataco misterioa, edo santuen bicitzea iracurteaz.

Emon eikezuz debociñoric andienaz Yesus gozoaren ta bere Ama maitzaren yai egunac, euren, euren altaraac icustera

yoanic, eta ondo confesau co-
mulgauric.

ILEAN BEIN EGUINGO
diranac.

Artu eikezu ile guztiraco san-
turen bat ceure bitarteco: eta
emon santuro bere eguna aldai-
zun ondoena.

Ile onetan artu eikezu egun
bat, eta berean icusi ceure ari-
maco atzera aurterac, galtzaie-
ac edo irabazteac: eta euren ba-
rri emon ceure arimaco aiteari.

Gure Yauna artuco dozu il-
onetan confesoreac aguinturen
deusunean, ta barrizidu eike-
zuz lenagoco propositu eta go-
go onac: eta ezcontzaguea ba-
zara, aushe dozu eratic ederte-
ra erabaguiteco: eta orretaraco
Yaungoicoari escatuco deutzazu
bere arguia, eta itagarri degui-

zula, ea ce estaduc lagunduco deutsun ondoen cerua irabazten: cegaitic-ece Yaunagaz ondo egonic zoliago eta arguiroago entzungo dozu bere deia.

Confesoreari badericho sarri confesau-comulgau bear dozula eguikezu itsu itsuan bere esana; baya gaterazoten deutsunean bere ez musinga ibilli mukerac eracusten.

ASTE BACOCHEAN EGUINGO DOZUNA.

Ondo ondo gorde eikezuz yai-domecaac: ez meza arin bat gaz gueratu: orrez esierantzean santutu bear dozu egun guztia arimaco lanetan emonda. Sermoia entzun, curutzetacoac eguin, : errosarioa esan: parcamenac irabazten direan Eleshara, eta Sacramentu santua

aguirian dagoenera eldu: liburu
santuac iracurri: gaishuac icusi:
onec eta onelangoac dozuz bi-
de ederrac eta modu egokiac
yaiegunac santututeco.

Ez eikezu bein bere yoan ba-
gatic ichi doctrinea esaten dan E-
leshara: eta emen entzuna iraca-
tsi eikezu gau atan ceure umeai
ta oguipcoai, cegaiti-ce ori da
Angueruen eta Apostoluen cer-
eguin ederra.

Ereac aguinduten deutsun e-
gunetan zoaz Eleshara: anche
euki eikezu gogozco oraciño
mental apur bat: Yaungoicoari
erregutu ceure burua gaiti: ce-
ure etsecoac gaiti, eta osteran-
tzecoac - gaiti: eta emon ceure
gorputz gaistoari nekeren bat:
baya onetan eta onelangoetan
ez inos urten arimaco aitac di-
rautsunerico.



90
EGUNEAN EGUNEANGO

eguitecoac.

Y agui zaitekez goshean gosheri, usteletan ocan egon bagaric. Ceure tenengo lana eta ardurea izango da biotza Yaungoicoa-gana ereguitea: berari damu zoliagaz parca escatutea: egun ataco gogo, asmu, gurari, berba, lan ta eguikerac eskintzea, eta bere escua ta laguntasuna escatutea egun á guztia bapere becatu bagaric emoteco: eta ccuc bere ceure aldeti artu bear dozuz gogoac, ceugan dagoana eguiteco, eta araberé ardura obeagaz ibilteco ecanduzco becatueran ez yausteco. Gosheric imini eikezu borondatea egun ataco aldozuzan parcamenac guztia irabazteco. Eskiñi zakioz zartean guztiori Ama Virgineari xeregututu Angue-

ru Gordetzalliarí, ceure iceno-
co Santuari, égun atacoari, eta
bitartecotzat artu - ta dozuzan
Santu-Santai. Ez aztu bere pur-
gatorioco Arima erruki-garriac,
eta sarríro eurarac gairi Yaunari
escatu : bada zuc aecaz eguñen
dozuna, guero zu-gaz berec bes-
teac eguingo dabe.

Emon eikezu ordu laurencho
bat guichienez egunean adimere-
tuzco oraciñoan Ez bein-bere
atseguin mecea : entzun debe-
ciñoz , lotsaz eta icaraz : eta at-
bacendu liburu on baten zago-
zala. Arratsean ceure buruari
contu esua esca zakioz ea ce-
lan eta celan emon izan dozun
eguna : eta celan yoan direan
ceure gogo , berba ta lan guz-
tiac. Onen bat eguin badozu,
dana zor deutzazu Yaungoicoa-
ri, eta bera-gaiti esker onac e-
moikiozuz bere ontasunari : de-
uagatoric eguin izan bozu, ce-

urca da errua, eta emoiñiozu
ceure buruari nekeren bat, era-
zoten deutzazula gueyago ez e-
guiteco berbea.

Arduratic albait andiena imi-
co dozu alde eguiteco becaru
bideetic , celangoac direan la-
gun okerrac , berbataldi loiac ,
ardan - teguiac , ta osteratzeco
ordi-lecuac , yoco larrac , eta
ganeraco galbide deungaac. De-
abru asmutsu citelac , guichien
uste dozun tokian , zabalduco
deutsuz sareac , eta iminco de-
utsuz lakioac eta amuac zu gal-
duteco : eta alan beti beguiac
zabalic ibilli , eta beguira ea ce-
lan zabiltzazan , non sartuten
tzarean , eta nogaz lagunduten
tzarean.

Pirian bein gogoari emoiñio-
zu , Yaungoicoa adi ta beguira
dauczula : eta ceure estura eta
tentaciño aldietan beragana be-
ingoan eguin estatuten deutsa-

zula , arren indartu eta gogor-
 tu zaguizala , becatuan yausi ez
 eiteco. Oneraraco tskeñi eiñio-
 zuz berari ceure cereguin guz-
 tiac , escupeco bearrac , lan na-
 gusiac , yana , loa , ardurac ,
 pozcarriac , ibilerac , eta guerra-
 cunza on guztiac : direarac i-
 zan ditezantzat bere gloriarie
 andieneraco , eta ceure arimear-
 ren oneraco. Gach guztien sus-
 traia alperkeria izan doa : eta
 agaiti ez bein-bere bein bere
 alperrie egon. Azkenez yakin
 bear dozu ece , celangoa dan
 vicitzea , alangoa izan doiala e-
 riorzea ; eta San Bernardo-c di-
 rauscun leguez , vicitzeari da-
 rraico eriorzeac : eta eriorzeari
 andico aldeco betico izateac. *A
 vltia mors , à morte eternitas.*



MEZA ENTZUTECO TE

*Yucristo-ren pasiañoaren gane. o
gogarte ta oraciñoac.*

Ez dau cristiñautasunac me-
cea baño gauza beneragarriago-
ric. Yaungoicoac berac ecin e-
xin emon ta asinau eukean, me-
za santua bashen gauza andia-
goric, eta miragarriagoric. On-
dra gueyago emoten yaco Ya-
ungoicoari meza bacar bategaz,
Angueruac eta guizonac mun-
dua danic ona emon izan deu-
tsena baño.

Meza batec balio dau Yesu-
cristo ren pasiañoac alaguifra, di-
ñño S. Yoan Crisostomo c : cegai-
zi ce , mezaan barriztetan da be-
re pasiaño ta eriotza berbera : be-
rean Yesucristo-c emoten dau
barriro gugairi bere odola : be-
rean Elesha Ama santac Sacer-
doteen escuz biralduten deutso

Yaungoicoari bere Some mai-
tea, bere ontasunac guri ta en-
paraduai eguinico mesceden or-
dez: eta guizon- emacumeen
becatuen zorren alderaco.

Meza emoten dan artean da-
goz ceruac zabalic: dabiliz yo-
an-da etorri gueure escariacaz
Angueruac. Baya; cer diñot?
Yaungoicoa bera yatorcu meza-
ra: cerutar guztien laguntzaan
yazten da Yesucristo, barriro
araguitu ta iltera, diño san A-
gustin-cc. Orregaiti bada ondo
entzunac izan doaz gure escabi-
deac: parcatu yoacuz becatu a-
riac: eransten yacuz Yesucris-
to ren irabaci andi neurribaaco-
ac, eta emon yoakez ondo dan-
tzuenai gorputceraco eta arima-
raco ondasun ugari ecin obeac.

; Ay bada!; Balekie fededu-
nac, cer dan mecea, eta cein-
bat irabazten dan meza bacar-
chu bat entzuteagaz! Eguna ba-

garic egongo lirekez Elesh atee-
tan mecz emollearen beguira :
aztu eguingo lekikie baraustea :
era gosh-guztia emongo tenke
Eleshan , urten bere bagaric.

Bada ; celan gagoz ase guz-
tian meza bat icusten ezto gula ?
Yai domeketan eta yai arinetan
gura ta gurez leguez entzun da-
roagu Eleshac esaten deuscula-
co ; baya eta ; celan orduan bere ?
Nagui-epelic , ganora bagaric ,
erdi lo , albora aldi , barrera , ba-
rriketan , ta gogoa beste lecutan
dogula . ; Au da mez-entzutea ?
Alan egonic ; eguiten aldogu
El.sharen esana ! Olan egoteco
; obe ez guenduke etsean meza
bagaric guelditutea ?
; Cer derichazue , zuec , altara
aurrean auspez belaunico zago-
cen Angueru santuac , gure as-
toheria era loisa galdu oneriz ?
; Ay ! Lurreo Erregue baten au-
rrera moduzoa goac egongo

guintek bez aurki. Yesucristoren yaiotzan itzal obean egotzan astoa ta idia, gu mezatan gagozan baño. ¡O abereac bashen beré abereagoac! ¡O itsumena! ¡O esker gaistoa! Eta ¡ce castigu gogorraren beguira gagozan!

Lar beré eguia da alanche yazoten dala gugaz, eta agaiti urten daroagu mezataric leen bashen otzago ta gaistoa-go: agaiti dacusguz gure errietan ain calte gogorrac: eta ezta kit nic celan Yesucristo-c igues eguiten eztaben gure E-lesheetaric, icusiric gure ezker guetasun gaistoa.

Eta bada ceu cristiñaua zara, aurrerantzean entzun eikezu meza sarriago eta al bait onduen, ceure azkenengo mecea balitzan legueche. Ori al lan eguiteco, ara emen meza arteraco Yesucristo-ren pasi-

E

ñoaren ganeco gogarte ta oraciñoac.

*MEZ - EMOLLEAREN
yantziac ta mez emoteco beste
bear direanac adierazoten dabena.*

Sacerdoteac adierazoten dau Yesucristo!

Escuac mez-aurreti garbituteac, celan Yesus-ec eriotza aurrean bere escu ederracaz garbitu cituzan bere lcasle Apostoluen onac.

Yanciten daben eunezco amituac adierazoten dau Yudeguac Yesucristo ri aurpegua estalduteco imini eutsen zapia.

Albeac Yesus maiteari, zorroari leguez, Herodes en yau-reguian yanci eutsen soñeco zuria.

Manipuluac ta estoleac, es-

cu - idunetati lotuteco ezarri
eutsezan soca gogorrac.

Casulleac Pilatos en etsean
imini eutsen erregue yanci go-
rri barregarria.

Altareac , altara·aurreac e-
ta berean dagoan curutzeac
ulertuten emoten dau Calba-
rio co mendia , eta Cristo il-
tzan curutzea.

Altaraco zamauac eta cor-
poralac , Cristo , obian edo se-
pulturán sartuteco , batu eben
izarea ta icercaria.

Calizac Yesus imini eben o-
bia : patenac obi orren gane-
co artia.

Ostiac Cristo ren gorputza :
ardoac gugaiti ain ugarí emon
eban odola : eta ur tanteac
bere alboric urten eutsan ura.

Mezea asi baño leen esaizu.

Ene Yaungoico maitea, me-
Biblioteca de Navarra

za santu au , eta gaur cristi-
 ñau Elesha guztietan emongo
 direanac, eskeñiten deutsudaz,
 ceure , eta ceure Seme Yesu-
 cristo-ren gloriaric andinera-
 co : bere Ama laztanaren eta
 cerutar guztien ondraraco, E-
 lesha Ama Santuaren ta bere
 Seme fededun guztien onera-
 co ; ene becatuen ta gaistake-
 rien eta ene erruz besteac e-
 guinicoen zorren alderaco : e-
 ta mundua danic eta onera
 guizon - emacume guztiac e-
 guin izan dituezanen orderaco.

Opetan deutsut purgatorio-
 co arima santuen oneraco :
 guztiz bere munduan neure
 guraso , aide , onguilla , eza-
 gun ta adiskide izan cireane-
 neraco.

Eskeñiten deutsut il-aguine-
 an becatu mortalean , conde-
 netaco unean, gaishoric eta es-
 turaren baten dagozanen one-

raco. Erege, Yudegu ta fede-
baacoac arguitu ta cristiñautu
daguizuzan, eta eriotzaco or-
du larrian ceure Semearen
gorputza ez deireguzun, ceia
icusi ez arren, sinistuten do-
gun orainche emen meza one-
tan aurkituco dala gu yanari-
tu, indartu, aberastu ta zori-
onduteco orain graziaz, eta
guero gloriaz. Amen.

MEZA ARTECO GOGARTEAC.

*Sacerdotea sacristiaric eta al-
taraco urteeran begultandu be-
ar yacu Yesucristo Yesemani-
co ortura bidean.*

ESAIZU.

¡ **O** Yesus maitea ! Yesema-
ni co ortura, pasiño garratza-
ri asiera emoteco eguin cen-
duan bidealdia gaiti : eta ber-

tan guero errudun gaisto bat
leguez socaz ta cateaz loturic
igaro cenduan lotsaaria gaiti,
escatuten deutsut arren zu-
cendu daizuzala ene oñac, o-
ker bideetara yoan ez ditezan-
zat, orregaz artez ibiliric lu-
rrean eldu nadintzat ceu ce-
ruan icustera. Amen.

CONFESIÑO A.

*Sacerdoteac macurturic adie-
razoten dau Yesucristo auspez
ecbunic Yesemani - co ortuan,
gugañti bere Aita beticoari e-
guin eutsan erregua.*

ESAIZU.

Yesus ene arimearen eros-
lea! Ez arren aztu Yesemanico
ortuan nigaiti icusi bear izan
cenduan bildur larri, ilunta-
sun estuera, bacartason ta go-

gortada eskergaac : nigaiti e-
 guin cenduzan erregu ta es-
 caari samurrac : eta nire be-
 catuen gomuteac lurra busti-
 guñocoan botarazo eutsuzan
 odol tantaac. Yosi eguidazu,
 arren, biotzean becatuen bil-
 dur gorrotozco bat : indazuz
 negar - corrontaac, ene beca-
 tuen loi atsituac garbietaco,
 eta lagun eguidazu ene erio-
 tzaco larri-unetan. Amen. *E-
 saizu Ni becatari au &.*

*Mez emolleac Altaran mun e-
 guitea da adietan emoteco Yu-
 das-ec Cristo ri emon eutsan
 musu ta apa guzurrezcoa.*

ESAIZU.

O Angueruen espillu ede-
 rra! Ceure arpegui sotilean Yu-
 das dollorraren aoti bake an-
 dian artu cenduan guzurrezco

E 4

mozu ta laztan lotsagarria-
gaiti escatuten deutsut, arren
gura eztakizula nic nire beca-
tuz zu lotsatutea: ez zure gor-
putza becatu mortalean artu-
tea. Amen.

INTRITUA.

*Sacerdotea introitua iracurten
yoateac esan gura dau, celan
eroan ebeen cristo lotsaari an-
diaz esturic Anas ta Caifas-
en aurrerra.*

ESAIZU.

O bildots bigun errubaga-
coa! Zuc icusi cenduan lotsaa-
ri ta neke adia-gaiti, araco so-
caz esturic eta cateaz loturic
eroan cinduezanean, erregu-
tuten deutsut arren bada urra-
tu deidazuzala arimaco catea
gogor astunac: ta yosi nagui-

zula errime pisho ceure amo-
re ta bildur santuaz , igues e-
guin ez daguidantzat becatu-
bidera. Amen.

KIRIELEISON - AC.

*Ulertu eraguiten dabe anchi-
naco Santuen Salbatzallearen
mundura etorrerea . gaiti . co
deiac : Yaungoicoaren becata-
riagaz co ontasun andia : eta
oneec escatu bear deutsen
parcaciñoa.*

Y ESAIZU.
aua , errukia nigaz : Cris-
to , errukia nigaz , ta becatari
guztiacaz. Damu dot Yauna
biotz guztiric zu ofendidu iza-
na. ; O ontasun neurribaacoa !
Indazu, Yauna , damu beneta-
co bat , negarre / garbietaco ,
ceure odolaz erosi cenduan e-
ne arimea.

E 5

GLORIA - C.

*Adierazoten deuscu Angueru-
ac Yesucristo·ri cantadu eu-
tsena , gugaiti guizon
eguintzalaco.*

ESAIZU.

O Yaun andia ! Eta ce
maite dozuzan guizonac bada
eúzanic zu ondasun guztien
yaubea , euracati yno cinean
abel etse edo corta zantar ba-
ten : etzan estramiña baten :
eta egon lasto ta abere artean.
Ushatu eguizu arren ene bio-
tzeric andigurea , buru - ere-
chia , ta arrokeria , ta lurreco
ondasun uts guzurrezcoen e-
garría , cantadu diikedantzat
guero ceruan Angueruacaz
nastean gloria , bakea , bendi-
ciñoa ta betico pozcaria. A-
men.

DOMINUS VOBIS

CUN - EC.

*Esan gura dau celan Cristo-
guizonacaz berba eguiten eban:
celan laztanduten cituzan beca-
tariric andienac, eta célan S.
Pedro-ri begui errukizcoacaz
beguiratu eutsan, onec be-
ra ucatu ebanean.*

ESAIZU.

Eguizuz, Yauna, guganantz
ceure begui errukitsuoc, za-
baldu eguizuz ceure besoac gu
becatarioc laztanduteco: izan
zaitez gure erruki argaltasu-
nez gaistakeriaren baten yaus-
ten bagara: enda yagola ta
artzain ardurazcoac leguez es-
talpetu ta zaindu gaizuz ceure
egapean, otso infenutarrac
yan ez gaizantzatzat. Amen.

E 6

EPISTOLEA - C

*Adierazoten dau Yesucristo-c
emon euscun legue barria, ta
san Yoan Bautistaren
sermoiac.*

ESAIZU.

Ceinbat, Yauna, zor ez
deutsut fede santuagaz argui-
tu nozulaco? ; Ceinbat, cris-
tiñau artean sortu ta aci no-
zulaco? ; O eta ceinbat ichi
izan dozuzan ondaturic fede-
baguetasuneco iluntza icara-
garrian! Iraun eraguidazu a-
rren eriotzara guiño fede san-
tu onetan: gorderic Aposto-
luac eracutsi eusten leguea, e-
ta Doneane Bautistac predica-
du eustan penitencia ta negar-
bidea igon daikedan nosbait
ceru ederrera. Amen.

EVANGELIO A-C.

*Ulertarazoten dau Yesucristo-
ren predicaldia.*

Y ESAIZU.

i **Y**esus eguzki ederra ! bi-
otz guztiric escatuten deutsut,
indartu ta gogortu daizuzala
fedean fededunac: arguitu ain-
baacoac, ezagutu daguintzat
guztiac ceure leguea, icen ta
izate miragarria. Ez beitekez,
Yauna, galdu ceure odolaz e-
rosirico arimaac. Nic beinda-
nic bein bete-betea sinistu-
ten dodaz Ebangelioac eta E-
lesha Ama santuac iracasten
deusteezan eguia ta sinisguei
guztiac. Ez, arren, Yauna, e-
ne arimeari ucatu dotrina ar-
gui ta yanari bear bear oneec:
eta lagun zakidaz gorde ta ya-
goteco ebangelioan ichi ceus-
cuzan adi bide artezac. Amen.

CREDOA C.

Daracus fedeco sinisgueias.

S *ESAIZU.*
 Sinistuten dodaz, Yauna,
 Credoan sartuten direan eguia
 guztia: eta gura neuke mun-
 duco guztia sinistuco balitu-
 ez. Sinistuten dot Yaungoico,
 iru persona banatan bat da-
 nagan. Sinistuten dot Yesucris-
 to-gan: cein yaio zan Ama
 Virginea ganic: ta iltzan be-
 catariac salbetearren. Sinistu-
 ten dot Elesha santuagan: eta
 siniste bete betea emoten deu-
 tset zuc berari aguertu deuta-
 zuzan eguia guztiai. Sinismen
 onetan bici ta il gura dot: be-
 rac daracusdan erara biciteco
 gogoac artzen dodaz, eta e-
 menche nago bicitzea galdu-
 teco bear bada, orren alde e-
 guitearren. *Esaiizu Credo.*

OFERTORIO AC.

*Adierazoten dau celan Yesu-
cristo c gogo gogoric bere bu-
rua eriotzara opetzi izan e-
ban: ta orren gomutaan eski-
niten dituz mez emolleac ogui-
ardaoac bere icenean, baita
fededun guztienean.*

E S A I Z U.

;**A**ita Yaungoico cerucoa!
zure Seme maitearen sacrifi-
cio balio andico au eskintzen
deutsut mez emolleagaz bate-
ra, zure gloriaric andienera-
co: nic eta mundu guztiac zor
deutsugunari erantzuteco; guz-
tiz beré gueure becatuen zo-
rren alderaco, eta purgatorio-
co neke artean datzazan Ari-
ma errucarren oneraco. ; O
noc leukezan bere escuan bes-
te guztien biotzac, danacaz

meza santu au ceuri eskiniteco!
 Beguira, Yauna, begui gozoa-
 caz ceure Semeac icusi eban
 eriotzeari: aztu eguizuz gure
 becatuac: eta galdu ez beite-
 kez ainbeste costa izan cirea-
 nac. Amen.

*OSTIATA CALIZA ES-
 KINITEAC.*

*Eracusten deuscu celan Yesu-
 criso c bere Aiteari eskini zu-
 tsazan bere pasiñoco azote,
 coroi, lotsari ta gogortadaac.*

ESAIZU.

O Aita beticoa! Beguira e-
 guiozu ceure Seme maite bost
 milla azotez ebaguiari, arantza
 zorrotzez coroatuari, iraunez,
 barrez eta otsez dandarrez ba-
 rregarri erabiliari. Berau, Ya-
 una, opa deutsut nire ta mun-

duco guztien becatuen zorren
alderaco. Emoidazu arren es-
cua bakean eta onean eroate-
co negarrezco erberte oneta-
co nekeac, iraunaac, alac eta
guishotasunac, bici izanic o-
rain ceure Semearen antzera,
igon daidantzar guero here
betico laguntza gozora. Amen.

ESCUAC GARBIETEAC.

*Gomutarazoten dau celan Pila-
tos ec, adietan emoteco Cris-
to ren erru eza, escuac garbi-
tu cituzan: baita beré cé bi-
otz garbiaz eldu bear garean
Yauna artutera goacenean.*

ESAIZU.

Garbitu eguidazuz, Yauna,
ene arimaco orban loi atsitu-
ac: osatu zauri ustelac: eta
edertu **n**aguizu graciazco a-

painduracaz , eta zure alboti
urten eutsuezan odol uracaz ;
alan arimea garbi garbi egui-
nic , izateco ceure yar lecu e-
der ta bici - toki gozo beticoa.
Amen.

ORATE . FRATES . EC

*Gogora ecarri bear deuscu ce-
lan Pilatos-ec atera eban guz-
tien aurrera eracusten Yesu-
cristo , soñeco gorri zar barre-
garrizco butegaz. Eta mez e-
molleac escatuten deuscu lagun-
du dayogula , meceac dirauan
artean , gueure escaari ta
oraciñoacaz.*

ESAIZU.

Eske gagotzuz , Yauna , e-
der erechi ta abegui ona eguin
daguiozula , mez emolle onec
emoten dagoan meza ta sacri-

ficio adoragarri oneri, ondo
entzunac izateco bere escari-
ac gureacaz batera, zure glo-
riaric andieneraco, eta Elesha
ta Elesh seme guztien onera-
co. Amen.

FREFACIOA C.

*Esan gura dau celan Yesucris-
to ri iracurri eutsen eriotzaco
sentencia gogorra.*

ESAIZU.

O bildots errubaacoa! ; **O**
bicien ta ilen yueza! eta bada
ni infernuco eriotza icaraga-
rriric atera guraric egon nai
izan cenduan yuezaren aurre-
an, errudun gaisto oker bat
leguez, socaz esturic, azotez
ebaguiric eta belarrondoco es-
kergueacaz lotsaturic entzu-
ten cenduala bake bakean eta
mistic bere eguin bagaric nic

bear neukean eriotzaco sen-
tencia: arren, Yauna, atera
naguizu ene becatuai zor ya-
ken infernuco betico eriotza-
ric, Amen.

SANTUS-EC.

*Gomutarazoten deuscuz Yesu-
cristo-ri Angueruac ta Linbo-
co Guraso santuac, eldu zala-
co euren zorionen aldia, esan
eutsezan canta soñu gozoac: ta
Yerusalen era sartzaieran U-
ri ataco ascoc esan eutseezan
alabantza ta pozcariac.*

ESAIZU.

Angueruacaz ta Santuacaz
bat eguinic, nic beré esango
dot: Santua, alabadua, bedein-
catua ta miragarria da gueure
Yaungoicoa andia. Cerutarrac,
guizonac, egaztiac ta gauza
guztiac bedeinca zaguiezala,

Yaun andia , gauza guztien
 yaubea , cêru lurren eguillea
 eta irauntzallea. Onetaraco,
 Yauna, opa deutsut meza san-
 tu au , cristiñau Elesha guz-
 tietan emongo direanac eta
 mundua danic ona Angueruac
 eta guizonac opa izan deutsue-
 zan alabantza guztiac: eta eu-
 racaz nastean eskiñiten deu-
 tsudaz ene biotza ta miña cein-
 tzuc onic aurrera eztabeen ya-
 kingo besteric espada ceure a-
 labantzaac eta mirariac can-
 tetan.

IRUTASUN SANTUA-
ren ondraric andieneraco u-
rrengo alabantzea esaten dan
bacochean irabaxten dira oguei
milla egun ta gueyagoco par-
camenac , batera yota amalau-
garren Clemente Aita Santu
zanic , eta Obispo Yaun ascos
emon izan dituezanac : ilean

*bein barriz , parcamen osoa
confesau comulgauric.*

Santua , Santua , Santua ,
Egercituen Yaungoico altua.
Cerua ta lurra dagoz
Beteric zure gloria gozoz.
Gloria Aiteari, Gloria Semeari,
Gloria Espiritu Santuari:
Leen leguez izan bedi
Orain , guero ta beti. Amen.

*Ostean Aita gurea ta Ave
-Maria Aita Santuac eracus-
ten dituzan gauzacaiti.*

**OSTIA GORA DOYA-
N E A N.**

*Adierazoten yacu ce'an eregui
ebeen curutzean Yesucristo.*

Adoretan zaitudaz , Yesus
ene Yauna , ostia santu orre-
tan : adoretan dot fede biciaz
eta itzalic andienaz gorputz

eder ori, curutzean gugañti es-
kiñi zana, eta barrero altara
orren ganean eskintzen dana.
Ceure Ama maiteaç, Angueru
ta Santu guztiac bedeinca za-
guiezala beti ta beti. Bete be-
tean sinistuten dot, zu, ene
Salbatzallea benetan orche za-
gozala. Damu dot ceu ofendi-
du izana. Zure escuetan imin-
ten nas nasan guzti au. Zu za-
ra, ta zu izango zara nire gau-
zaric maiteena ta laztanena.
Errukia, Yauna, enegaz, ta
becatari guztiacaz.

*CALIZAGORA EGUI-
TEAN.*

*Gogora eguin bear doguz Ye-
sus gozoac gu garbietaco emon
cituzan odolezco iturri
ngariac.*

ESAIZU.

A doretan zaitudaz, ene Ye-

sus laztanaren odol baliotsua,
 curutzean emon gure onereco,
 arimaac erosteco, becatariac
 onduteco, ta guztiac ceruratu
 tazorioneco eguiteco. Bete-be-
 tean sinistuten dot zu or tza-
 gozala. Odol balio andico o-
 negan daucadaz nic nire uste
 guztiac, eta nago ece, bere bi-
 tartez garbituco yatazala, be-
 catuac arimaan ichi deustasan
 loiac. Errukia, Yauna nigaz.
 Zu zara ene odola eta ene
 gauza guztien ganetico gaucea.
 ¡O odol estimagarria beintzat!

SAGARA OSTEAN

¡**O** ene Yaungoicoa! Aror
 altara orretan zure Seme go-
 zoa. Berau, Yauna, ceuri atze-
 ra emon eta eskiñiten deustut
 Elesha santuaren eta bere se-
 me guztien icenean. Berau da

ostia garbia , ostia santua , ostia
 miragarria. Berau da asco gure
 arimaac zurituteco , gure zorrac
 aterateco , eta ceure escu pres-
 turic arturic doguzan mesede
 neurribaacoac ordeaztu ta ki-
 tututeco. Beguira bada , Aita
 errukiorra , ceure biotzeco Se-
 me maite oneri : eta gugaiti i-
 cusi eban bicitza necatu ta e-
 riotza itzal gogorrari.

*SACERDOTEAC: gueldi guel-
 di dagoala Yaungoicoari ilac gai-
 ti eguiten deutsan escaariac go-
 gora dacargu Cristo-c curutzean
 bere arerioac gaiti Aitari eguin
 eutsan escabide samurra.*

ESAIZU.

Y aun errukiorra ! parkesca
 nagotzu neure gaiskilla ta are-
 rio guztientzat : eske nagotzu
 izan zaitezala purgatorioo A-

F

rima santuen erruki. Euren on-
neraco eskintzen deutsut ceure
Semeac curutzean igaro eban
guzria : gugaiti eguin eutsuzan
escabideac ; eta meza onetan
sartuten direan miraari ta on-
dasun ederrac.

*NOBIS QUOQUE PECATORI-
BUS-EC.*

*Gomutarazoten deuscu Lapur on-
naren garbai eguiazcoa, eta izan
eban becatuen parcacino osoa.*

ESAIZU.

Eta bada, Yauna, parcatu
ceuntsan ceure alboan curutze-
an il tzan Lapur damutuari, ta
beste becatari andi ascori, nic
bere uste dot bete-betean ece,
beste onen-beste eguingo do-
zula nigaz, neure deungaro e-
guinen damu benetacoagaz ceu

•gana banator : eta ari leguez
 lagunduco deustazula eriotzaco
 ordu larrian. Orain-ganic, Yau-
 na, orain-ganic onduten asi gu-
 ra dot. Damu dot ceu ofendi-
 dua. ; O neure bician becuric
 eguin izan ezpaneu ! ; O urtu
 albaneguz ene beguetaco ne-
 garracaz leen eguinac ! Errukia,
 Yauna , errukia nigaz.

PATER NOSTER RAC EDO
. AITA GUREAC.

*Adierazoten dituz Cristo c cu-
 rutzean esan citucituzan zazpi
 berba mirariz beteac.*

*Esaiuz zuc bcré mez emolle-
 agaz batera Aita gurea co zazpi
 escaariac , escatuten dozula ceure
 buruagaiti, eta ceure arerioacaiti.*

*OSTIA ZATITUTEAC esan
 npi dau celan ebagui ta birrindu
 entseezan Yesucristo - ri aragui
 guztiac , bururic eta beatzetara
 atal osoric ichi bagaric.*

CALIZEAN EZARTEN
DAN OSTIA CHATALCHU-
AC, ulertarazoten deuscu Ye-
 sucristo ren Linbora yatsi-erea,
 bertaco Guraso santuac zoriun-
 datera.

PAX DOMINI-C berac egui-
 nico Yaungoico aserreagaz gui-
 zonen arteco bakeac.

AGNUS DEI-C.

Daracuscu celan becatari asco
 yatsi cirean Calbario-ric, beca-
 tuen damuarren negarrez, bu-
 larrac ucabillagaz apurtu bear
 situezala. Eurac leguez guc beré
 eguin bear dogu.

ESAIZU IRU BIDER.

Yaungoicoaren bildotsa
 munduco becatuac kentzen do-
 zuzana errukia gugaz.

Guero. ¡Yauhgoicoaren Seme maitea! ez, arren, gure beca-tuai beguiratu, ta bai ceure on-tasun andiari. Galduac gara be-tico, gure gaistakeriac zuc az-tu-ezic. Gogora eguizuz gure asco gureac eracutsi eutsuzan bicitza ta eriotza garratzac: gor-de gaizuz ondamendi ta gal-bideetaric: eta gorputz arimaco gach ta guertaera charretaric. Baketu ta adiskidetu gaizuz zu-re Aita aserratuagaz. Bai arren, bildots errubaguea eta Yaun e-rrukiorra.

*DOMINE NON SUM DIG-
NUS-EAN ESAIZU.*

Yauna, ez nas ni duiña, zu nire etsean sartuteco: baya ber-bachu bat esaizu, ta garbituco da nire arimea.

*Iru bider esango dozu au: ta
enki eguizu guraari bici eresbe-*

guin bat, Cristo ren gorputza
 ceure biotzean artuteco; ceinere
 derichon arimeazco comunihoa:
 baya orretaraco arimea garbi i-
 zan bear dozu, becatu mortal
 bagaric.

COMUNIOAC.

Esan gura deuscu, celan Cristo-
 ren gorputz ita obian sartu ebeen.

ESAIZU.

Erdu Yauna, ene biotzera,
 eta eguin tzaitez ene yabe oso
 osoa. Aberastuta edertu egui-
 dazu arimea, zu lango Yaun an-
 dia beardan leguez nigan sartu-
 teco. ; O Yauna ! ; nor tzara zu,
 ta nor nas ni ? ; O noc leukean
 ceure Amaren garbitasuna ba-
 rruan zuri ostatu emoteco! Baa-
 zaut, Yauna mire ecerbere eza:
 baacus e-nasala ezpada lurreco

artzantar, billau gauza-ez bat :
 baya orregaiti bere ceugan da-
 goz ondasun guztiac, eta alan
 aberastu naguizu ceruco onda-
 sunez. Ceuretu naguizu, ceu-
 rea guzti au izan nadintzat : zu
 beti lurrean nigaz egonic, ce-
 ruan beti gozetaco. Amea.

*MISALA bateric bestera iga-
 roteac esan gura dau, munduaren
 azkenean gure fede santura ira-
 goco direala Tudegu, Erege, ta
 fedebaaco guztiac.*

DOMINUS VOBISCUN-EC
*Yesucristo biztu ezkerre agueritu
 ekiela bere Amari, Apostolu ta
 Andra santai.*

**GUEROENENGO ORACI-
 ÑOAC** adierazoten dabe, bere
*Icasleai eta Sacerdoteai emon ru-
 tsen becatuac parketaco, ta fedea
 mundu guztian zabalduateco, es-
 cu' bidea.*

AZQUENENGO BEDERIN-

*CACIÑO AC Cristo-ren ceruetara
igoerea: Espiritu Santuaren e-
torrerea, eta Yudicioco egunean
onai ezarrico deutsen bendeciñoa.*

OSTERENGO EVANGELIO AC.

*Uler tarazoten dau, celan igone
cerura Yesucristoc, asi cirean
Apostoluac munduco baster guz-
tietan Evangelio santuco eguiac
zabal duten.*

ESAIZU.

Ceruetaco Aita maitea, Ya-
ungoico bacarra, gauza guz-
tien eguillea! nic becatari andi
onec-Elesha Ama santagaz ba-
tera opa deutsut meza santu o-
netan eskini yartzun sacrificio
beneragarri au. Berean barriz-
tadu dira ceure Seme biotceco-
aren bicitza, pasiño ta erio-

tzea. Beguira , Yauna, meza o-
netan eguin danari : eta entzun
eguzuz berean , ceure Seme
maiteac , entzulaac ta Elesha
guztiac , eguin deutsuezan es-
cariac , gure becatuen zorren
alderaco , eta purgatorioco A-
rimeen oneraco. Ondu eguzuz
becatariac : arguitu fede-baaco-
ac : indartu fedean cristiñauac:
zaindu Elesha : eta ez eiguzu
ucatu eriotzaco orduan zure Se-
mearen gorputza : igoteco gue-
ro bera icustera ceruco gloriara,
Amen.

ONDO CONFESETACO ETA
COMULGUETACO ORACIÑOAC.

Ezta ain erraz cein da asco
uste dabeen , confesiño on bat e-
guita. Ezta itoan eguin bear
dan cereguina : leonagoti preste-
taco aleguinac eguin da beré , asco.

dago eereguinic, Yaungoiso aserratuagaz bakeac eguiteco, ceinen aurrean gure contra deadarrez dagozan gure becatuac, eta eske ta eske, gu infernuco ondarrretara botetaco.

Gauza ascoc lagundu bear de-
utse ondo eguingo dan confesiño-
ari: baia bearrenac dira bost.
1.^a Esamina concienciacoa. 2.^a
Pecatu mortal eguinen damu be-
netacoa. 3.^a Aurrerantzean gue-
yago ez eguiteco gogo zolia. 4.^a
Becatu mortal guxtiac, bachu be-
ré ostu bagaric, artex confesiñoan
aguertutea. 5.^a Confesoreac a-
guindurico penitencia ceero egui-
tea.

ESAMINA AURREAN ESAIZU.

O Yaun errukiorra! ara e-
men zure aurrean becataric
galduena. Lotsaren andiz nago
aurpeguia yausi yausi eguin-da,

beguiac gora ceu-gana eguiteco
 biotzic ozta daucadala: Argui-
 tu eguidazuz, arren, ene ari-
 maco begui ilun itsutuoc., ene
 biotzeco baster ezcutuac ara-
 catuteco: ene becaru asco eta
 andi tzarrac billatuteco: ene a-
 rimaco ezaintasun icaragarria ar-
 guiro arguiro icusteco: eta ar-
 tez ezagututeco ene buruaren
 orain arteco calte gogorrac.

Aguertu eguidazuz, Yauna,
 ene biotzeco ocollu ta ostende-
 ra guztia, guelditu eztenditzat
 becauren bat ez bat ezcutuan
 icutzagaric: eta lagundu egui-
 dazuz ondo eguiten conciencia-
 co esaminea: cegaiti ce sor-gor,
 ya-kin-ez bat nas ni, eta ceu
 bagaric ecin gogora ecarri neiz
 becatu guztia.

Yaungoicoaren Ama maitea,
 Angueru Gordetzallea ta ceru-
 tar guztia lagundu ta biztu
 naguizue, aurkituteco neure a-

rimaan dodazan gaistakeria , o-
kerr-eguite eta becatu guztiac:
presta nadintzat ondo confese-
raco , ta Yauna-gazco benetaco
bakeá , ta neure becatuen par-
caciñoa izateco. Amen.

*Esaizu guero ascotan biotz
biotzeric acto contriciñoa , edo
Neure Yauna Yesucristo.*

**ESAMINEA EGUITECO
BIDE ERRAZA TA LABURRA.**

**LENENGO AGUINDUA-
REN GANEAN.**

Beguirá celan eguin cenduan
leengo confesiñoa , edo leena-
gocoac : lotsaz , bildurrez edo
aztuzaz becatu-ric ichi bacen-
duan : zan baño guichiago edo
ederrago esan bacenduan : da-
muric edo onduteco gogo cin-
doric ezpaceroian ; edo beste
aldetati confesiño edo comu-

niño okerric eguin bacenduan.

Beguiria ea confesoreac aguin-
durico penitenciac eguin baga-
ric badaucazuz, edo luzaro ceu-
re naguiz atzeratuta erabili izan
badozuz: edo berac atzera yau-
beari biurtuteco esan eutsun
gauzaric, ainbagaric badauca-
zu: ea eldu izan bazara berac
eragotzirico etse, lagun arte,
yolas, beguiria, fiesta eta orre-
etara, edo berba eguin badozu,
ez eguiteco esan eutsun lagu-
nagaz.

Fedea galdu izan badozu,
ecer sinistuten dozula Eklesia
Ama sant ac eracusten dabe-
naren contra: edo egon izan
bazara ceure artean alan badira
ezpadira atzeratuteco aleguinic
eguin bagaric.

Iracutsi edo esan izan badozu
yakinen ganera, becatu dana
eztala, edo eztan baidala: edo
eztagoala ceruric edo infernu-

ric : edo gure arimea eztala be-
tico iraun bearra : edo Yaun-
goicoac eztakiala cer darabilen ,
edo gauzaac oker darabiltzaza-
la , edo obeto erabili leikezala.

Ea bear dan dotrinatic ba-
dakizu , edo yakiteco aleguinic
eguiten badozu.

Uste izan badozu , beti de-
ungaro bici izan-da beré , orre-
gaiti eruzaco bazareala : edo
bestera , ain becatari andi tzarra
zareala ece , zuretzat ecin ce-
ruric ecetara beré izan leiteke-
an : edo eztagoala ceure escuan
salbetea Yaungoicoaren gracia
lagun dozula beré.

Yaungoicoa-gana biurtutea
eriotzaco ordura artean luzatu-
teco gogoric izan badozu.

Izan badozu Yaungoicoaren
gorrotoric gaishopean , edo ar-
tuchu ta necatu zaucazalaco.

Emon badeutsazu ceure bu-
ruari becatu eguinaren edo e-

guingo dozunaren laudoa eta gorantzea.

Betean emon izan badeutsezu siniste . . . sorguinkeria gauzai, edo aztuen asmu, ipuin ta gurrarai, edo zure ames zoroai, ta onelango bideric eztaoen etorkizun, erremedio ta zorakeriai.

Irri ta barre-gauzaric Yaungoico ta Santuac-gaiti esan, edo euren contraco biraoric edo buroric eguin izan badozu.

Promesen bat bein aguindu ezkerro eguin-tzagaric, edo luzaro atzeraturic badarabiltzu.

Eleshan ecer ostu, edo adiskide deungueari berba labanac edo nasaiac esan, edo siñu, irri-barre, edo beste zorakeriaren bat eguin, edo beste aldetara, dan leguez dala, gauza charric eguin izan badozu.

Fede, esperantza ta caridadeco eguintzaac bere aldietan eguiten izan ezbadozuz.

BIGARREN AGUINDUA-
REN GANEAN.

Beguiria ea eguin izan do-
zunez guzurraren ganeco yura-
menturic : bada guzur chikia ta
chanchazcoa dala beré , beti
da pecatu mortala.

Eguin izan dozunez alan da-
lacoan ezalacoan , gaucea artez
yakín bagaric : edo besteren e-
sanaren ganera zuc icusia le-
guez emon izan dozunez : ce o-
nec beré becatu mortala dira.

Okerren bat iñori etorri izan
yaconez zure guzurrazco yura-
mentuti , edo zuc besteari era-
guinei.

Gachen bat ceure buruari e-
do besteri eguiteco yuramentu-
ric eguin dozunez ; edo osteran-
tzean becatu mortala dan gau-
cea eguitecoa.

Emon deutzazunez iñori gu-

zurrezco yuramentu eguiteco
bidea, edo beinic bein berac
ondo yakin ecean, alan tzala-
coa emotecoan imini cenduanez

Esan izan dozunez biraoac e-
ta arrenac: izan direanez gachez-
coac eta noribait oratuco yaca-
zanac, eta ceinbat izan direan.

Inoren gach-baaco biraoac i-
zan arren, becatu mortala eguin
izango dozu, ceuc aintzat us-
tean esan badozuz, eta confe-
sau bear dozuz. Eta dana dala
beti da izcune oferra chatean
pitean gatz bagaric birao unica
ibiltecoa, eta aztutera aleguinac
eguin bear dira.

IRUGARREN AGUINDUA REN GANEAN.

Beguiria yai - domeketan
meza osoa beti ta ondo entzun
izan badozu: mecea uts egui-
teco bidean ceure burua imini

izan badozu : iñor besteric ceure erruz entzun bagaric gueratu izan bada.

Ea mezatan ceure guraz egon izan bazara gogoa beste lecutan dozula : edo berbaz , lo , albo-ra baguira , besteai galarazoten.

Premiña andia bagaric bearric zuc eguin , edo besteri eraguin badeutsazu , nai dala doan , nai alogueretz edo sariz : nai ez-tarian , nai aguirian , bada guztietara da becatu.

Barau-zaro egunetan , barau eguin bearric , galdu eguin badozu : edo oneetan ta baricuetan , ta beste egun debecauetan legue eztan leguez coipea yan badozu , edo arraña ta okela gaucea yat ordu baten : edo zuc ez arren , norbaiteri yan eraguin badeutsazu.

Garizumaan bulda bagaric arrautzac , gaztaia , edo esne gauzaren bat yan badozu.

Amarren-primiciac artez e-
 guin ezpadozuz: amarrenari cha-
 charrena edo adinona, zuretzat
 onena gorde-ta emon badeutsa-
 zu: acitacoa, edo lubarriena a-
 tzeratu badeutsazu: edo amar
 zuretzat eta amaica-garrena a-
 marrenari emon badeutsazu: ba-
 da, amarrenaren icenac berac
 diñoan leguez, artuten danen
 amarretic bat zor yaco Yaun-
 goicoaren: Eleshari.

LAUGARREN AGUIN- DUAREN GANEAN.

Beguirá gurasoai, ugazabai,
 edo nagusiagoai euren lotsea
 edo zor yaken itzala galdu ba-
 deutsezu: euren esanac eguin
 gura ezic ibili bazachakez, edo
 atzera erantzuten, edo erremush-
 cadaac, burrufadaac, abrigu-
 charrac, beguiranaac edo a-
 dicunaac eguiten: edo beste al-
 detara ernegarazo badeutsezu.

Ea gaishoric egonic icusi ezpadozuz : zartzaroan beguiratu, eta premiña ta mee aldieian lagundu, ta ez unetan emendatu ezpadozuz : ceure erruz elesha-coac bagaric, edo testamentua eguin bagaric il izan badira.

Guraso edo etseco-buru bazara, beguira ondo, ea celan eta nondi dabilizazan zure ume, otsein ta oguitucoac : celan dakien dotrinea : nos confesetan direan : gauba ilunduta beré etseric canpora badabiliz : ea erromerfa, batzaacodantza, naasteco yolas ta gau-bigueretara aguindu badozuz.

Ea yakinic, edo susmea eukiric zure umeac edo etsecoac canpoan edo etsean deungarobici direala, edo lagun charracaz batzanduten direala, eragotzi ezpadeutsezu : ezcontzaco berbaac emonic, alcarren etsetara, edo alcarregaz egoteco

Iecura yoaten ichi badeutsezu :
 eta ori berba ori emon ezkerro ,
 berarizco ta beren bereguico ar-
 dura bat artu ezpadozu arimaco
 okerric izan ez dedintzat.

Beguirra ea biraoac aſienae ,
 berba loiac , edo beste aldetati
 deungaac , eurac dantzuela , e-
 san-da , edo gauza okerren bat,
 eurac dacusela , eguin-da , edo
 eurai eguiten aguindu ta , edo
 bestelan charreraco bideric e-
 mon deutzazunez : lau bost ur-
 teric gorantzaco seme alabaac o-
 ean alcarregaz badaratzazuz ; e-
 do senar-emazteoc ceuen albo-
 an , edo guelan.

Ea euren aldia eldu ezketiño
 zure erruz ezcon-tzagaric bada-
 goz : edo euren gogoaz bestera
 ezcondu badozuz : edo Yaun-
 goicoac osterantzean dei eguiten
 deutsen estadua edo bici mo-
 dua artuten zure aleguinean la-
 gundu gura ez , edo bear bada
 galerazo badeutsezu.

Ezcondua bazara emen gogora eikezuz ceure lagunagazco aserre aldiac, deungaro esacaac, escu yoreac, eta onelangoac: baira bere ondatu izan badozuz yan edanetan, yocoan, tratu okerretan, aucitan, soñean ta zor kerietan, lagunac eta umeac bear leukeena.

Testamentario iñoc ichi bazaituz, beguira ea eguin bagaric badaucuzuz aren eleshcariac eta aguintzaac, eta atera bagaric zorrac eta mezaac.

BOST-GARREN AGUINDUAREN GANEAN.

Gogora eguizu, ea iñori gorrotoric, currucaric, edo icusi-ecin andiric izan: agurra ta berbea kendu edo gachic opa izan deutzazunez: edo etorri izan yacan okerragaz biotza arguitu, edo onagaz ilundu yatzunez.

Ea errieltea, edo aserre-aldia, izan, eta berba astunac esan, edo iraunac iñori emon deutzazunez.

Besteren arteco baķea, edo adiskidetasun ona, edo ezkontza eguiña edo igaroa barriacaz eta ceure miiñ gaistoagaz galdu dozunez.

Ea iñor il, ebagui edo yodozunez, eta ataric guero edo berari, edo besteri besteren calteren batzuc etorri yacozonez.

Eriotzaric, edo beste calte andiric ceure buruari opa, edo emon gura izan deutzazunez.

Ea sabeleco seiña galduteco aleguinc eguin, edo besteren bat atan imini izan dozunez: edo ain bagaric, ceute erruz galdu, edo galduteco bidean yarri izan tzareanez.

Iños caturu, edo yakinaren ganera lar edan, edo calte andia eguingo eutsuzuna artu izan

dozunez : edo iñori alangoric eraguin deutzazunez. Ea orditutea ecanduz izan daroazunez : eta yakinic tabernara , ileteetara , ezteguetara , eta fiestetara yoan da, ardaoan yausten zateala , orregaiti beré alango lecuetara eldu izan tzareanez : eta esan bear dozu , ceinbat bider izan zatekean , beti yausi-ezagaiti. Eta alper dozu : orrei lecuoi berico agurra eguin bagaric , etzara ceure bician ondo confesauco.

Bidebagaco auciric iñori emon , edo kerellaric ecarri deutzazunez : edo besteac zuri emonari , legue eztan leguez , eutsi, eta yarraitu deutzazunez. Ea ceure erruz bear eztan auciren bat Erriac , edo besteren batec darabilenez.

Norbaiteri becatu eguiten aguindu , lagundu , edo orretaraco burutasun charric emon

badeutsazu, edo ceure deunga
ro eguinagaz orretan imini,
edo orretaraco bideric emon
badeutsazu.

Ea becatu mortalean ego-
nic, ceure burua ilteco pelle-
buruan edo bidean imini do-
zunez.

SEI - GARRENECOAREN

GANEAN.

Beguiria emen araguizco be-
caturic eguin badozu: leen e-
guina gogoratu - ta, atan atan
gogoz egon bazara: damutu
bayatzu erea izan da, ez e-
guina: eguiteco asmua artu i-
zan badozu: edo asmuric ez
arren, egon izan bazara gau-
za loi seigarrenecoren bat bu-
rutan dozula, aztuteco, edo
gogoa beste gauza batera yo-
catuteco aleguinic eguin ba-
garic: edo amesetaco gauza

G

loiren bateri eder - erechi ba-
deutsazu, eta burutaric ken-
duteco aleguinic eguin ezpa-
dozu.

Ibili izan bazara escuaz de-
ungaro, edo ceure buruagaz,
edo dan leguezco lagunagaz:
bada nai guizonezcoac eure-
tara dala, nai emacumeac e-
macumeetara beti da becatu.

Iñori alangoric eracutsi ba-
deutsazu, edo orretaraco esan,
mandatua aguindu, edo celan
alan bide okerra amon badeu-
tsazu: edo ceu iñoren estalgui-
lla ta mandatari ibili bazara.

Canta ta destaña zantarric,
ipuin loiric, edo herba barre-
eraguin - carri nasairic esan,
edo besteai eraso, edo besteac
esateco zuc eguin edo imini
badozuz: edo alangoac gogo-
ti entzuten egon bazara.

Ibili bazachacoz/gogo oke-
rraz edonori beré aurpeguira

edo beste lecutara beguira :
 edo siñuca ta kiñuca : edo e-
 gon bazara adi - icusten ce-
 lan besteren batzuc deunga-
 ro dabiltzazan : edo patariai ,
 abereai , edo pistia zantarrai ,
 umeac artuten dabiltzazane-
 an , orren bearric eztozula.

Berba baten aguertuco deu-
 tsazu confesoreari, lotsaac al-
 bora bota-ta , zuc gogoz, ber-
 baz , mozuz , escuz , icustez ,
 entzutez , edo bestera izan do-
 zuzan argaltasunac : ibili izan
 bazara cirica , bultzaca , ora-
 ca , ausca , itzulmurdica edo
 zapuzca : ta esan eixiozu be-
 ti , nor dan icentadu bagaric ,
 ceiango lagunagaz izan tzan ,
 ezconduagaz , ainbaacoagaz ,
 boto castidadeco dunagaz , ai-
 deagaz , nai odolecoagaz , nai
 oratuagaz , eta ceinbat garren
 aide cenduan ; baita beré izan
 bacenduan ecer patariagaz .

edo abere mutuagaz. Esan bere bear deutzazu, ea ceure etse barruan, edo ceure aguindura badaucazu becatu-laguna.

Ezconduac beré confesau bear dabe, lagunari gogortu bayacoz, laketu ta lagundugura bagaric ondo dan aldie-tan, besteac esan-da beré: edo eguin izan badabe oker dan orduan, edo charto dan alde-rara, edo umeac edo bestec asmau leikiela: edo urac euren erfuz, dana dala gaiti, zabaldu ta galdu eguiten dituezala, edo galdu leikeezala.

Onen ganean yakin eguizu ece, seigarreneco gauceetan eztagoala gauza chikiric; guztiac dira astunac eta zaconac: eta alan eztozu bachu beré confesiñoan atzeratu bear: ece bein bat atzeratutera azkerocan guztiac gueratuco yatzuz parca tzagaric. Baita e-

san, onelangoen ganean biotzean daucazuzan errencura, conca ta ezda baida guztiac.

Yakinic egon bear tzara e-cé, bazabiltze gazteac naastean batzaaco dantzetara, yolasera, fiestetara, gau-biguirerara, erroldara, arta-zurietara, liña guintzeetara, carobietara, chacolin saltzeetara, eztegüetara, eta alangoetara, etzareela garbi izango, zuec alan uste izan-arren. Eta arabere okerrago, bein ezcontzaco berbea emon ezkeutio, ezconguei bioc alcarregaz bazagoce.

Eta azkenez yakin bear dozu ece, ceure etsean eguiten bada batzaar nastua, edo ceure aguindu-pecoai ichiten badeutsezu alango tokietara yoaten, edo leen esan direanetara ibilten: edo eragotzi bear dozula eragozten ezpadozu,

zure bizcarrera izango dozu-
zala, orreec lecu orreetan e-
guin daikeezan becatu guzti-
ac: eta alan onelangoen ga-
nean beré esamiña eguin be-
ar dozu.

ZAZPI - GARREN AGUIN-

DUAREN GANEAN.

Beguirá ecer ostu, edo os-
tuteco gogoric izan badozu:
ceinbat zan: ceinbat aldiz:
ceinbatena: ta izan bada Ele-
shaan, edo Elesh-gauceá.

Ea gurasoai soñeraco, ta o-
ñeraco ta zorakerietaraco ar-
toa, garia, edo beste gauzaric
eguin badeutsezu: bear dan ba-
shen gueyago gastarazo ba-
deutsezu, neba-arrebeen cal-
tean.

Otseiña edo oguitucoa iza-
nic, ta ceure soldateari gui-
chi erechiric, edo ainbaacoan,
ugazabai ecer ostu badetsazu.

Inoren ortuan , soloan , basoan , abereetan , edo gauceetan calteric eguin badozu ; edo eguiten aguindu , lagun-
du , edo orretaraco burubide-
ric , edo oñic emon badozu :
edo bestec ostua artu , edo es-
taldu badozu.

Yocoan , saldu - erosietan ,
ta artu emonetan cindo ta gar-
bi ibili ezpazara : pisuan ta
neurrian gazago ta laburrago
emon : edo gauza caltetua , e-
do achakia-duna , esan baga-
ric ontzat sartu : edo legue dan
bashen merkeago erosi , eta
gorago saldu badozu : gana-
dua erdiratzen , bear dan gar-
bitasunean , ezpadaucazu

Dirua epeetan eta ordeaz e-
mon agaiti corriaric eroan ba-
dozu : ceinbat eta celangoari.

Galarazo badeutsazu otsei-
ñari soldatea , bearguinari a-
loguera , mandatariari saria ,

eta edoceñeri bere icerdia.

Iñorentzat aloguerean edo bearrean ibiliric, bear litekean baño lan ta bear guichiago eguin izan badozu.

Leen osturico gauzaric, zorríc, edo iñoenic yaubeari aleguinean emon bagaric luzaro badaucazu.

Arkitu izan dozun gauzaren bat, zuretzat gorde izan badozu, yakitera eguin bagaric noena dan, edo confeso-reagaz edo yakitun bategaz ondo itun bagaric.

Iñoren besteren ondasunac, edo gaucea legue eztan bideti ceuretu gura izan badozuz.

ZORTZI - GARRENECOA-

REN GANEAN.

Beguira ea guzurric esan do zunez, eta ea atati guero norbaiteri okerric etorri yaconez.

Ea iñori guzurric erne deu-

tsazunez: edo zuc ceure aragui-
ari kendu ez arren, edo zuc i-
cusia edo entzuna, ta eguia
izan arren, besteren creituco
etena, oraindo ishilic dagoana,
edo guichic dariana, eztakia-
naren edo eztakien belarrieta-
ra eroan dozunez; eta atati
guero zabaldutera etorri izan
danez.

Ea besteri creituan calte e-
carrico deutsán cantaric ate-
ra dozunez: edo alangoric zuc
destañez cantau dozunez.

Iñoren cartaric zabaldu e-
do yaubeac gura eztabela, i-
racurri dozunez.

Ea creitu galarazoa atzera
leengo senean iminteco, con-
fessoreac esan da beré, alegui-
nic eguin eztozunez.

Ea besteren batec ceure au-
rreti esan izan dabén creituz-
co deungaroa gogoz entzuten
egon izan zareanez.

ñoren bicitzaco gauzaac
 yakin ecinic, edo basterreta-
 co ereciac ta errondoac batu
 ecinic ibili zareanez.

Eguin izan dozun susma de-
 ungueari, edo buruac ecarri
 izan deutsún peco charrari,
 arin ta bete - betean sinistea
 emon deutzazunez, eta ea i-
 ñori iragarri deutzazunez.

*Bederatzi ta amar - garre-
 necoen ganecoac, bost Elesba-
 coenecoac, eta osterantzeco be-
 catuac sarturic doz az esanic
 doazaneetan.*

ESAMINA OSTEAN.

*Esaizu urrengo oraciñoetaric
 guraago dozuna.*

I. **E**ne Yaungoico on, e-
 ta Aita maitea! arrituric, eta
 lotsea daridala imini nabe ene

becatu asco ta andi tzarrae.
 Aracatu dodaz ceure arguia-
 gaz neure biotzeco bazter ez-
 cutuac : bururatu dodaz ale-
 guinean, zure contra nic egui-
 nico gaistakeriac : eta zuc , us-
 tez ezauerazo deustazuz ene
 becatu zain eskergaac : eta go-
 gorturic nauco icusteac nic e-
 guin dodana , eta celan zure
 ontasunac icharon deustan.

¡ O Yann biotzecoa ! ¿ Ce-
 lan nic aztu izan zaitudaz ?
 ¿ Celan ausi izan dodaz zure
 legue ta agundu santuac ? ¿ Ce-
 lan yausi izan nas ainbeste be-
 catutan ? ¿ Celan egon zacha-
 taz ain luzaro ishilic eta ba-
 kean ? ¿ Celan iruntsi ez nau
 infernuac ? ¿ Cer eguindot nic ?

¡ Ay ! ta ce icaraturic naukeen
 nire becatu andi itzalac ! Bil-
 dur nas astiric izango ez ete do-
 dan confesorearen onetara el-
 duteco. ¡ Ay ene zorigaistecoa,

confesau baño leen ilten banas!

II. **Y**esus ene artzain ta erosle maitea, izan zaitez zu ceure Aita aserratuagaz nire bitarteco. Andiac dira, esker-gaac dira, eguia da, ene becatuac: baya andiagoa eta zabalagoa da ecin gueiagoan zure ontasun neurri baacoa, eta enegaiti ainbeste igarazo eutsun zure on ereste gozoa.

Ceruetaco Erreguinea, becatarien Amaric laztanena, ta bitartecoric maiteena: Angueru ta cerutar santuac, escatu eguiozue zuec Yaungoicoari becatari andi onegaiti. Becatuaz eguin nas bere arerio... ezaindu dot arimea... galdu izan dot cerua... irabaci izan dot infernua... eta betico eneac eguin eban, zuec ene bitarteco urten ecic.

; Ay Yauna ! ; Errukia be-
 catari andi onegaz ! Oraingui-
 ño gaisto okerra izan banas
 beré, bigundu eguidazu, Yau-
 na , ene biotz arrizco au : in-
 dazuz negarrezco corrontaac,
 nire becatuac urtuteco : ez na-
 guizu, arren, zure begui erru-
 kitsuen aurreti bota : estu, lo-
 tu ta eutsi eguidazu ondo on-
 do , gueyago biurtu ez nadin-
 tzat leengo becatuen ondamen-
 di itzalera.

Damu dot , Yauna , becatu
 eguin izana : baita damu do-
 dala biotz guztiric. Errukia ,
 Yauna , errukia becatari andi
 onegaz. Oneric aurrera beste
 bat izango nas. Aurrerantzean
 gorrotoz , eta gorroto andiz ,
 beguiratuco deustat becatua-
 ri. Leenago ilgo nas il , beca-
 tu eguin baño. Bai , Yauna ,
 bai : alanche izango da zuc la-
 gunduten deustazula.

BECATUEN BENETACO
DAMUTASUNA ARTUTECO
ORACIÑOAC.

Esai zu ceuc urrengo oraciñoetaric bata edo bestea, ceuri ondoen derichazuna.

I. ; **O** ene Yaungoico maitea ! zu zareana zarealaco, eta maite zaitudazalaco gauza guztien ganeti, damu dot becatu eguina : damu dot biotz guztiric zure ontasuna neure becatuacaz ofendidu izana : damu dot zure legue santua gorde eza : eta gura neuke, damuarren zatituco balichat ene biotz prestu-ez au.

Emoten deusut berba cindo benetacoa, aurreracoan ez gueyago becuric eguiteco : becatuen bide guztietaric alde eguiteco : nire bicitza gais-

toa onduteco, eta biotz guztiaz ceu maite izateco. Bai, Yauna; leenago ilgo nas milla bider beré, ta leenago galduco dodaz osasuna eta ondasun guztiac, zure contraco okerric eguin baño.

II. ; **A**y ene biotzeco Yungoicoa! ; Non tzan ene centzuna becatu eguit - orduan? ; Nora adi nengoan, zure ontasunari bide baaco ain itzalach eguin neutsazanean? ; Cer eguin dot nic?

Becatu bacar bategaiti asco ta asco datzaz infernuco laba gorrietan: ; celan bada niri ishili eroan deustazuz a-inbeste, ta ain andiac? ; Ceinbat dagoz orainche erretan infernuan nic bashen becatu guichiagogaz?

; Cer izango zan nigaz, eta

non nengokean ni orain , il izan baninduzu , beste asco leguez , becatu eguin da bertati? Eta ; ceren beguira nago , atzera biurtuten banas , orain artean ain sarriro eguin dodazan becatuetara ?

III. ; **A**y Yauna! eta ; ce larric icaturic naukeen neure becatuac ! ; O ontasun azkenbaacoa ! eta ; ce billau dollorra izan nasan ni zugaz ! Zuc ni ecerbere eceti sortu ninduzun : zuc cristiñau eguin nozu : zuc alde guztietara zoriundu nozu.

Ni gaiti yatzi cinean ceruti lurrera : nigaiti aragviz yantzi cinean : icusi cenduzan neke , barau , atsacaba , ta gogortada entzun-ezac. Ni-gaiti emon cenduan ceure odola : galdu cenduan ceure bicitzea caru-

tze baten untzeacáz yosiric :
 eta nic eskerbaaco onec ; celan
 erantzun deutset alango laz-
 tantasun eta on-erechi gozoai,
 eta alango mesede ecin andia-
 goai ?

IV. ; **A**y Yauna ! errezki i-
 zango dozu nizaz erruki ! On-
 datu aguean naukee neure
 becatu astunac : betico galdu-
 teco arri labanaren ganean na-
 uke ene gaistakeriac. Deada-
 rrez yusticia eske yagotzuz e-
 ne okerreriac. ; Ah ! Bear ba-
 da ezteustazu luceroago icha-
 dongo : eta urrengo eguin dai-
 kedan becatuan , ene ganean
 yoco dau nire contraco beti-
 co sententia gogor adugais-
 tocoac.

Eta ; cer eguin nei nic es-
 tucuntza onetan ? ; Nora bi-
 urtuco dodaz beguiac ? ; Nori

dei eguingo deutsat ? ; Noga-
na echuago nas ? Baya ; no-
gana , ezpada ceugana , ene
Aita, Eguilla, eta Onguin mai-
te orregana : ene Yaun ta Ya-
be ona gana ?

Ara emen bada , Yauna ,
ceure oñetan parkesca seme
gaisto , galtzalle au : ceure ar-
taldeco ardi galdu deslaitu au :
ceuc erosirico arima balio an-
dico au.

V. **A**ndiagoa da zure onta-
suna , nire okerreria baño. Nic
galdu izan dot zure seme iza-
tea , baya zuc ez niganaco ar-
tatasuna. Nic ni - gan dagoan
guztia eguin izan dot, ene bu-
rua betico infernuan sartute-
co : ceuc barriz eguin dozuz
aleguinac eta ecin eguinac, ni-
ceruraco bidean iminteco.

Baakit nic, gura eztozula be-

cataria galdu dedin : ezpekizu
arren gura ni galdutea : izan
tzaitez nire erruki : ez naizu
emon infernucotso amurra-
tuen erpa artera.

Errukia , Yauna , nizaz : e-
rrukia becatari andi onezaz :
errukia parcaciñoa ta gracia.
Amen.

CONFESIÑO AURREAN.

*Esaiizu urrengo oraciñoetario
bat edo gueyago.*

I. **E**moidazu , Yauna , ceu-
re arguia , neure becatuac eza-
gututeco : damu oso bat , ne-
re erru guztiac gaiti negar e-
guiteco : eta astia , direanoc ,
garauric bere ichi - bagaric ,
confesetaco.

Ez nas lotsa izan becatu e-
guiteco : eta eztot lotsaric be-

ar confesorearen onetan aguer-
tuteco, gogoz, berbaz, ta e-
guitez izan dodazan etenac ta
obenac.

Bigundu eguidazu, Yaun e-
rrukiorra, ene biotz caltzai-
duzco au: yosi eguidazu ceu-
re bildur santuaz arimea: eta
lagundu eguidazu confesiñoac
dirauan arte guztian: becatu-
ren bat ez bat confesa-tzaga-
ric gueratu ezta kidan: bada
ezta kit, berau dódanez neure
azkenengo confesiñoa.

Virgina Ama Maria, Angue-
ru Gordetzallea, Santu Santa
gaztiac, izan zaitece orain bi-
tarteco neureac; artez ta ce-
atz confesaduric neure gaista-
keria, ta becatu guztia, aai
nadintzat Yaungoico aserra-
tuagaz bakeac eguiten, eta
presta nadintzat artzeco, bein
penitenciaco sacramentu au:
eta guero altaracoa.

II. **B**eguirra , Yauna , beguirra zakioz errukiz becatari andi oneri: ez arren nigaz eguin, nic mereci dodan leguez: beguirra zakioz , nigaiti curutze baten ilic egon tzan zure seme gozoari: beguirra nire ondo gu-raz ain ugari emon eban odol ederrari. Nire erru ta zor guztiac bashen gueyago da ascozaz beré , berac opa izan eutsun ordea.

Beguirra beré Ama maiteari, ceinen escus eskintzen deusadazan Ama - Semeen merementu ta irabaci andiac , eta Elesha Santuco osterantzeco ondasun neurri bagaac.

Esanic dozu zuc ece , baldin becatariric gaisto galdue-
na zu gana ondo damuturic
badator, zuc aztuco dozuzala
bere deungaro eguin guztiac.
Ara bada emen , Yauna , dan

becatariric okerrena : ez naguizu bota ceure beguien aurreti : ez eguidazuz ichi ceure erruxiaren ateac. Deiez nagotzu : paikesca nagotzu : ez bada arren , belarriac gortu ene deiai , ez ene escariai.

III. **B**elu nator zugana. Ascotan emon izan deutsut onduco nasalaco berbea , eta ez-tot orain artecoan yagon : baya oraingoan ezta alan izango. Damu dot ceu ofendidua : ez nas gueyagoren gueiago becatu bidera biurtuco : gogo cindo cindo bat daucat , aurrerantzean neure bicitzea onduco.

Ceugan , Yauna , daucat us-te bete betea : ceugana biurtugura dot : baya orretaraco zure arguia bear dot , neure becatuen iluntasun itzal onetaric


urtutea : eta ondo icusteco,
eurac arimaan eguin deuste-
ezan calte gogorac.

Lagundu eguidazu , Yauna,
ondo confesadu nadintzat. Ar-
guitu eguizu confesorea ceru-
raco bidera zucendu naguan-
tzat.

; Ay Yauna! ; celan confesa-
duco nas ondo , zuc lagundu
ezic? ; Celan yagui ta garbi-
tucoco nas , zuc escua emon ba-
garic?

Damu ta negar billa baza-
biltz , ona emen damuturic ta
negarrez becatari andi au. Da-
mudot Yauna, damu dot biotz
guztiric : errukia nizaz.

*Esaizu Neure Yaun Yesu-
cristo.*



**CONFESIÑOAREN ON-
DORREN ESAIZU.**

N *neure* Yaun Yesucristo ,

milla esker, emon deustazulaco ene becatuac confesetaco erea, astia, ta gogoa.

Ceure ontasun andia-gaiti, eta ceure Ama Virginearen merecimentu andiacaiti escatuten deutsut, arren parcatu deidazuzala, confesiño onetan izan neunkezan utsac: aztu e-guin bayataz becaturen batzuc: euki ezpadot euren damu ain betea: eta neure argaltasunez izan neinkezan dan leguezco uts eguite guztia bada nic gura neunkean alic ondoenegin, ceure mai santura graciazco garbitasunez zuriric eta ederric elduteco.

Ceu-gan, Yauna, daucat nic uste bete-betea, parcatuco deustazuzala becatu guztia: gogortuco nozula gueyago becatuan yausi ez eiteco; eta inosco alditan argaltasunez yausten banas, emongo deusta-

zula osterá bere, abegunea, gu-
ra izatea, ta laguntasuna con-
fesetaco, bicitzea onduteco; ta
eriotzaguiño ceure grácian eta
adiskidetasun onean iráutea; a-
lan guero cerura, ceu icusten
igoteco. Amen.

YAUNA ARTU BAÑO

LEEN.

*Esan eikezu urrengo oracinoctaric
biotza obato bixtu leikezuna.*

I. ; **A**y Yauna! ; celan asar-
tucó nas ní, zu ene biotz atsi-
tuan artuten? ; Nor tzara zu,
ta nor nas ní? Zu zara ceru-
lurren eguillea: ní barriz lu-
rreco artzantat billau atsiuena.
Zu zara danic yaun miragarrie-
na: Zure aurrean lotsea ta bil-

H

durra danielá dagoz Angueruac:
zure escuric eskeguiric, dingui-
lizca leguez, dagoz ceruac eta
ceru pe guztia: ecer ez-cara
ceure aurrean: ezdozu zuc ino-
ren bearric: eta ceure esate ba-
car bat da asco, gauza guztiac
ecerez tuteco.

Ni barriz; cer nas zugana el-
duteco?; Zu nire ao ta bular
loian sartuteco?; E-nas ni i-
cuski zantar ecetaraco bat: be-
caruz kirastua: abere itsu bat,
eta ecin gueiangoan billau pres-
tu eza? Bada; ce aurpeguigaz
elduco nas, Angueruen oguia
yatera?

Moyses ceure adiskide an-
diac biotzic ezpeucan, ceu a-
guertu cinchacazan sasi ereshe-
guinera urreratuteco: San X Joan
Bautista ceure lencusuc baci-
ñoan etzala bera duin ceure o-
ñeraco ugala ascatuteco: San
Pedro-c baciñautsun: *Layna*

ken ni ganic ,becatari galdu bat
nas eta : Angueruac euraç aus-
pez , aurpeguia dariela , bada-
goz ceure anditasunaren aurre-
an : ; celan elduco nas ni becata-
ri oker au , ceuri ene barruan
ostatu emoten ?

II. ; **O** Yaun bildurgarria !
; beguiratuaz beste bagaric ce-
ru lurrac icaratuten dozuzana !
; Yaun neurri bagaric andia ,
baya nire errukiz , eta nire on-
do-guraz ceure burua ecereza-
tu-ta , altaraco mai santuan e-
guiazco yanaari ta edaari egui-
nic guelditu cineana ! ; Ay Yau-
na ! ; ce arpeguigaz elduco nas
ni zu-gana ?

Baya ; cer diñot nic , arpe-
guiric eztodala ? ; Celan izango
eztor , zu ceuc zu-gana etor-
teco dei eguiten badeustazu ?
Ondo yakinic ene argaltasuna

ren barrí, orregainí ; billatuten
 banozu ? Banator bada. Yauna,
 banator bai : bada ; cer eguin
 neike zu-bagaric ecetaraco-ez
 onec ? Ceu-gan indartu ta go-
 gortu bear dau ene arima ar-
 gal, erkin, cadenac. Banator
 bada

Baya, Angueru ederrac, za-
 toce zuec laster ene-gana, eta
 prestau eguizue biotz billosh
 gauza ez onetan ceuen Erregue-
 ri yagocan ostatua. Virgina A-
 ma Maria, San Yosepe glorio-
 soa, ceruco Santu Santaac, er-
 due zuec beré garbituten, eta
 edertuten ostaru ezain au, sartu
 dedintzat berean ceuroen yau-
 bea, ceruco Erreguea, neure
 Yesus maitea, Yaun ta Yaun-
 goicoa.

III. **O** Angueruen oguí zu-
 ri ederra ! ; **O** ceruco eraari

gozoa , amodiozco labaan ego-
 sia ! Erdu , Yauna , erdu ordu
 onean nire etse uts onetara. Er-
 du aberastuten nire arimea : go-
 gortuten nire argaltasuna : biz-
 tuten nire fedea : eshetuten nire
 biotza : asetuten goseac-il au :
 zoriunduten errucarrí necatu au
 eta ceugaz bat eguiten , ceurí
 ainbeste costa izan yatzun seme
 galdu au. ; Ay Yauna ! eta ; ce
 aberats gueratu bear dodan ,
 ceu ene biotzean , nigaz bat e-
 guinic , icusi ezkeró !

*Elda zaitekez guero gure Yau-
 na artutera fede ta biotz-samur-
 tasun , albait berocnagaz : eta
 Sacerdoteac Yauna escuan dabe-
 nean , esaikezu zuc beré beragaz
 nastean iru biderreco aldiz :*

Yauna , ez nas ni duin , zu
 ene etsean sartzeco : baya esai-
 zu zuc berba bat , eta osatuco
 da ene arimea.

Ostia santua artuteco egon bear

H 3

dozu moduz , gueldi gueldi , bu-
 rra puscachu bat gora eguinic ,
 beguiac baturis , aca zabalic , ta
 miina ateraric.

YAUNA ARTU EZQUERO.

Esango dozuz urrengo oracino-
 etaric batzuc , edo orduan , edo
 beste aldi baten egun atan ,
 erac dacartzunear.

I. ; **O** Yauna ! ce aberats na-
 goan zugaz ! ; **O** ce ontasun
 andia eracutsi dozun becatari o-
 ker onegaz ! ; Cec Yauna ? ; Cec
 etorri eraguin deutsu nigana ?
 ; Ce on icusi dozu nigan , ene
 barruan sartu gura izateco ?
 ; Zu Erregneen Erreguea ,
 Yaun guztien Yauna , nigana ?
 ; Zu , ceinentzat ceru zabalac
 curac direan labor-estuac , nire


etse ciloan? ; O Yauna, O
Yauna! ; nos mereci izan dot
neuc mesede zorioneco au? ; Cer
eguin nei zor andi onen alde-
raco? ; Edo cegaz eracutsi nei-
kezu mes de guztizco onen es-
ker ona?

; Nori eguño gogoac emon
euskion, onelango mesede ede-
rra eguingo ceustala? ; Nor da
guizona Yaungoicoac alan zo-
riunduteco? ; O atseguintasun
guztien Yauna! ene ecerezean
laztan zaitudaz onenbeste me-
sede-gaiti. Neure bician ecin az-
tu nei, eracutsi deustazun on-
ereste gozo au.

II. ; **A**y Yesus maitea! eta
; ce yar-lecu pobrea ra billosha
artu izan dozun ene biotzean!
; Yesucristo ene bularrean? ; Ya-
ungoicoa ene barruan? ; Neure
eguille **laztana** ene arimaan? ; O

ee pocic, ce aberatsic, ce zo-
 munduric ichi dozun, Yauna,
 nire arimea eta nire gorputza!
 ¡O noc leukean Ama Virgine-
 aren garb tasuna, Angueru san-
 tuen amodio beroa, eta Santu
 guztien birtute ta ontasun mi-
 ragarriac, ene arima au apaindu
 ta edertuteco, eta ceuri emote-
 co, zór deitsudazan esker onac!

Orra, Yauna, ceure escuetan
 ene biotzeco guiltzaac; nire gau-
 za guztien yaube oso-osea e-
 guin rzaitez. Ceu zarean guztia
 eguin zachataz enea: eta ni bere
 nasan guzti au izango nacha-
 tzu orain-ganic eta gueiago zu-
 rea, eta ondo zurea. Aror ene
 adimentua, gogoa, biotza, a-
 rimea, gorputza, eta nasan guz-
 ti au: eguizu ni-gan ta nigaz
 nai dozun guztia.

upi.  Yauna! ¡ce guichia;

ce prestu-eza , ce otz-orra , ta
 leorra nasan zuri esker onac e-
 moteco ! Ceugan dagoz aberas-
 tasun guztiac : on guztiac ceu-
 gan dozuz. Ceu zara ondasun
 guztien emalle prestua ta uga-
 ria : bete eguizuz bada ene u-
 tsac : aberastu ceure ondasunez
 ene arima on-bearra : busti ta sa-
 murtu ceruco inontzaz ene biotz
 gogor , leor agortua , eta zucen-
 duene gogo , berba , ibilera nai-
 gura guztiac : neu nasan guzti
 au bete-betea zurea izateco.

Etzara , Yauna , alperric eldu
 nire ostatu billosh , uts onetara.
 Eta bada munduco Erregueac
 beti cerbait ichiten dabe sartzen
 direan etsetan , etzara zu aec
 bashen laburrago izango. Bau-
 cazu , bai , nigan non emon ceu-
 re ondasunac. Ezteutsur nic i-
 chico ene arimaco ostatu one-
 taric urteten , aric-eta ni osatu,
 zoriundu eta aberastu artean,

IV. **Y** auna , ain arrituric nauco ni gana etortez eguin deustazun mesede onec ece, ez-takit nie ez cer eguin , ez cer esan zuri eskerrac emoteco. Eta alan biotz umil pocezco bate-gaz eskintzen deustut bularrean dodan ceure Seme maite au be-sau : berac ni-gaiti icusi cituzan neke , eta niretzat irabaci citu-zan ondasun ugariacaz batean.

¿ Non zagoce Angueru santuac ? ¿ Non tzara zu, Yesus-en Ama maitea ? ¿ Eztacutsue nire barru ezain onetan ceuroen gloria guztia ? Bedeincatu , santutu ta alabadu eguizue zuec nire ordez Yaun andi au. ¿ O ene biotzeco Yesus maitea ! Santu guztia bedeinea zaguiezala , e-ne-gana etorri zarealaco.

Izan bedi comuniño santu au barriztelaco nire bicitzea : par-

ketaco nire becatuac : eciteco
 nire guraari okerrac : garbitu-
 teco nire loitasunac ; osatuteco
 nire gachac : indarra emoteco
 tentaciño aldietaraco : azpiratu-
 teco deabrua ; gogortuteco nire
 argaltasuna : yanarituteco er-
 beste onetan nire arimea : eta
 segurututeco betico gloria.

Au alan izan dedintzar, Aita
 beticoa, opa deusut Seme mai-
 te au : berac eustan laztantasu-
 na : bere umiltasuna, bere ne-
 ke, barau ta penitenciac : ni
 salbetaco eucan egarri andia,
 nigaiti artu cituzan arduraac, ta
 zuri eguin eutsuzan escaariac.

V. **E**skiñiten deusudaz yaio
 zanic eta curutzean il arteco be-
 re atsacaba, naibaga, larritasun,
 ta necaldi ecin gueiagocoac. Es-
 kiñiten deusut ni-gaiti emon
 eban odol baliotsua, bere pasi-7

ñoco gogortadaac, ta icusi eban
eriotza garratza.

Onezaz ganeti, eta eurocaz
batera eskiniten deutsut bere
Ama maiteac igaro ebana; ni-
retzat irabaci ebana; eta mun-
dua danic ona Angueru ta gui-
saseme guztiac eskiñi deutsue-
zan eguite on guztiac.

Au guzti au, Yauna, eski-
ñiten deutsut ni-gana sacramen-
taduric etortez eguin deusta-
zun mesede andiaren alderaco:
eta comuniño santu au gura dot
izan dedin ceure gloriaric an-
dieneraco: ene arimearen one-
raco: becatu guztien zorren or-
deraco: eta purgatorioco arima
santuac zor deutsuenen kitu-
garrizat: eta escatuten deutsut
yanarituric orain ogui santu o-
negaz, igon daguidala guero
yatera ceruco mayan gozota-
sunez beterico ogui santua. A-

*Al daizan debociñoric beroenaz
esaizu comuniño ostein A. San
Inacio-ren urrengo oraciño au.*

Yesus-en arima santua, santu-
tutu naguizu. Yesus-en gor-
putza, gorde naguizu. Yesus-
en odola zure onez bete nagu-
izu. Yesus-en bularreco ura gar-
bitu naguizu. O Yesus ona, en-
tzun eguidazu. Ceure llagueen
artean ostu naguizu. Zu-ganic
alde eguiten ichi ez eguidazu.
Arerio gaistoetaric yagon na-
guizu. Zu-gana etortea aguin-
du eguidazu. Santu guztiacaz
zu alabetaco orain, guero eta
beti. Amen.

**SACRAMENTU SANTUA-
RI ESATECO CANT - ONAC -**

Pange linguaren antzecoa.

Nire miña, canta guiozu.

neure yaun yaubearí ,
 ni-gaiti Sacramentuán
 niretzat dagoanarí
 neu odolaz erostecó
 ni-gaiti il tzanarí.

Guri emon yacun Yauná,
 guretzaco yaio zán :
 gugaz bici izan ezkeró ,
 guretzat il eguin tzán :
 gu-ganic yoat-orduán
 gugaz bertón gueldi zán.

Bere belurengo gaubán
 bere gorputz-odolá ,
 bere discipulu onái
 berac escuz emoná ,
 beragaz gu bat gaitezán
 bera da gure yaná.

Berbo Yauna guizonduríc
 Berboa aragui dá :
 Berboac berba eguin dá
 Berboa da yan gauzá.
 Berbaz bada gora daigún
 Berbo Yangoico Yaurá.

¡ O Sacramentu andiá !

¡ O ce Yauna an dagoan !

; O ce icara , ce bildurrá !

; O cer lotsa zor yacán !

; O Angueruen oguiá !

; O noc gose ceikezán !

Andia Aita Yaincoá ,

andia da Semea ,

andia Espirituá ,

andia gure zorrá .

Andia beraz dayogún

Andiari eskerrá , Amen.

*Beste bat Sacris solemnis-er
yasacoa.*

Bici bedi Yesús

sacramentaduá ,

gure canta santúz

tint alabaduá .

Dayogun gogoric

berari soñuá .

Ea , erago poz-pozic .

Yaun biotzecoác

il-aurreco gabán .

ogui ta ardao banác

artu - **na** cñoán :

ene gorputza au dór,
 au odola : ta alá
 yan - eran berau guztioç.

Ostia baten ; ah !
 benetan dáucazúz
 Yangoico - guizoná
 bere odol - gorpúz ,
 ta arima ederrá.

Yan edan eguizúz.
 Orren beguira da Yauná.

Ilun , larri , baldán ,
 argal zagozaná ,
 erdu , ara bertán
 zuc bear dozuná.
 Cristoren gorputzác ,
 Ondo zuc artu-ta ,
 emongo deutzuz indarrác.

Dirautse Yesus - ac
 meza - emolleái :
 artu au zuentzát ,
 baita emon onái.
 ; Ay ce escuicuná
 ya:orken guizonái ,
 Angueruac eztaukená !
 Angueru oguiá

da guizonarentzát :

Yaungoico - guizoná

da nai dabinentzát,

Aberats ta pobre ,

Erregue ta czác ,

ona guztioe erdue.

¡ O Aita - Semeác ,

Espiritu onáz

Yainco bat irurác !

Zagoz orain gugáz

gueure biotzeán ,

guero guc orregáz

icusteco zu ceruán. Amen.

CURUTZECOEN IBILBIDEA

CURUTZEAC IBILTECO GOGAR-
TE , TA ORACIÑOAC.

*Cristiñau-debociñoen artean da
ebito ona , eta mesede-garria cu-
rutze bidea , edo Calbario-raco
guera-aldi santuac ibiltea, Bere-*

an gomutarazoten garuz, Yesus biotzeacoac gu gaiti igaro cituzanac. Baita debociño santu au Cristiñauen biotzetan barrunago sartuteco, Aita-Santu Erromacoac emonic dituz parcamen ascota andiac.

Yesusec bide gogor onetan ceugaiti icusi cituzan neke itzalacalti, escarituten nachatzu, arrenta arren debociño ta eguicune santu oneri ekin ta ekin, ta eragon daguiozula, bicitzea ondu, ta serua irabaci gura badozu.

Curutze santearen egunic, esaizu aldaizun biotzie beroenaz Neure Yaun Yesucristo.

SARTZAIEREA.

Neure Yaun ta Yaubea, ceure onetan echunic, eta biotzumil bategaz, opa deutsut, orain ni astera noian Calbario bide onetan, esan ta eguingo

dodan guztia : eta emongo do-
 dazan pausuac, Yesus ceure Se-
 me maiteac bide onetan nigaiti
 eroan cituzan neke, gogortada,
 larritasun, ta ala andiacaz, eta
 niretzat irabaci cituzan mercedi-
 mentuacaz batera.

Orain-ganic artuten dot go-
 goa, irabazteco Aita-Santu E-
 rroma-coac, bide santu au da-
 biltzanentzat, emonit dituezan
 parcamen guztiac : eta direanac
 eskiniten deusudaz purgatorio-
 co Arima santuen oneraco.

Onetaraco escatuten deusut
 biotz guztiric, arren gorde da-
 guizula Elesha Ama santua; ya-
 gon cristiñau-erriac : zaindu fe-
 dedunac: parcatu gure becatu-
 ac : ondu becatariac : eta ceru-
 ratu purgatorioco Arima erru-
 kior orreec. Indazu, Yauna,
 gracia ta escua, albait ondoen
 ibilteco curutze santu onetaco
 bide au. Amen.

Así gaítezan esaten
 Yesus-en neke penác,
 Iarritasun, gogortáda,
 eriotza, ta minác:

Lagun dayogun guztíoc
 Yesus-erri negarréz,
 Calbario-co bidean
 doyanean ain nekéz.



LENENGO GUERALDIA.

*Emen Cristo gueure Yaunari e-
 mon eutsen eriotzaco sentencía.*

Azotez galdu ezkéro
 gueure Yesus laztaná,
 condenau dau Pilatos-ec
 crutze baten iltzerá.

ESCAARIA.

O Yesus ona! ta ¡ce laztan do-
 zun ceuc eguinico guizona, ba-
 da bera becuric ateretearren,
 gura izan cenduan izan ceure a-
 rerio gogorrai saldua; socaz ta ca-
 teaz estua; etseric etse dandarréz
 erabilia: Barrabas okerragaz bat
 eguina; bost milla azotez eba-
 guia; eta arantza itzalez coroa-
 tua! eta oneec asco ezpalira le-
 guez, entzun gura izan cendu-
 an ishi ishilic, arnasea atera ba-
 garic, Pilatos-ec ceure' contra
 emon eban curutzeco eriotzaco
 sententia gogorra. Emoidazu,
 arren, biotz zabala, zuc leguez
 onean ta bañean eroateco nire
 neke, atsacaba, lotsaari, ta
 ishotasun guztia: orain alan
 zurearen ant/eco bicitza on bat
 eguinic, betico ceruraco sen-
 tencia zure aoti entzuteco. A-
 men.

150
Yauna becatu eguin dot, e-
rrukia nizaz ceure pasiño ta e-
riotzea - gaiti.

Atta-gurea ta Ave-Maria.

Bedeincatua, ta alabadua izan
dedila Yesu-Cristo ren pasiño
ta eriotzea : eta bere Ama mai-
teac ni gaiti icusi ciruzan neke
ta penaac. *Onelanche esango da
curutze bacocean.*



BIGARREN GUERADIA-

*Emen curutze astuna lepo-gane-
an imini eutsen Cristo gue-
ure Yaunari.*

Lepoan curutze astuna
ezarri ta daroc'

iltera Yesus laztána

gaist' > okerbat leguechē

ESCAARIA.

O Isaac seme esaneco ona !
 ; ce presticta ce pocic daroazun,
 ceure eriotzaraco bearco dan
 zur astuna , indargueruric egon
 -da beré , Aitearen borondatea
 eguitearren ! ; O bildots bigun,
 umil , errubaacoa ! ; ce ishijie ,
 eta gogoti zoazan eriotza lécu-
 ra , guizonacaiti bicitzea emo-
 ten ! Indazu , arren , gracia , e-
 ne bicitzea ondu-ta , arindure-
 co , ene becatuac astundu izan
 deutsuen cururce ori , eta ba-
 kean ta gogoti eroateco , zuc e-
 mon gura deustazun edoceinbe-
 re neke ta icuskizun , onelan gue-
 ro andico aldean izateco , alan
 eguiten dabenen sari ederra.
Amen.

Yauna becatu &c. *Alta gues-
 res &c.*





IRUGARREN GUERALDIA.

*Emen yausi zan lelengo curutze-
agaz Salvatzallea.*

Yesus datza luce luce
lurrean curutze-peán :
bota dabe zure errúac.
Aremen nor tzareán.

ESCAARIA,

O ceru lurreen eguillea ! an-
dia da nonbaite bere nire beca-
tuen anditasuna, bada lurra yo e-
raguin deutsue ceurí, gauza guz-
tiac indartuten dozuzan orreri.
Curutze astuna ganean, ta Ya-
ungoicaren Semea azpian . . .

¡ay!; ce icusgarri negargarria!
 Yauna, indazu escua, ene be-
 caturic yaguiteco, eta ez gue-
 yago yausteco : azkenean zu-
 re laguntzan ceruco bear-tsa-
 ri gozoac izateco. Amen.

Yauna becaru &c. *Aita-
 gurea &c.*



LAUGARREN GUERALDIA.

*Emen alcar icusi eben Ama-
 Seme errukigarriac.*

Negarrezco beguiácaz
 dacus Amac Semeá,
 galduric, ta il bearrez.
 ¡Au bai zala nekea!

ESCAARIA.

O ceruetaco Erreguina, ta
 Amaric errucarriena! eta ; ce
 estu ta larri gueldituco yatzun
 biotza, araco icusi cenduanean
 ceure biotzeco Yesus laztana
 curutze astunaz necaturic, be
 re burua arantza zorrotzez
 galduric, aurpegui ederra u
 belduric, gorputz guztia odol
 usturic, belaunac icara, ta i
 zan al-tzitekean lotsariric an
 dienaz iltera eroiela! Itzuli e
 guizuez, arren, Ama - Seme
 bitzuoc ni - ganantz zuen be
 gui errukiorroc, eta eguin na
 guizue zuen seme esaneco o
 na, eguin deguidazuentzat bi
 oc eriotzaco orduan beguitar
 te arguia. Amen.

Yauna becatu &c. Aita
 gurea &c.



BOSTCARREN GUERALDIA.

*Emen Simon Cirine-coari arr-
arazo eutsen Yesusen cruutzea*

Emen Simon Cirineo
lagantzat emon eutsén,
Calbario-ra bagáric
Yesus il ce lekién.

ESCAARIA.

Ay ene Yesus ona! eta ce
nekez, ta ce ozta gogorrean
eguin cenduan Calbario ra bi-
dea, bada Yudegu arrigarriac
eurac uste eben ece, bertara
baño leen ilgo cinchakacela
bidean; eta agaiti Cirineoa Ja-
gun emon eutsuen. Baya ; ay!

ez eutsuen orregaiti zure erru-
kiz emon, ez : eta bai curu-
tzean gogor ilten icusi gura
cinduezalaco. ; Guizonen ceu-
ganaco gogortasun itzala bein-
tzat ! Emoidazu, arren, Yau-
na, ceure nekeen erruki andi
bat, eta ceure esana gauza
guztietan eguitea : onelan zu-
ri curutzea eroaten lagundu-
ric, sartu nadin guero, curu-
tze orregaz idigui ceustan ce-
ru zabal ederrean. Amen.

Yauna becatu &c. *Aita-
gurea &c.*



SEIGARREN GUERALDIA.

*Emen Beronica Santeac gar-
bitu eutsan arpeguia.*

Beronicac siketárren
 Cristo-ren icerdiá ,
 eun garbian aterá dau
 Yaun onen aurpeguiá.

ESCAARIA.

O Yesus edertasun berbera! eta ;ce ezain ichi zaituezan ene becatuac , bada izanic ceu angueruen ispillu loi-baguea , eta guisasemeen artean ederrena , guelditu yatzun aurpegui guztia ainbeste yotegaz baltzituric, andituric, eta antz guztia galduric , eta icerdiz , autsez , chiztuz ta odolez loituric! Indazu , arren , Yauna , becatuen damu zolia : yosi bekidaz irrime biotzean ceure neke gogorrac , atzertu naguienzat becatu eguituric; alan icusteco ceruan , zuc Santuai eracusten deutsezun

aurpegui eder - gozoa. Amen.
Yauna becatu &c. *Aita-
gurea &c.*



ZAZPIGARREN GUERALDIA.

*Emen bigarrenex pausi
zan Yesus.*

Reguirá ce astuná dan
becatuen pisuá ,
bigarren aldiz eguin dau
gueure Yesus lurrerá.

ESCAARIA.

O Yaungoico andia! ; noc
alan argaldu ta indarguetu
dau, lur yotera guño zure an-

ditasun itzal andicoa ? ; Ay e-
 ne Yauna ! nire becatuac ain-
 beste gach zugaran eguin bada-
 be, ; cer eguin izango ez dabe ni-
 gan , becatu orreec eguin izan
 dodazan onegan ? Nire beca-
 tuac lurrera bota zaituez : eta
 ni ; becatuen azpiti beinberé
 yaguico ez nas ? ; Yauna , Ya-
 una ! bigundu eguidazu biotz
 gogor au : emoidazu becatuen
 gorroto andia : eta munduco
 egotaldi labor au ezkerro , ere-
 gui naguizu ceruco gloria goi
 ederra. Amen.

Yauna becatu &c. *Aita-
 gurea &c.*



ZORTZIGARRN GUERALDIA.

*Emen iracatsi eutsen Yaunac
Yerusalen-go Alabai, ceri ne-
gar eguin bear eutsen.*

Yesus alaz icusíta,
negar daigun guztiác
becatu eguin izána.
Alan dirauscu berác.

ESCAARIA.

O Aita laztan, ta maisu
eguiazcoa! eta ¡ce ardura an-
diaz eracusten deuscuzun ce-
ruraco bidea! bada nekez, ta
alaz, arnasea bete ecinic, ci-
ñoazala, guztia aztuta, gue-
ratu cinean iracasten ceure
atzean negarrez yoazan an-
dra errukiorrai, celan ez zu-
ri, ezpada euren becatuai,
eta euren semeenai negar e-
guin bear eutseen. Arren, Ya-
una, arguitu naguizu, ceure
esan ederrac burutan ondo ar-

tuteco : ceure deiai erantzute-
 co : neure becatuacaiti negar
 eguiteco : eta zuri beti ene bi-
 ci guztian yarraituteco , gue-
 ro ceruan betico pozcari ar-
 tean zugaz egon nadiatzat.
 Amen.

Yauna becatu &c. *Aita-
 gurea &c.*



BEDERATZIGARREN GUERALDIA

*Emen yausi zan irugarrenez
 Yesus gaishoa.*

Iru bider yausi Yésus
 zugaitarric lurrerá ;
 ta ¿ luzatzen ezteutsázu
 gogor orrec escua ?

ESCAARIA.

O bildots errubaacoa! eta
 ; ce umiltasun andiaz imini ci-
 nean Yudegu gogor - amorra-
 tuen escuetan , ucabilca , osti-
 coca , makillaca , ta celan gu-
 ra barregarri erabilteco , zu
 bitarte orretan ishi - ishilic ,
 chitic beré eguin bagaric ,
 cengozala ! Ene arimearen e-
 rosla laztana , ni izanas neu ,
 zuri onenbeste neke ecarri de-
 utsudana. Parcatu , Yauna ,
 parcatu. Emoidazu escua be-
 catuen trocatzeric yaguiteco ,
 eta ez ostera yausteco. Indazu
 umiltasun benetacoa , eta ene
 burua guichi eguitea ; orregaz
 irabazteco ceruco anditasun
 ederra. Amen.

Yauna becatu &c. *Aita-*

gurea &c.



AMARGARREN GUERALDIA.

*Emen billostu eben ceruco
Erreguea.*

Lirio , larrosac baño
ederrago izaníc ,
gueratu da gu yantzárren
Yesus dana billosíc.

ESCAARIA.

O Yaunic aberatsena , ce-
rua izarrez , celaiac loraz , e-
ta mundu guztia edertasunez
yantziten dozuna ! ; ce lotsaa-
ri gogorrean icusi cenduan
ceure burua araco billosh-bi-
lloshic , narru gorrian , mund-

du bete lagunen aurrean ichi
 cinduezanean! Eta ; ce min ica
 ragarria ceurea , bigun baga-
 ric erontzi eutsuezanean, ara-
 gui eratziai oratu - ta ceunca-
 zan soñecoac ! ; Ay Yauna !
 au ecarri deutsue ene becatue-
 taraco nabarbenkeriac , ta lo-
 tsabagueac. Arren , Yauna , i-
 dekí eta kendu eguidazu mun-
 duco zorakerien zaletasun ta
 lera gaistoa , eta emon nekeen
 egarri andia : alan ceruan glo-
 riaz yantziric betico zugaz e-
 goteco. Amen.

Yauna becatu &c. *Aita-
 gurea &c.*



*Emen untzeacaz yosi eben
Yesus curutzean.*

Escu - oñac untzeácaz
crutze baten yosiríc,
eskeguita dago Yésus
minez ilten nigaitíc.

ESCAARIA.

Ara emen, Yesus laztana,
mundu zoroac ceure eriotzan
opa deutsun oea. Ain nekezca
lepo-ganean ecarri dozun zur
gogorrean, yosten zaituez es-
cu-oñetati, burdiñazco untze
lodiaca. ; O ene biotzeco Ye-
sus gozoa! eta ; ce itzala do-
zun oe ori! ; Ay, eta celango
alacaz atera bear dozuzan,
neuc ene buruari emoten deu-
tsadazan atseguin zantar, ta
poz zoro cital galgarriac! Yo-
si eguidazu, yosi, neure bio-
tza zure bildur santuaren un-

tze zoliacaz, ibili ez nadintzat
zoro eguinic munduco atse-
guin ta naiari uts · caltegarri-
en atzean. Nereac izan bitez
emen nire gozoa, guero beti-
co atseguintasunac ceruan i-
zateco. Amen.

Yauna becatu &c. *Aita-
gurea &c.*



AMABIGARREN GUERALDIA.

*Emen iltzan Yesucristo
gure Yauna.*

Emen il tzan ; ay ! gugañi
gure Yesus maiteá :
ta ; celan minac ezteuscu
kenduten bicitzea ?

ESCAARIA.

O ce gach icaragarria dan
 becatua, bada bera-gaiti da-
 cust nic curutze baten ilic Ya-
 ungoicoaren Semea bera! ; O
 guztien bicitzea! ; noc alan
 il tzaituz? ; ce escu itzalec
 kendu deutsu bicitzea? ; Ay
 ene beguiac! ; nosco dozuez
 negarrac? Ene Yesus biotze-
 coa, orainche dozu errukia-
 ren aldia. Ni gaiti ilzara: ni-
 gaiti emon dozu bicitzea: e-
 rrukia bada errukia nizaz. A-
 purtu bekit damuarren biotza.
 Ilbekit munduco gaucetaraco
 gogo guztia, bici nadintzat
 guero ceugaz betico bicitza-
 an. Amen.

Yauna becatu &c. *Aita-
 gurea &c.*

upna

Universidad
 Pública de Navarra

3700223023

Naturroako
 Inbertsitate Publikoa



AMAIRUGARREN GUBRALDIA.

Emen Yesus-en gorpu ila curutzereanic eretzi eta Virgineari altzora emon eutsen.

Semearen gorpu ílac,
untzeac, eta arantzác
emon deutsez Mariári
min-ala guztiz latzác.

O *ESCAARIA.*
Matiri guztien Erreguina,
naibaguez ta larritasunez
uryolatua! eta ce igaroric,
ta conorte bagaric gueratuco
yatzun arimea, eta ce larri
biotza, araco icusi cenduan
ceure altzoan ilic ceure Seme
bacarra, eta zatituric, Espiritu
Santuac ceure sabelean sor-

tu eban gorputz ederra! ; Noc
 esan, ez noc gogoaz beré u-
 rremon ceure biotzketa ta ala
 itzalai, araco escuacaz icusi
 cenduzanean bere burn eder
 arantzaz galdua, escu oiñ un-
 tze zorrotzez zulatuac, sor-
 balda azotez ebaguiac, eta al-
 bo lantza gogorrez idiguia? Da-
 mu dot, Ama maitea, ene be-
 catuacaz zu onetara ecarria.
 Eztot gueiago becatuic gura.
 Artu naguizu emen semetzat,
 guero ceruan amatasun onen,
 esker gozoac ceuri beti emo-
 ten egoteco. Amen.

Yauna becatu &c. *Aita-
 gurea &c.*



AMALAU GARREN GUERALDIA.

*Cristoren sepulturea, ta Vir-
ginearen bacartade iluna.*

Umezurtza triste eguinic
gaishooc lotu gará :
obian daucagu Yesus,
gozo bagaric Ama.

ESCAARIA.

O Amaric errucarriena!
; ce bacarra guelditu zarean!
; Non dozu Semea? ; Non do-
zu ceure biotzeco Seme baca-
rra? ; Non artuco dau atsedem
apur bat ceure biotz larri o-
rrec? Orain artean, ilic bada
beré, icusi izan dozu ceure
Semea; baya iya ar-losa astun
batec estaldu deutsu beguie-
taric, eta eztacusde oneec i-
ñonbere atseguin garriric. Ni-
gaiti icusi dozuezanacaiti, es-
catuten deutsuet Ama Seme

biot, arren, eguin naguizuela
 zuei gozo emongo deutsuedan
 langoa; izan bidi neure bio-
 tza, comulguetan nasan ba-
 cochean, ene Yaunaren toki
 ederra; azkenengo egunean
 gloriáz yantziric biztu-ta, be-
 tico ceuecaz ceruan egoteco.
 Amen.

Yauna becatu &c. *Aita-
 gurea &c.*

*Guero esan ciñaiske Sacra-
 mentu Santuaren estaciñoa,
 sei Aita-gurea ta sei Ave Ma-
 ria esan-da.*

YESUCRISTOC BERE
*pasiñoan icusi cituzan ueke
 guztien barri laburra.*

Yesus maiteari enron eutse-
 zan bere aurpegui ederrean e-
 un-da oguei matrallaco.

Guztiaç erantzungo dabe:

Alabadua izan bedi Yauna.

Eun-da oguei ucabilcada i-caragarri bashen gueiago e-mon eutsezan. R̄. Alabadua. &.

Gesemanico orturic eta A-nas-en etsera guiño zazpi bi-der lurrera egotzi ebeen.

Emon eutsezan osticadaac, izan cirean eun ta berroguei.

Idun socaric narrasca era-bili eben ogueta bat aldiz.

Buruco ulle ta bizar tira-caac izan cirean berrogueta amabi.

Azotadu ebenean eldu zan bein il aguinera.

Emon eutsezan bost-milla, eun ta berrogueta amabost a-zote erruki baacoac.

Azotadu ebeen borruerac i-zan cirean sei guizoto tzar.

Ain errime estu eben meta-rrira ce, istanda eguin eutsan escuturretati odolac.

Arantzazco coroiac eguin

eutsazan buruan irurogueta amabi cillo zacon.

Irurogueta amabi bider atsitu eutsen arpegui ederra chu ta gorro lizunacaz.

Calbariora bidean iru aldiz yausi zan luce luce.

Irurogueta amabi bider larri larri eguin yacan biotza.

Azur asco eucazan locaturic, eta arra-betean aguirian.

Guelditu yacon gorputza bururic eta beatzetara zati oso bagaric, eta odolezco iturri bat eguinic.

Curutzean yosiric egoala, gueratu zan ain ezain ta icaragarri ece, ez eucan guizonen antzic beré, eta iñoc ezagutu bere ecin eguin eukean.

Gugaiti icusi cituzan neke, ala, ta gogortada guztio.



YESUCRISTO GUEURE

Taunaren nekeen-ganeco go-
garte cbito samurrac, ta ora-
ciño mentaleraco, mezentzute-
co, curutzeetacoac eguiteco, ta
confesiño aurreti becatuen da-
mutasuna artu gura dane-
raco guztizco ederrac.

I. **O** ene arima! Beguira
zure Yesus maiteari, ceinec
guri euscun on ereste ta asco-
gura ecin gueyagocoa-gaiti,
nai izan eban guizon eguin,
abel etse baten, edo (esan dai-
gun) corta zantar baten yaio,
it-asca, edo estramiña baten
etzan, zortzi garren egunean
bere odola emon, eta Eyitu-
co erbestean bici. Ontzat ero-
an eban gure oneraco batea-
tua izatea, barau eguitea, ten-
taciñoac icustea, bidean ibil-
tea, sermoiac ta mirariac e-

guita, necatual ta gaishoai
mesede eguita.

II. Beguira Yesus gozoari,
ceinec ilgo zan aurrengo egu-
nean bere dicipulu maiteacaz
batera Yerusalen-en Pascoa e-
guin, ta bere eriotzea esan gu-
ra eban bildotsa, yan eban. An
guero afal ostean, garrien in-
guru eun bat imini, ura ontzi
zacón baten utsitu, eta garbi-
tu eutsezan dicipulu orrei o-
ñac, ta eunagaz leortu, berba
gozoac bitartean esaten eutse-
zala.

III. Beguira ceure Yesus
laztanari, ceinec iñoc escatu
beré bagaric eguin eban alan-
go testamentu ederra, eta e-
guin ta ichi eban bere gorputz
ta odolaren sacramentu bene-
ragarria, bere biaramoneco
pasiñoaren gomutea beti Ele-
sha santuan eguin cedintzat,
eta sacramentu ain andiaren

frutu ta onura gozo-ugaria il-
bicietara zabaldu cedintzat.

IV. Beguira ceure Yesus
laztanari, ceineri, bere dici-
puluacaz Olivete-co ortura yo-
an ezkerro, asi yacan biotza i-
cara-icara ta ilun ilun egui-
ten; eta alan esan eban, iya
ganean eucán pasiñoaren ga-
rrastasun ta gogortasunac e-
rasota: *ilun daucat, il artean,
biotza.*

Anche belaunico bere Ai-
teari oraciño eguin eutsan: ta
auspez, aurpeguia lurraz yo-
sita, yarriric, bere burua be-
te betean imini eban Aita o-
rren escuetan, biotza ordu a-
tan onen larri eucala ece, la-
rriaren andiz odolezco icerdi
laban batec emon, eta alde
guztietati odol tantaac zara
zara eriozan: eta Yaungoi-
coaren Seme zana Angueru
bat bear izan eban, berari

biotz puscachu bat emoteco.

V. Beguira zure Yesus biotzecoari , ceinec , gu-gaiti ilteco eucán egarri itoagaz , bidera urten eutsen , bere billa etozan arerio okerrai : eta Yudas döllor , cital galduaren mosua bakenan artu eban : beste dicipulu enparaduac barriz berari innes egin , eta soldadu gaistoac , lapurra bailitzan legueche , oratu , estu , eta gogor ta barregarri erabili ebeen.

VI. Beguira ceure Yesus gozoari , ceinec , Anas Pontificearen aurrera ain lotsa gorrian eroana izan tzanean , artu bear izan eban areñ mutil-otsein icuski-oker batec emon eutsan Icaragarrizco belarr-ondocoa.

VII. Beguira ceure Yesus ederrari , ceinec , Caifas Pontificeac ta Batzaar guztiac gaiskilla eguln da , guztizco garratasun ta lotsakizun andiac icusi

bear izan tzituzan : bada testi-
 gu okerracaz salatu eben , Ya-
 ungoicoaren contraco berbaac
 esan izan bailituzan leguez ; e-
 cin okerrago condenadu eben :
 asco ta ascoc irri ta barre eguin,
 ta arpegui ederrera christu ta
 gorro loi-atitsuac eguin eutse-
 zan , eta gau guztian lotsa cha-
 rrean errebes barregarri erabili
 eben.

VIII. Beguira ceure Yesus
 gozo berari, ceinec , Yudegüen
 aguintariac Pilatos-egana ero-
 an-da , arpeguia yausi yausi e-
 guinic egon bear izan eban yu-
 ez yentil fedebacoaren aurrean :
 eta guzurrez salatuten ebeene-
 an , ishi-ishilic egoteari obe e-
 rechi eutsan , erantzuteari ba-
 zhen.

IX. Beguira Yaungoicoaren
 yakituria danari, cein , Pilatos-
 ec Herodes-egana biralduric,
 Yudeguac barrero ta aserre sa-

latuten dabeen. Berac barriz ez
 Erregue mirariac icusi-gura o-
 neri laketu eutsan bere naikeri
 zoroa, ez Yudegu salatzalleai
 ao bete arnasa atera. Atati He-
 rodes-enecoac zoro garbieguin,
 eta soñeco zuri bategaz burla-
 zar yantziric, Pilatos-egana at-
 zera, esturic, aguindu eben.

X. Beguira ceure Yesus e-
 rrucarriari, cein Pilatos-en a-
 tartean, soñecoac erantzita na-
 rru gorrian met-arri batera lo-
 turic, aserre-gogor azotez e-
 baten daben, gorputz eratzi
 guztiti odol ez guichi guichã
 erion-guñocoan.

XI. Beguira ceure Yesus
 blotzecoari, ceineri Pilatos-en
 soldaduac, azote gogorrac ez-
 kero, soñeco gorri bat yantzi-
 rendeutsen, eta euki bear dau,
 baita min-ala zoliacaz, buruan
 yosiric arantzazco coroe itzala.
 Emoten deutse cañabera bat es-

cura , etá beragaz butú santuan
yoten dabe : eta burlaz ta ba-
rrez nabarben okerrac , belau-
nico yarriric , escumunac eguin,
Yudegiien Erregue esan , aurpe-
gui beneragarrira chistu-eguin,
ta belarr-ondocoac emoten deu-
tsez.

XII. Beguira ceure Yesus
gaishoari , cein atera eban Pi-
latos-ec arantzazco coroiagaz ,
eta soñeco gorriagaz etse au-
rrera , an egoán mundu bete la-
guneri eracusten : oneec barriz
deadarca ta deadarca , zoro e-
guinic , Yesus ilteco esaten de-
utse.

XIII. Beguira zure Yesus
gozoari , cein errubagaric con-
denadu eban Pilatos ec , curu-
tze lotsagarrian iltera : eta gue-
ro curutze , zur astun,ori lepoan
ebala , eta argalarren uco eguin
bear ebala , uriaren erdi-erdi
atera ebeen , ilgo ebeen lecu i-

tzalera éroateco, andrachu banaca batzuc bashen bestec erukiric ez eutsala.

XIV. Beguira zure Yesus laztanari, cein guero ta guero bere bidez ascaturic, eta al-baitincaca arnasea bete ecinic eldu zan Calbario-ra, eta anche emon cutseen beztunez nastaurico edaari mingotz apur bat aoan sartu eban, urrengo berba oneec diñoen leguez: *emon eusten beztuna yaten, eta egarri nintzanean binagrea emon eusten edaten.*

XV. Beguira ceure Yesus biotzecoari, ceinec curutzearen aurrean soñecoac erontziric, ta billoshic bere ganean luce luce eguinic, eta untzeacaz yosiric, alango eriotza gogorraren gutzizco min-ala icaragarriac icusi bear izan cituzan.

XVI. Beguira ceure Yesus laztanari, ceinec, curutze ere,

guiar, lapur biten erdian, es-
 keguiric, egarriac itoten egoala,
 bere Aiteari, bera alan imini
 ebeenacaiti, eta bere contra i-
 rrica ta barreca, ta deungaroat
 esaca cñarduenacaiti, bitarteco
 ederra leguez, escatuten deu-
 tsan: barriz Ama larrituari cu-
 rutzereanic berba eguiten deu-
 tso: eta Aiteari, deadar zolia-
 gaz eta negar andiacaz, bere a-
 nimea emoten deu:so: icusten
 dabela eriotza icaragarrizco go-
 gor au, bera Sacerdotea, ta o-
 pa dan ostia erabatera izanic,
 Yangoico-Aiteagaz gure gorro-
 tozco Semeoen arteco bakeac
 eguiteco, eta mundu galdua
 bere eriotzeagaz erosteco ta on-
 duteco.

XVII. Beguira zure Yesus
 maite-gozoari, ceinen gorpu i-
 laren escoaco sat etz-aldea lan-
 tzeagaz ebaguia ta zularua izan-
 tzan, eta guretzaco odola ta u-

ra emon eban: eta ceinen gorput
 ori azaz ganeti adiskideac cu-
 rutzeric eretsi, ta obian sartu
 baño leen, ubientu usaintsua-
 caz igotzi ta gantzatu, eta izara
 garbi baten batu eben.

• Ezagutu eguizu, ene arimea,
 ezagutu. Aushe dozu gure Yan-
 goico Yauna, zure Salbatzallea.
 Yangoicoaren Seme bacarra; eta
 mundu onetaco errubaaco bacar-
 ra. Eta alan-da guzti, ara, gais-
 to eguin izan dabe, ta guizonic
 satzenentzat artu izan dabe. ¡Ay!
 ta guizonic ederreña; ce ezain da-
 goan! Gure becatuacaiti ebagui
 izan dabe, gure okerretiacaiti
 birrindu izan dabe. Il gura izan
 dau, Aitac guri euscun gorro-
 roa galarazoteco, eta gu cerura
 eroateco.

Andrana Mariaren nekeac.

Yesu cristo-ren nekeac celan-

K 4

bait gogotàn erabili ezkerò , e-
 cazuz burutara bere Amearenac
 beré. ; Ay bada , celango atsa-
 cabea izango zan berea , araco
 Seme eder orrec , iltera yoan
 bear-ta , azkenengo agur samu-
 rrac eguin eutsazanean ! Eta ; cer
 izango zan ecusten ebanean ,
 Seme ori bere escolaco batec
 saldu ebala , beste batec maisu
 ebala ucatu , eta guztiaç , bera
 ichita , igues eguiten eutsela ?

¿ Cer guero icusi ebanean Seme
 laztan bera guztien gorrotoga-
 rri eguinic , eta direanac ebil-
 cozala , len-bait-len munduti
 kendu guraric , eta kenduteco
 aleguinac eguiten : darabildela
 batac irri , besteac barre , bes-
 teac kiñu , onec deungaroac e-
 san ac irauna astunac : eta gue-
 ienac yo ta yo barregarri ? ; Cer
 azkenez icusi ebanean Seme au
 azotez birrinduric , bere buru
 ederra arantzazco coroe itzalaz
 dana galduric , eta curutze lo-

tsagarrian ilteco sententia gogorrac, iya bere ganean yo ebalaz?

Baya eldu gaitezan *Larri-callea* derichon Yerusalengo calera: anche icusico doguz Ama Semeoc alcarren aurrez aur, larriaren andiz barbaric eguin ecinic. Dacus Amac bere erraieraco Semea, eta alango Semea, curutze astunaz lepoan, lapur biren erdian: guztia odolduric, arpeguia balzituric, andituric, eta ezainduric: indargueturic, ozta ozta oñen ganean dagoala: eta aserre ta errukiaren apur bagaric daroiela yoca, ta deungaroac esaca, curutze atan iltera; Celango naibacoac ta damuac, celango alen uryoleac artuco ez eutsan Ama bigunari biotza? ; Ay, ay! Eztago au esateco miñic, ez au ulertuco daben buru arguric.

Alanbere ezta ori guztia: guciago ta gueiago, eta ascoz


gueiago icusi bear izan eban
 Calbario-co mendian. Bai bein-
 tzat: anche dacus Ama errukior
 onec, eguño munduan izan dan
 Semeric onena, bere biotzeco
 zatia, bere Yaungoicoa eban
 Semea, curutzean untze gogo-
 rracaz yosiric . . . odola escu-o-
 ñetaco cilloetati zara zara guel-
 di bagaric eriola . . . egarriz ito
 bearrez . . . guztien sartz, zarama,
 ta gorroto eguinic . . . azkenengo
 arnasacaz . . . ilten . . . ta il-otzic.

Eguzkia ilunduten da: itar-
 guia odoldu: lurra icaratu, ta
 achac apurtu: baya ez Amari, ez
 Semeari ezteutse guizonac erru-
 kiric arean artuten eta ilta guero
 beré, Ama minez ganeztu onec,
 dacusala, Semeari alboa lantza
 gogorraz urratuten deutse. Bai
 beintzaz, Ama, bai: orainche,
 aurki, esan lei, ichasoa bashen
 andia dala ceure larritasuna.

Baya gueiagora ecin eldu ba-

leitekean beré , barriztadu zan
 orregaiti neke ori , araco curu-
 tzereanic eretsita , Seme ori ma-
 galean eucala , escuacaz icusi
 eutsazanean araco buru aran-
 tzaz galdua , araco sorbalda biz-
 car azotez apurtuac , araco es-
 cu-oñ untzez zulatuac , araco
 gorpu buruti beatzetara dana
 zulatua , araco biotzeco Semea
 guizonen antzic beré ez eucana.

¡ O Ama errukigarria ! Baakit
 nic enea dala zure nekeen e-
 rrua. Ene becatuacaz ecarri deu-
 tsuet nic , zure Semeari eriotza
 gogorra eta zuri , Ama ecin gue-
 iagoco atsacaba eta ala orreec.
 Baya damututa nago : eta esca-
 tuten nachatzue Ama-Semeoi,
 indazuela becatu onen oraingo
 damu zoliagoa , eta aurrera zuei
 gozo emongo deutsuen bicitza
 on bat eguitea. Ezpedi galdu
 ceuei ainbeste costa izan yatzu-
 en arima au.



ERROSARIO SANTUA,

Chicarreguia da liburuchu au,
 bereaz adierazoteco Errosario
 santuan sartuten direan miraa-
 riac : bera esateaz irabaxten di-
 rean parcamenac ; eta arimai e-
 torri yoakezan ondasunac :. Asco
 da bein yakitia , Ama Virgineac
 berac asmadu , eta Aita San Do-
 mingo-ri aguertu ta iragarri eu-
 tsala ; eta ain dagoela sarturic
 cristiñauen artean debocino au e-
 ce , ao batean esan lei ece , ez da
 bela cristiñauen antzie beré , egu-
 nean egunean esaten eztabenac.

Era bitara da errosarioa ; ba-
 tari dericho Ama Virginearen con-
 soia ceinec dituzan zazpi ama-
 zreco , garaiti Ave Maria bi eta
 gúñean Aita Santuaren icenean

*Aita-gurea ta Aoe-Maria. Be-
rau esanagaz irabazten dabe Ai-
ta san Francisco-ren iru ordeeta-
coac parcamen osoa, edo indul-
gencia plenaria, Aita-Santu E-
rroma-co Leon amargarrenac, e-
ta Paulo bostcarrenac emona.*

*Besteari dericho errosarioa,
ceinec dituzan amabost amarreco,
ceintzuc esan leizan, edo amabos-
tuc aldeerescan, edo bacochean
bana; eta dan leguez dala, a-
mabosteetara ezkerro irabazten da
parcamen osoa.*

*Baya irabazteco esan bear do-
zu errosario ori debocino andiaz,
aor ta biotzez: ez erdi lō, ga-
nora bagaric, ta gogoa beste le-
cutan dozula: astirocku, berbaac
aguia artean nastau bagaric, i-
charoten dozuela, batat ororo e-
san artean; besteac erantzuteco:
eta erreguturic. Ama Virgineari,
arren bada, escatu daguiola bere:
Jesus gozoari, yagon ta zaindu*

*daguiala Elesba santua, beragan-
du ereje ta fedebaaco guztiaç,
gogortu fedean cristiñauac, ba-
ketu ta arguitu cristiñau errie-
taco buru, nagusi ta aguintariac,*

*Onez ostean amarreco basoché-
an gogoan erabili eikezu, egu-
nari ta amarrecoari yatorcan mis-
terio ta gogartea, emen dirautsa-
dan eraan.*

MISTERIO GOZOZCOAC ASTELEN-EGUBENETAN ESAN- GO DIREANAC.

*Erri ascotan yaiegun-arras-
tegiuetan bi edo lauc urrengo mis-
terioac cantetan dituez, ta guero
esan Ave Mariac.*

*Yesus onaren Ama maitéa,
gracia eske gagótzuz,
bost misterio gozoz betéac
cantetan lagun zakigüz.*

Gogo guztiaz esango dógu

Ielengo misterioá :
 zucendu gaizuz cerura beti
 Virgina biotzecoá.

LENENGO MISTERIOA.
Taungoicoaren Semea guizon
eguitea.

Ceruetaric ecarri eútsun
 'Angueruac albisteá,
 zu-gan aragviz yantzico zála
 Ait' Eternoaren Semeá.

Guztiac erantzuten dabe urren-
go au.

R. Ave Marien amarrecó au ,
 Aita-gureaz bateán ,
 Virgina eder maite berári
 esaten asi gaiteán.

Emen esan edo cantadu eguiten
dira Aita gurea ta Ave Ma-
riac.

BIGARREN MISTERIOA.*Santa Isabel icustea.*

Yaincoaz seindun ceu zo-
 az , Ama ,
 lengusinea icustén ;
 ta aren semea yaio bagáric
 saltoca dabil pozarrén.

R. Ave Marien &c.

IRUGARREN MISTERIOA.*Yesucristo-ren yaiotza.*

Yaio zanean zure Semea
 zu ceu dontzella ichiric ,
 gueldi guinean guizon guztíac
 ondasun gozoz beteric.

R. Ave-Marien &c.

LAUGARREN MISTERIOA.*Ama Virginea Elesban sartutea.*

Yerusalengo Elesha sántan
 Yesus eskini cenduán :

berari opa gaizuz guztíoc ,

beretzat artu gaguizan.

R. Ave-Marien. &c.

BOSTCARREN MISTERIOA.

*Jesus galduta irugarren egunean
aurkitutea.*

Galdu ezkerro, idoro céndun

Eleshan zure Semeá ;

poz onegaiti gura ezpekizu,
gu becatuan ilteá.

R. Ave-Marien &c.

MISTERIO DOLOREZCO-

AC MARTITZEN BARICUE-

TARACO.

Jesus onaren Ama maitea,
gracia eske gagoztúz ;
bost misterio minez bateac
canteran lagun zařigúz.

Gogo guztiaz esango dogu
lenengo misterioá,
zucendu gaizuz cerura beti,
Virgina biotzecoá.

LENENGO MISTERIOA.
Taunaren ortuco biotz larria.

Yesemani co ortu santúan
egoan Yesus larriric,
odol-icerdi laban labána
emoten gorputz guztiric.

R. Ave-Marien amarrecó au,
Aita-gureaz batean,
Virgina eder maite berari
esaten asi gaiteán.

BIGARREN MISTERIOA.
Yesusen azote icaragarriac.

Bost milla azote artu zituzán
gure becatuacaiti:
ce gach andia dan becatúa
atera daigun emeti.

R. Aye-Marien &c.

IRUGÁRREN MISTERIOA.

*Yáunari arantzazko coro-
roia imintea.*

Arantza zorrotz, gogor,
- **latsácaz**

coroaturic buruá,

nónbait Yesus-ec kendu nai
eúscun

buru-erechi galduá.

R. Ave-Marien &c.

LAUGARREN MISTERIOA.

Yáunac curutzea eroatea.

Crutze astun bat lepoan, éta
lapur gaistoen erdián,

eroan eben Yesus maitéa

Calbario-co bideán.

R. Ave-Marien &c.

BÉSTCARREN MISTERIOA.

Yesus curutzean yosiric iltea.

Curutze ganean untzez
yosiric

an galdu eban biciá :
gure arimac gal etziécen,
igaro eban guztia.

R. Ave-Marien &c.

MISTERIO GLORIAZCOA

AÇ DOMECA - EGUASTEN - ZA-

PATUETARACO.

Yesus onaren Ama maitéa,
gracia eske gagotzúz ;
bost misterio gloriázcoae
cantetan lagun zakigúz.

Gogo guztiaz esango dógu
lenengo misterioá :
zucendu gaizuz cerura béti,
Virgina biotzecoa.

LENENGO MISTERIOA.
Yesucristo-ren biztuerea.

Neken ostean, Ama maitéa,
ilen arteric bizturíc

icusí cendun zure Seméa
eguzki eder eguinic.

R. Ave-Marien amarreco au,
Aita-gureaz bateán,
Virgina eder maite berari
esaten asi gaiteán.

BIGARREN MISTERIOA.

Yaunaren ceruetara igoerea.

Berroguei egun igaro, éta
cerura igo zaneán,
gloriaz bertan yarri izan éban
Aitac bereac aldeán.

R. Ave-Marien &c.

IRUGARREN MISTERIOA.

Espiritu Santuaren etorrerea.

Espiritu Santu Yalncoa béra
sutan ceruric etorrén,
Apostoluac, ta ganecóac
amore-doez betetén.

R. Ave-Marien &c.



138
LAUGARREN MISTERIOA,
Maria Santissimearen ceruetara igoerea.

Jesus gozoac zu icustáren
ceruan zorionduric,
ara zaroaz gorputz ta arima.
Angueruz inguratatic.
R. Ave-Marien &c.

BOSTCARREN MISTERIOA.
Ama Virginearen gloria andia.

Trinidadac yarri cinduzan
Seme Yaunaren aldeán,
beti ta beti zu eukitéco
beste guztien ganean.
R. Ave Marien &c.

**BESTE MODU BAT ERRO-
SARIOA ESKENITECO.**

Amarreco bacobean esango da.
Ama graciazcoa, Ama erri-
kizcoa, gorde gaizuz arerloe-
taric: eta artu gaizuz eriotza-
co orduan. Amen.

*MISTERIO BACOCHEAN ESAN
CINAIKE URRENGO.*

ESCAARIA.

O Virgina Ama Maria, A-
ingueruen Erreguina, ta gui-
zonen bitarteco maitea! Amari
Ave-Maria onec, ta Aita gu-
rea au opa deutsuguz, erregutu
dayozun ceure Semeari, emon
deigula eguiazco umiltasuna:
gorputz eta arimaco osasuna:
gueure becatuen garbai zolia:
cristiñau errietan bakea, ta Ele-
sha amasantuan zoriona. Amen.

*AMA VIRGINEAREN
LETANIAC BUSKERAZ.*

Y auna, errukia.
Cristo, errukia.
Yauna, errukia.

Cristo , entzun gaizuz.

Cristo , aditu gaizuz.

Aita Yaungoico ceruetacoa ,

R. Errukia guzaz.

Seme Yaungoico muaduaren e-
roslea ,

R. Errukia guzaz.

Espiritu Santu Yaungoicoa ,

R. Errukia guzaz.

Irutasun Santu Yaungoico ba-
carra ,

R. Errukia guzaz.

SANTA MARIA ,

Yaungoicoaren Ama Santea,

Doncelleen Doncella Santea,

Cristo-ren Ama ,

Yancoaren graciaren Ama ,

Ama guztiz garbia ,

Ama guztiz castea ,

Ama dontzellea ,

Ama virginea ,

Ama loitubaacoa ,

Ama maitegarria ,

Ama miragarria ,

Eguillearen Ama ,

R. Erregutu gugariti.

Salbatzallearen Ama,
 Virgina chito beguiratua,
 Virgina itzal andicoa,
 Virgina alabagarria,
 Virgina escu andicoa,
 Virgina biotz biguna,
 Virgina kirmena,
 Ontasunaren espillua,
 Yakinduriaren yarlecua,
 Gure poz ecarlea,
 Ootzi espirituala,
 Ontzi ondragarria,
 Debociño ontzi chitozcoa,
 Larrosa asco esan gurea,
 Dabid en torrea,
 Marfilezco torrea,
 Urregorrizco etsea,
 Bakearen uchea,
 Ceruco atea,
 Egun sentico izarra,
 Gaishoen osasuna,
 Becatarien igues lecua,
 Larri estuen pozcaria,
 Cristiñauen laguntasuna,
 Aingueruen Erreguina,

D. Erreguina Bugaiti.

Aita aurrenen Erreguina ,
 Profeta igarleen Erreguina ,
 Apostoluen Erreguina ,
 Martirien Erreguina ,
 Confesoreen Erreguina ,
 Doncelleen Erreguina ,
 Santu guztien Erreguina ,

Erregutu Euzairi

Yaungoicoa - ren bildotsa ,
 munduco becatuac kenduten
 dozuzana , *Parcatu , Yauna ,*

Yaungoicoa - ren bildotsa ,
 munduco becatuac kenduten
 dozuzana , *Entzun gaizuz Ya-*
una.

Yaungoicoa - ren bildotsa ,
 munduco becatuac kenduten
 dozuzana , *Errukia guzaz.*

Gosh egüerdi arratseetan A-
vemarietacoac yot orduan par-
camenac irabaxten dira urren-
go oraciñoac esan da.

up **A** Angueruac Maria Virgi-

neari barrí onac emon, ta Es-
piritu Santuaren graciaz Yaun-
goicoaren Semea bere sabele-
an sortu zan. *Ave-Maria.*

Ara emen Yaunaren otsei-
ña, eguin bedi nigan zuc diño-
zun leguez. *Ave Maria.*

Yaungoicoaren Semea gui-
zon eguin tzan ta bici izan zan
gure artean. *Ave Maria.*

ESCABIDEA.

Ezarri eguizu, arren, Yau-
na, gure arimeetan zure gra-
cia: Angueruac barrí onac e-
carrita Cristo zure Semearen
guizon eguitea ezagutu dogu-
noc, bere pasiño ta curutzea-
ren bitartez bere biztueraco
gloriara eroanac izan gaite-
zan. Amen.

FEDE , ESPERANTZA
ta Caridadeco eguintzaac.

Nic sinisten dot Yangoico
 bacar baten iru persona bana-
 ac; ceintzuc direan Aitea, Se-
 mea, ta espiritu Santua: irurac
 gauza guztietan bat eta bar-
 diñac.

Sinistuten dot Irutasun San-
 tu onetaco bigarren Personea,
 Espiritu Santuaren eguitez ta
 graciaz, guizon eguin izan tza-
 la Maria Virginea - ren sabel
 santuan; eta yaio izan tzala
 bere Amaren doncellatasuna-
 ren calte bagaric.

Sinistuten dot, Yaun au cu-
 rutzean il eguintzala, gu be-
 catarioc erostearren: ilen ar-
 teric bistu, ta cerura igon e-
 bala: eta azkenengo yudicio-
 co egunean etorrico dala, bi-

ciai ta ilai euren bicien contu
artu , ta sentencia emotera.

Sinistuten dot Altaraco Sa-
cramentu santuan dagoala Ye-
sucristo gure Yauna , Yaun-
goico ta guizon eguiatzcoa.

Sinistuten dot , Elesha A-
ma Santeac sinistu ta eracus-
ten deustan guztia , utsic ecin
eguin leian Yaungoicoac Ele-
sha berari aguertu ta iracatsi
deutsazalaco : eta siniste on
onetan bici ta il gura dot.

Biztu eguidazu , ene fede otz
il au.

Esperantzaco eguintzea.

Ene Yaungoico errukior ta
biotz biginecoa , ceure onta-
sunean daucat nic uste bete-
betea ceure Seme Yesucristo-
ren merecimentu , odol ta e-
riotzea gaiti parcatuco deus-
tazuzala neure becatuac , eta

emongo deustazula ceure bear
 dodan arguitasuna, laguntzea,
 ta gracia ceure aguinduac ar-
 tez gordetaco : eta oneec alan
 gordetan badodaz, beti betico
 gloria. Alan guerta dedilla. A-
 men.

Caridadeco eguintzea.

Maite zaitudaz, Yauna,
 gauza guztien ganean : ta gu-
 ra cindukedaz maitatu, ceure
 Amac, Angueru ta cerutar
 guztiaç maite zaituezan le-
 gueche.

Maite zaitudaz zu zareala-
 co neure eguillea, onguillea,
 ta ontasun berbera; eta cerua-
 ren usteric ezpaneu, ezta in-
 fernuaren bildurric beré, o-
 rregaiti bere maitatuco cin-
 dukedaz : eta damu dot orain
 artean beardan leguez ez mai-
 taturizana : damu dot zu ain-
 beste bider ofendidua. Maite

dodaz beré zu gaiti lagun pro-
shimu guztiac , neure burua
legueche.

Indazu , Yauna , zu-ganaco
amodio su ta gar andico bat :
orregaz iraunic eriotzaa guiño
ceure maitetasun ederrean , el-
du nadintzat guero zu beti
maite izango zaitudazan ce-
rura. Amen.

*BESCARI TA APARI-
ostean esker onac emoteco*

ORACIÑO.

Eskerrac emoten detsuguz,
Yangoico maitea, zure escuric
orai guiño artu doguzan mese-
deacaiti, ta guztiz beré, ora-
in guc mereci ezto gula, emon
deuscuzun yatecoa gaiti. Ceu-
gan, Yauna, dauceguz usteac,
emongo deuscuzula barriro
beré gure eguneango oguia ta
yanaria, gueure bicitzeari, ceu
serbietaco, iraua arazo dayo-

guntzat. Amen. *Aita gurea ta Ave Maria.*

Ama Virgina Maria Santisimari, gure bitarteco izan dedintzat orain ta eriotzaco orduan, *Salve bat.*

Purgatorioco Arimeen oneraco, ta batez berégure senide, adiskide, ezagun, eta etse onetarie urten dabeneraco, *Aita gurea ta Ave Maria bat.*

Mai onetan batu gaituzanoc, batu gaizala Yaungoicoac ceruan: *Aitearen, ta Se-mearen, ta espiritu Santuaren icenean, Amen.*

YAKIN BEARRA. Amarren primicien, ganean laugarren agninduan esan dana da; Elestheac eracustea dibena: baia bacocheac yaquin bear dau bere **errico** oituraac ta legueac.

IDOROBIDEA.

Orrialdea.

Sart-aurrea	3
Gosheco oraciño ta escaariac	9
•Ileco egun bacoheco gogarte edo meditaciñoac	17
Mezentzuteco oraciñoac	94
Confesiñoraco prestaeraac	129
Esaminea eguiteco bide erraza	132
Damua artuteco oraciñoac	158
Confesiño osteraco oraciñoac	167
Yauna arteco prestacuntzaac	169
Yauna artu ezkeru eskerrac	174
Sacramentu Santu altaracoari cant - onac	181
Curutzetacoen ibilbidea	185
Jesus-en nekeac	214
Maria Virginearen alaac	223
Errosario Santua	228
Letaniac euskeraz	239
Avemarietaco oraciñoac	242
Fede , Esperantza ta Caridade- co eguicaiaac	244
Yat-orduco esker onac	247

UTSEGUINEN ARTEZBIDEA.

pag.	lin.	utsa.	arteza.
4	22	: 63, 3 : id. 10.	direa. . . .
5	1	nabelaco	nabalaco
6	17	celango	celan-alango
9	14	belaunico	ta belaunico
14	1	anazabiltz	ona zabiltz
16	13	arnea	arimea
id.	22	Eleshara	Elesan
17	11	egunean	egunean egunean
27	12	babaten	baten
28	4	egungo	egongo
33	18	emote	emotera
35	1	gura	guraco
36	17	zor	zorco
37	16	ceizetariç	ceinetariç
50	8	zokoldoetan	zocondoetan
id.	13	z Cer	z Cer
52	21	: 69, 9	eikiezu
56	16	bazterreta	basterretara
57	16	garlatan	garretan
59	10	Anchen	Anche
id.	11	seculaco	ta seculaco
id.	17	: 28, 18 : 186, 15.	eguin . . .
60	7	etzaitekezan	etzaikezan
66	10	aleguiña	alaguiña
74	2	bici	bicico
80	5	laztasun	laztantasan

pag.	lin.	utsa.	arteza.
id.	15	gaurco neke	guraco neuke
82	ùlt	zauzcazan	zaucazan
83	6	bait	baita
87	8	ondoena	ondoen
92	5. 14	imico	iminico
96	13	aldí	adi
id.	17: 129, 11: 133,		12. Eleshea...
id.	24	Lurreo	Lurreco
98	19	zoroari	zoro bateri
99	6	aurreac	arriac
101	5	ez dáikezun	ucutu ez dai..
id.	13	Sacerdotea	Sacerdotearen
102	12	Yesucristo	Yesucritoc
103	12	unetan	unean
id.	17: 104, 1: 147,		12. mosu
104	16	adia	andia
106	9	euzanie	izanie
110	2	Daracús	Daracusaz
116	20	Yaungoicoa	Yaungoico
120	2	emon	emona
123	14	citucituzan	cituzan
133	23	eztan	eztana
135	4	siniste	sinisteric
138	7	baguira	beguira
id.	8	andia	andi
143	12	besteren	beste
146	4	amon	emon

pag.	lin.	utsa.	arteza.
155	8	zain	ezain
159	17	gorietan	gorietan
167	1	urtuteco	urteteco
170	12	bat	ez har
172	últ	eraari	erraari
184	3	eran	eran
185	14	Curutzecoen	Curutzetacoen
190	15	192, 5.	crutze
192	11	anditasuna	astuntasuna
195	14	cinchakacela	cinchakezala
218	7	christu	chistu
222	23	sat etz	sayetz
227	20	oraingo	oraindo

Ganeco uts chikiac zure ardurara.

*Notingaluzar la
ambition enter la
cuadros de la
...*



na